GAZTEAK ETA BAKEA

iraganari buruzko hausnarketak, orainaldiko aukerak, etorkizunerako erronkak

GAZTEAK ETA BAKEA: iraganari buruzko hausnarketak, orainaldiko aukerak, etorkizunerako erronkak

Idazketa eta edizioa:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)

Argazkiak:

REKKAM Digital Media y EGK

Diseinua eta maketazioa:

Aitziber Ruiz Álvarez

Portada:

EGK-ko Bake&Arte tailerretan eta Bakehizketetan gazteek egindako konposizio piktorikoak.

Inprimatzea:

Copyvasc

Diru-laguntzailea:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

2016ko abenduan

30 urte hauetan,
eta bereziki azken bi urte eta erdietan,
EGK-ko Bake Heziketaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen
filosofia eta helburuak sustatzen lagundu duten gazte guztiei.

ABIAPUNTUA 6

1. BAKEAHOTS - Proiektuak eta gogoetak 14

1.1 Gazteak eta indarkeria: bizikidetza sustatzea 15

1.2 Bake Ibilbideak 24

1.3 Nazioarteko Egunak 39

1.4 Bake&Arte tailerrak 46

1.5 Bakehizketak 55

1.6 Trukea Seton Halleko unibertsitateko ikasleekin 83

1.7 Bakehizketak II 87

1.8 EGK: 30 urte bakearen alde lanean! 96

2. GAZTEAK ETA GAUR EGUNGO ERRONKA BAT: BAKEA – Galdetegia eta emaitzak 104

3. BAKEZALEAK – Aldaketarako proposamenak 136

4. ONDORIOAK 148

SARRERA

1986an hasi zen lanean Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK), eta ordudanik dabil bideak eraikitzen, gazteek lurraldearen garapen politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturalean parte har dezaten. Era berean, EGK funtsezko tresna izan da bake-kultura eraikitzeari eta giza eskubideen defentsari dagokionean. Halaxe jasotzen du, argi eta garbi, Kontseiluaren Estatutuen 2. artikuluak:

> *Helburu nagusia izango da askatasunaren, bakearen eta giza eskubideen defentsaren arloko baloreen zabalkundea egitea, eta herri zein nazio guztietako gazteen arteko hurbilketa sustatzea.*

30 urteko historian zehar, EGK bere lana eta diskurtsoa egokituz joan da testuinguruaren errealitatera eta gazteen beharrizan, ardura eta interesetara. Horrekin batera, gazteen eskubideak babestu ditu, bizitza-proiektu bat eraiki eta garatzeak barne biltzen dituen zenbait alorretan: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, astialdia, berdintasuna, parte-hartzea eta, nola ez, desberdintasunaren eta bizikidetzaren kudeaketa. Azken hori alor konplexu eta korapilatsua da, baina, aldi berean, ezinbestean landu beharreko kontua da, beste eremu guztietan eragiten du eta.

2014ko ekainaren 6an lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta EGK-k, eta orduan landatutako haziaren fruituak jasotzen ditu argitalpen honek. Hitzarmena, bestalde, Bakegintza eta Bizikidetza Plana 2013/16 barruan dago, zeinaren helburu orokorra den Euskadiko 18-30 urte bitarteko gazteei sentiaraztea haiek ere badirela bakea sendotzeko ahaleginen partaide.

ABIAPUNTUA

1986ko maiatzaren 27an onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzko Legea (6/1986). Legeak hezurmamitu egin zuen gazte elkarteen urteetako aldarrikapen bat: gazteen eskubideak, interesak, ardurak eta beharrizanak aintzat hartuko zituen plataforma eratzea, gazteen berariazko arazoak aztertzeko. Plataformak, bestalde, autonomia erkidego zein lurralde mailako erakundeetan garatuko ziren politika publikoetan eragiteko ahalmena izango zuen. Bi hitzetan esanda: EGKren helburua da gazteak hartuak izan daitezela indar politiko eta soziala duten eragile gisa.

Zeregin hori, ordea –bai barrura, bai kanpora begira–, oztopoz josita bidea izan da. 60 gazte-elkarte inguruk osatzen dute EGK, eta hainbat jatorritakoak dira: sindikatuak, alderdi politikoak, ikasle-mugimenduak, astialdi-hezitzaileen elkarteak, LGTB taldeak, eta abar. Elkarte horiek guztiak dira, hain zuzen ere, EGKri proiektu bateratu eta bateratzailea eraikitzeko erronka eta zilegitasuna ematen diotenak, alderdikeriak alde batera utzita eta, betiere, anbizio handiko helburu komun batekin: gazteen eskubideak erabat bete daitezela, aintzat hartuta berariazko ezaugarriak dituen gizarte talde horrek giza kapital itzela dakarkiola gizarteari, eta profil ugari barne biltzen dituela.

Era berean, sortu zenetik, EGK-k modu aktiboan hartu du parte 'bake positibo' gisa ezagutzen den hori eraikitzen, hala nola:

*Indarkeria zuzenaren maila txikia, eta justizia eta kultura adiskidetzaile maila handia dituen gizartea, zeinaren helburua den indarkeria estrukturala eta kulturala ezabatzea eta, aldi berean, harmonia soziala lortzea eta ororen eskubideak errespeta daitezela bermatzea**.

Lan erraldoi, etengabe, zaindu eta, nolabait, iraultzailea izan zen hura, prozesu lineala –denborari dagokionez– eta partekatua –hausnarketa eta ikaskuntzei dagokienez–. Ordea, ez zatekeen posible izango berau aurrera eramatea bertan parte hartu zuten gazte guztien laguntzarik gabe. Hori dela eta, gogora ekarri nahi izan dugu EGK-k eremu horretan egindako lana, 1986tik 2014ra arteko gertaera esanguratsuenak jasotzen dituen denbora-lerro baten bidez (2014an sinatu baitzen lankidetza-hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin).

* Eusko Jaurlaritza eta EDE Fundazioa (2004). "Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza ez-formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza" (17. eta 18. or.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (Vitoria-Gasteiz).

1986KO MAIATZAK 27

Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren Legea onartzen da.

1987

Batzar Orokorrak **uko egiten dio** EGK-ko egoitzak gazteek Nahitaezko Soldadutzaren ordezko giza zerbitzua egiteko lekua bihurtzeari.

Kontzientzia Eragozpenerako, Intsumisiorako eta Bake Heziketarako Batzordea sortzen da. Helburua: Nahitaezko Soldadutzaren desagerpenerako lan egitea, antimilitarismoan jardun eta bakearen aldeko heziketagatik apustu egitea.

Jostailu belikoen kontsumoa ekiditeko gabonetako **kanpaina.**

2002

KEM-MOC antolatutako Objekzio Fiskalerako **kanpaina.**

EGK-ko **Bake lan-arloaren sorkuntza.** Helburua: "Gizarte baketsu eta berradiskidetu batean lagundu".

Hainbat elkarte eta GKErekin batera, Gasteizko eskoletan txertatzeko **Balioetan Hezteko Plana.**

Gazte eta gazte elkarteekin Euskadiko bakegintzaren gaineko **elkarrizketa foroa.** Elkarrirekin elkarlana.

2003

Irakeko gerraren kontrako mobilizazioetan **parte hartu.**

2004

"EAEko hezkuntza ez formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza" **ikerketa.** EDE Fundazioarekin batera.

"EAEko hezkuntza formalaren esparruan bizikidetza eta bakerako hezkuntza" **ikerketa.** EDE Fundazioarekin batera.

Astialdi taldeentzat zuzendutako materialen **DVD**a: jolasak, formazioa eta dinamikak.

"Kooperazio motak gatazka egoeretan" **formazio saioa.** PTM-Mundubat eta EDE-Bakeolarekin elkarlana.

2004-2005

"Txirotutako herriekiko justizia eta elkartasun gutuna" Eusko Legebiltzarrera eramateko gizarte ekimenean **parte-hartzeko bultzada.**

2005

"Bakea" **barne dokumentua.** Helburua: "Politika, ekonomia eta kultura kontuan hartzen duen planteamendu zabalago batetatik bakea sustatzea, eta hausnarketa eta elkarrizketarako espazioak sortzea".

2006

Giza Eskubideen urraketen aurrean **erantzuteko protokoloaren eraketa.**

MEWANDO Nazioarteko Sarean **atxikitu** (gerra eta errepresio gabeko Ekialde Erdi baten alde).

2007

"Bakegintzan guk ere badugu zer esan" **elkarrizketa foroa.**

Bake Hezkuntza eta Giza Eskubideetarako Euskal Planeko eztabaida taldeetan **parte hartu.**

"Euskal gatazka hurbil" proiektuan **parte hartu.** Helburua: Estatu mailan dauden gazte elkarteetako gazteak euskal errealitateari hurbildu.

1987-2001

Nahitaezko Soldadutza egiteari uko egiten zioten gazteentzako **erreferentzia eta informazio gunea.**

1991

Kontzientzia Eragozpena. Txosten Informatiboa **argitalpena.**

Militarismoa, soldadutza, zertarako? **argitalpena.**

1992-1993

Balkanetako Gerraren ondorioz Bosnia eta Kroaziako 'Errefuxiatu Kanpamentuetara' gazteak bidaltzeko **boluntariotza kanpaina.**

1990

Gerraren kontrako **manifestua,** Nafarroako Gazte Kontseiluarekin batera.

1992

"Bakea Euskadin" **barne dokumentua.** Helburua: Euskal gizartea gizarte baketsu bat izatea oztopatzen duten arazoak aztertzea.



1999

Bakerako Heziketari buruzko Euskal Liburua II **argitalpena.** KEM-MOC, EKEA-AOC, KAKITZATekin elkarlana.

"Zein da bakearen eraikuntzan gazteok daukagun papera?" **elkarrizketarako foroa.** Gernika Gogoratuzekin batera.

1998

"Soldadutza eta militarismoaren amaiera gure esku dago" **kanpaina.**

"Soldadutzaren Ordezko Zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoan" **ikerketa.**

1997

Bakerako Heziketari buruzko Euskal Liburua I **argitalpena.** EDE Fundazioa eta Urtxintxa Eskolarekin elkarlana.

Gatazken konponbiderako **formakuntza saioa.** Gernika Gogoratuzekin elkarlana.

2001

"Euskal gatazka hurbil" estatu mailako proiektuan **parte hartu.** Helburua: Estatu mailan dauden gazte elkarteetako gazteak euskal errealitatera hurbildu.



2008

Hizpideak: Bakea eta Giza Eskubideen aldeko hezkuntza **argitalpena.**

2011

Lokarri, Ipar Irlanda eta Euskadiko bakegintzan diharduten beste eragileekin batera, Belfasten antolatutako topaketan **parte hartu.**

6 DE JUNIO DE 2014

Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin hitzarmenaren sinadura.

//// BAKEA ETA BIZIKIDETZA 2014/16

2007an, eta 2007/11 Plan Estrategikoa ezartzearen ondorioz, Justizia eta Berdintasun Baldintzetan bihurtu zen Bakegintza Arloko lana. 2008an, barne-berregituratzea egin, eta Arloa desagertu egin zen. Ordea, 2013an, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetza Plana 2013/16 aurkeztu, eta egindakoa berreskuratzeko aukera sortu zen. Zehazkiago, Planaren 17. jardute-programak honako helburu hau jasotzen du:

Lortzea gazteei sentiaraztea haiek ere parte hartzen dutela bakea sendotzeko ahaleginetan.

Erakunde biek zenbait elkarrizketa izan zituzten eta, 2014ko ekainaren 6an, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak (Planaren arduradunak) eta EGK-k lankidetza-hitzarmena sinatu zuten. Horri esker, lan-esparru hori ofizialki berreskuratzeko aukera egon zen, gutxienez, 2016ra arte.

2014ko ekainaren 6an Iñigo Urkullu Lehendakaria eta Itsaso Andueza EGK-ko presidentearen (argazkiaren erdialdean) arteko lan-hitzarmenaren sinadura Lehendakaritzan.

Hauexek dira lankidetza-hitzarmenaren helburuak:

1. **Gazteek bakearen eta bizikidetzaren gainean dituzten iritzi eta bizipenak aditzea, eta horiei arreta ematea.**

2. **Gazteak bakegintza-prozesuko protagonista gisa ahalduntzea.**

3. **Gazteekin partekatzea gizarteak bakean, bizikidetzan, kulturartekotasunean eta giza eskubideen errespetuan hezteko hartutako konpromisoa.**

4. **Gazteei lanabesak ematea, gatazkak modu eraikitzailean kudeatu ditzaten.**

5. **Sormena, ekintzailetza eta gizarte-berrikuntza sustatzea gazteen artean, beren bizikidetza-proiektuetan.**

Aipatutako lankidetza-hitzarmenaren barruko proiektuak, Euskadiko 18-30 urte bitarteko gazteen kolektiboari zuzenduta daude: EGKren elkarte bateko kide direnei eta ez direnei; alderdi politiko bati lotuta daudenei eta ez daudenei; gaiari buruzko ezagutza asko zein gutxi dutenei; biktima zuzenak direla uste dutenei edota hala uste ez dutenei. Finean, Euskadiko 18 eta 30 urte bitarteko gazte guzti-guztientzako da proiektua.

Era berean, proiektu guztiek kalitate formal maila berdina izan dezaten, honako gidalerro hauek hartu dira kontuan:

_ **Dibertsitatea:** Profil, ideologia eta bizipen desberdinetako gazteak batu nahi izan dira, pentsatzeko eta harremanak izateko egitura hermetiko eta polarizatuak dituzten inguruetan jaio izanaren ondorioak gainditzeko (hori da, hain zuzen ere, gatazkan bizi diren gizarteen berezko ezaugarrietako bat).

_ **Humanizazioa:** Desideologizatzeko ahalegina egin da, emozioetara jotzekoa: sinbologia politikoaren ordez, bizitzearen ederra aldarrikatu da. Deseraiki nahi izan da identitateak gure nortasunaren alderdi bakarraren inguruan eratzen direlako ideia –kasu honetan, ideologia politikoaren inguruan–; horren ordez, azpimarratu nahi izan da eraikitzen ari diren prozesu korapilatsu eta poliedrikoak direla identitateak.

_ **Hurbiltasuna eta konfiantza**: Eremu seguru eta erosoak sortu dira –naturaltasuna, afektibotasuna eta umorea bezalako tresnak baliatuta–, parte-hartzaileek elkar ezagutzea eta gogoeta egitea sustatzeko.

_ **Proaktibitatea eta horizontaltasuna:** Parte hartu duten gazteak izan dira protagonistak, haien gogoetak eta proposamenak. Hala izan zedin, modu ez-hierarkikoan antolatu dira guneak.

_ **Hausnarketa eta etika:** Helburua ez da izan akordioak erdiestea, baizik eta ikasitako egiturak zalantzan jartzea, eta argudio zein sentimenduen atzean dauden zergatiak bilatzea. Gutxieneko oinarri komun batetik abiatu dira beti: giza eskubideenganako errespetutik.

_ **Praktikotasuna:** Proiektuen xedearen berri eman zaio taldeari, une oro. Taldea, bere aldetik, hartutako erabakien parte izan da jarduerak garatu aurretik, garatu bitartean, eta garatu ostean.

_ **Sormena eta originaltasuna:** Forma eta metodologia berritzaileak bilatu dira –hau da, bestelako planteamenduak–, eta edukiei beste modu batean heltzea.

//// ARGITALPEN HONI BURUZKO OHARRAK

Lankidetza-hitzarmenaren barruan garatutako proiektu eta ekimenetatik EGK-k erauzitako zenbait gogoeta, interes, ardura eta proposamen jasotzen ditu argitalpen honek. 18-30 urte inguruko 250 gaztek baliatu dute EGK-k eskainitako aukera, 2014 eta 2016 bitartean:

Eremu seguru eta erosoak jarri dituzte beren esku, Euskadiko bakeari eta bizikidetzari lotutako gaiei buruz hausnartzeko, elkarri aditzeko, elkarrekin hitz egiteko, eta, horren bidez, aukera izateko nork bere mugak, aurrejuzguak, beldurrak, mesfidantzak eta segurtasun ezak gainditzeko. Horren guztiaren helburua: etorkizun partekatuagoa eraikitzea; iragana ahaztu baino, iragan hori ulertu, eta bizi izandakotik ikasten saiatuko den etorkizuna sortzea. Etorkizun begirunetsuagoa, desadostasunak badaudela aitortu, eta horiek kudeatzeko aukera emango duena, gatazkak modu eraikitzailean ebatziko dituena. Elkarri oinarrizko geure ezaugarriak, hau da, bizitzaren balioa eta giza duintasuna, aitortuko dizkiogun etorkizuna, hain zuzen ere.

Argitalpen honek askotariko informazio ugari biltzen du. Informazio hori modu argiago eta koherenteago batean antolatu ahal izateko, eta berau irakurtzea, interpretatzea, erabiltzea edota zabaltzea errazagoa izan dadin, honako kapitulu hauetan sailkatu da:

1. **BAKEAHOTS - Proiektuak eta gogoetak:** 2014 eta 2016 bitartean aurrera eramandako proiektu gehienak barne biltzen ditu lehen kapitulu honek. Proiektuaren ezaugarriak azaltzeaz gain (fitxa teknikoa, xedea eta metodologia), parte-hartzaile taldeen gogoeta esanguratsuenak jaso dira.

2. **GAZTEAK ETA GAUR EGUNGO ERRONKA BAT: BAKEA – Galdetegia eta emaitzak:** EGKrekin lotura duten elkarte eta gazteei 2015eko udazkenean banatutako galdetegiaren emaitzak islatzen ditu bigarren kapituluak. Garrantzi kualitatiboa duten zenbait ohar ere jasotzen ditu kapitulu horrek (emaitzen barne-analisi batetik ondorioztatutakoak).

3. **BAKEZALEAK – Aldaketarako proposamenak:** EGK 2016an zehar eratuz joan den Bake eta Bizikidetza lantaldearen proposamenak azaltzen ditu hirugarren kapituluak. Proposamen horien helburua da eragitea gazteei zuzendutako bakegintzaren alorreko politika publikoetan eta gizarte- zein hezkuntza-ekimenetan.

4. **ONDORIOAK:** Azken kapitulu horretan biltzen dira beste ataletako gogoeta, ikuspegi eta ondorio esanguratsuenak.

BAKEAHOTS

PROIEKTUAK ETA GOGOETAK

Urte bi hauetan zehar, EGK-k proiektu ugari garatu ditu Euskadin, bakearen eta bizikidetzaren eremuan. Bada, haien kalitatea, berezitasuna eta inpaktua dela-eta, parte hartu duten gazteen artean zein eremu publikoan (erakundeetan, komunikabideetan eta, oro har, gizartean) oihartzun handiena izan duten proiektuak aurkezten ditu lehen kapitulu honek*.

Proiektuak kronologikoki antolatu dira, interesa duten eragileei errazago izan dakien horien gaineko kontsulta egitea eta proiektuok ezartzea. Gainera, proiektu bakoitzaren fitxa teknikoa jaso da, eta aurrera eramandako dinamikak zehaztu dira, parte hartu duten gazteen gogoeta esanguratsuenekin batera. Dinamikak eta ondorioak bereizi ahal izateko, azken horiek lehen pertsona pluralekoan idatzita daude, beste letra mota batekin.

GAZTEAK ETA INDARKERIA: BIZIKIDETZA SUSTATZEA

Proiektu mota: prestakuntza-saioa.

Laburpena: prestakuntza-saioa diseinatu du EGK-k, Bakeolaren eta Gernika Gogoratuzen laguntzarekin. Bertan, honako galdera hauen inguruko gogoeta egin dute: Zein indarkeria mota daude? Nola identifikatu ahal ditugu? Zein aurrejuzgurekin bizi gara? Nola eragiten dute gure harremanetan? Nola eraikitzen ditu norberak 'etsai' eta 'lagun' kontzeptuak? Nola zuritzen ditugu gure kontraesanak eta besteenak? Nola kudea ditzakegu desadostasunak eta gatazkak? Batera existitzeari utzi, eta elkarrekin bizitzen hasiko gara behingoz?

Helburuak:

- Jaio, hazi eta ingurune jakin batean harremanak izaten hastean norberak eraikitako diskurtsoari buruz hausnartzeko gunea sortzea, ulertu ahal izateko beste modu batean pentsatu eta sentitzen duten gazteek prozesu hori nola bizi izan duten.
- Gatazkak indarkeriarik gabe eta giza eskubideen ikuspuntutik konpontzeko lanabesak ezagutzea.

Data: 2014ko azaroa

Tokia: saio bat Euskadiko lurralde historikoetako hiriburu bakoitzean (Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Donostia).

Iraupena: 4h 30' saio bakoitza

Parte-hartzaileak, taldeko: gehienez ere, 25 lagun.

Oharrak:

- 2015ean eta 2016an zehar proiektu hau garatu, eta beren errealitatera egokitzeko aukera izan dute Euskadiko udalerriek.

* Ordea, EGKren ekimen batzuk ez dira jaso, hala nola: "Bakeahots" komunitate birtuala (non parte-hartzea oso txikia izan baitzen); giza eskubideen bortxaketen aurrean jarduteko protokoloa (barneko agiria delako); edota Euskadiko eta Estatuko unibertsitateetako ikasleen arteko topaketak (Demagun elkartearekin batera garatutako proiektua delako eta argitalpen hau amaitu ostean egindakoa delako).

Prestakuntza-saioa ezohiko modu batean hasi da. Parte-hartzaileak biribilean eseri, eta bi paperatan idatzi dute beren izena: lehenengo papera, kamisetan jarri dute; bigarrena, kutxa batera sartu dute. Gero, bakoitzak bere burua aurkeztu du, bakar-bakarrik izena adierazita. Horren ostean, bakoitzak paper bana hartu du kutxatik, eta, hitzik ere esan gabe, paperean zegoen *izenak* lehen begiratuan eragin dizkion aurrejuzguak idatzi ditu. Gero, papera poltsikoan gorde dute. Azkenik, beren burua aurkeztu dute berriro, sakonago, eta azaldu dute zer espero duten saiotik.

Prestakuntzak hiru zati izan ditu: iragana, orainaldia eta etorkizuna. Zatietako bakoitzean zenbait dinamika garatu dira, gogoeta eta elkarrizketa sustatzeko. Horrez gain, gatazkak modu positiboan konpontzeari buruzko eta bake-kultura eraikitzeari buruzko informazio-pilulak eman dizkiete dinamizatzaileek gazteei.

Lehen zatian (iragana), dinamika bi landu dituzte. Lehenengo eta behin, **Denbora-lerroa.** Taldea bikoteetan banatu dute. Iraganean zein orainaldian gehien eragin dieten, eta etorkizunean gehien eragingo dieten gertakari, bizipen edo sentimenduei buruz aritu dira. Gero, ondorioak beste taldeekin partekatu dituzte, eta beren burua irudikatu dute espiral formako denbora-lerro fisiko batean.



Prestakuntza-saioetako batean gazte talde batek egindako denbora-lerroa.

Gazteoi gehien eragin diguten gertakariak ez dira eremu publiko eta mediatikoan emandakoak (horiek ere eragin diguten arren), baizik eta gure egunerokotasunaren parte izan direnak, gertuko gure ingurunean gertatu direnak –familian, auzoan, eskolan, lagunartean edo herrian–. Egitate horiek gure bizipen pertsonalak dira jada, eta, beraz, gure identitatearen eta gure iritzien parte ere bai.

> Gehien eragin diguten gertakariak izan dira gertuko gure ingurunean gertatu direnak –familian, auzoan, eskolan, lagunartean edo herrian–

Partekatutako bizipenen artean (zeintzuk, bide batez esanda, gatazkarik alderik latzenarekin lotuta baitaude), nabarmentzen dira ETAren biktima zuzenak (hildakoak, eskoltak daramatzatenak, estortsioa pairatu dituztenak, mehatxatuak) ezagutzen dituztenenak; senideak edo lagunak espetxean dituztenenak; poliziaren abusuak pairatu dituztenenak; kale borrokaren eraginak bizi izan dituztenenak; eta ideologia dela- eta familia banatuta daukatenenak.

> Sentitzen dut ez digutela sekula utziko jakiten zein den gertatutakoaren gaineko egia osoa

Gure kontakizun gehienak, halere, eguneroko bizipenetan eta ezkutuko indarkerietan oinarritzen dira; horiek guztiek gure identitatean eragin, eta gatazkaren ondorioak pairatu arazten dizkigute. Protagonista nagusiak, ordea, isiltasunak izan dira, absentziak: gertatutako guztia kontatu ez digutelako sentsazioa, informazio guztia ez izatearen etengabeko susmoa. Horrek, gainera, ulertezintasuna eta blokeoa eragin digu, gertaera publiko eta pribatu biolentoen aurrean. Batzuetan, gure iritziak erradikalago ere bihurtu dira, erantzuna diskurtso eta iturri manipulatu, monolitiko edo taldekoietan bilatu nahi izan dugunean.

Sarri agertu da, era berean, bando artean bizitzeko sentsazioa ('haiekin edo nire kontra'), eta, politizatuta izan diren ohiko kodeen bitartez, jarrera baten ala bestearen alde agertzeko obligazioa dagoela sentitzea: marka bat janztea edo irudi jakin bat izatea; hitz egiterakoan hitz batzuk erabiltzea, eta beste batzuk baztertzea; taberna eta denda jakin batzuetara bakarrik sartzea; norbanako edo talde jakin batzuekin baino ez egotea harremanetan; gatazkari lotuta ez dauden gaien aurrean (ekologia, feminismoa, segurtasuna), espero izatekoak diren iritziak agertzea; eta abar. Bi hitzetan esanda: etiketak sortu behar izan ditugu, geure burua 'geureekin' identifikatzeko, eta 'besteengandik' bereizteko eta babesteko. Horrek guztiak mesfidantza eta beldurra eragin dizkigu, eta galarazi egin digu gizaki izateak dakarren konplexutasunaren aberastasunetik elikatzea.

Sarri aipatu dugun beste kontu bat: "nor naiz?" galderari erantzuteko ditugun zailtasunak. Elkarri kontrajarritako ur biren artean igerian sentitu gara sarri: 'Ni' publikoa, eta 'Ni' pribatua. Barne-kontraesan hori, agian, areagotu egiten zen Euskaditik kanpora bidaiatu, eta Espainiako beste toki batean lagunak bazenituen/badituzu. Gehien-gehienok onartu dugu ulertezintasuna eta frustrazioa bizi izan ditugula, gure lurraldetik kanpo zein hemen bertan, Euskadiri eta euskal gizarteari buruz jendeak zeukan irudiarekin. Batetik, ez zetozen bat Euskadiri buruz guk geneukan irudia eta Espainian zeukatena; bestetik, irudi hori ez zetorren bat bertakook gure lurrean gertatzen ari zenari buruz geneukanarekin.

*Urteetan zehar pilatutako (eta **Denbora-lerroan** irudikatutako) bizipen horien guztien eraginez, hiru jarrera garatu genituen –orain, ETAren su-etenarekin, urtuz doazenak–. Alde batetik, gertatzen ari zenaren aurrean axolagabe eta sorgor agertzen ginen; horren eraginez, indarkeriak egunerokoan duen presentzia hutsaltzeko joera garatu dugu. Beste alde batetik, sinesgaiztasun etengabean bizi ginen, iraganeko gertaera biolento eta bidegabeen aurrean. Azkenik, gutako batzuk sakonago bizi izan dugu gertatutakoa, eta gure emozioak mesfidantzaren, gorrotoaren, tristeziaren, ezintasunaren, amorruaren, ulergaiztasunaren, frustrazioaren eta minaren artean barreiatu dira, nonbait.*

Etorkizunera begira, honako galdera hau datorkigu burura: "Noiz amaituko da hau? Noizko etorkizun baketsua?". Gauzak horrela, eskatzen duguna da ebatzi gabeko kontuak behingoz mahaigaineratzeko; indarkeria sekula ez bidezkotzeko; gu kaltebera eta babesik gabe ez sentiarazteko (are gutxiago, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei dagokienez); eta erakusteko, azkenean, badela garaia gauzak beste modu batean egiteko.

Barometroa izan da bigarren dinamika. Parte-hartzaileei eskatu zaie jarrera bat hartzeko indarkeriari, gatazkei, desberdintasunaren kudeaketari, giza eskubideei, bakeari eta bizikidetzari lotutako esaldien aurrean, eta azaltzeko zergatik egin duten hautu hori. Irudizko espazio-lerro baten bitartez lan egin da, non muturrek 'erabat ados' eta 'erabat kontra' jarrerak irudikatzen dituzten.

Iritzi-aniztasunean datza zalantzaren, gogoetaren, elkarrenganako errespetuan oinarritutako ikaskuntzaren muina: esaldi batek berak ere ez du lortu parte-hartzaile guztiok ados egotea. Esaldiek –zehazgabeak batzuk ('indarkeria, batzuetan, bidezkoa da'); absolutuak beste batzuk ('gizakiak berezkoa du indarkeria'); eta herritarren artean zabaldutako usteetan errotuak beste batzuk ('xedeak ez ditu bitartekoak bidezkotzen')– frogatu dute muturreko jarreretan eroso ez bagaude ere, geure iritziari eutsi, eta hura irmoki defendatzeko joera daukagula. Kosta egiten zaigu besteen argudioen aurrean iritzia aldatzea, eta, egiten dugunean ere, oso

Barometroa dinamikaren bilakaera.

sotilki egiten dugu (ez gara tupustean mutur batetik bestera joaten). Horrek ez du esan nahi elkarri aditzen ez diogunik, elkarrenganako begirunea gordetzen ez dugunik, enpatizatzeko saiakera egiten ez dugunik. Aitzitik, izan ditzakegun iritziek norbaiti min emateak eragiten digun beldurra agertu dugu (iritzia, objektiboki, zaurgarria ez denean ere). Horrek agerian utzi ditu elkarrizketa batzuk izateko (edo elkarrizketa horiei uko egiteko) iraganeko jarrera batzuk, eta argi erakutsi du iraganean besteen emozio eta sentimenduak ez direla aintzat hartuak izan. Izan ere, gure argudioak, gehien-gehienetan, ideologia politiko batean ainguratuta baino, pertsonalki eraldatu, eta errealitatea beste modu batean ulertzera eraman gaituen bizipen zuzen edo zeharkako batean oinarrituta daude. Bizipen horri esker lortu dugu, hain zuzen ere, taldekideek elkar onartzea (haien jatorriak oso bestelakoak –batzuetan, aurkakoak ere– izan arren).

Orainaldiari buruzko zatian, **Etsaia/Laguna** dinamika garatu da, bi jardueratan banatuta. Lehenengoan, 'Etsaia' eta 'Laguna' kontzeptuek norberari eragiten dizkioten adjektibo, portaera eta sentimenduei buruzko gogoeta egin du norberak. Hona hemen emaitzak:

LAGUNTASUNA	ETSAITASUNA
Errespetatzen nau	Ez du gardentasunez jokatzen
Ulertzen nau	Mindu nahi nau (hitzez ala fisikoki)
Kritika eraikitzaileak egiten dizkit	Bere buruan soilik pentsatzen du
Konfiantza	Interesak mugitua jokatzen du
Gauzak era baikor batean ikusten laguntzen dit	Nire alde txarrena ateratzen du
Naizen bezalakoa onartzen nau	Txarto sentiarazten nau
Ni bezalakoa da	Larderiatzailea
Behar dudanean hor dago	Beti arrazoia duela uste du
Segurtasuna ematen dit	Epaitzen nau
Baloratu eta maite nau	Nire beharrean dago
Tolerantea da	Nire kontra doa
Hazten laguntzen dit	Nire aurkakoa da

'Laguna' eta 'Etsaia' kontzeptuei lotutako gure adjektiboak, portaerak eta sentimenduak taldearekin partekatzean, honako galdera erretoriko hauek egin dizkiogu elkarri: Gure lagun guztiak al dira deskribatu ditugun bezalakoak? Gure etsaiei etiketa jarri eta epaitzeko beste al dakigu haien bizitzari buruz? Ez al dugu inor ezagutu hasieran gure laguna izan, eta, gero, gure etsai bihurtu dena (eta alderantziz)? Ez al gara batzuekin lagun gisa portatzen, eta beste batzuekin etsai gisa? Beti izan gara lagun? Inoiz ez etsai?

Zati honen bigarren jardueran, berriz, parte-hartzaileei zenbait argazki eman, eta eskatu zaie hautatzeko 'etsaia' edo 'gatazka' fisikoki edo metaforikoki hoberen irudikatzen duena.

Gazte talde batek **Etsaia/Laguna** dinamikako argazkiak aztertzen ditu.

Duela urte batzuk giroa biolentoagoa zen, eta muturragokoak jarrerak. Gaur egun, ordea, salbuespenak salbu, 'etsaia'ren irudia ez da lanbide zehatz bat (ertzaina, polizia, militarra, eta abar) edo kargu politiko zehatz bat duen pertsonan hezurmamitzen, baizik eta bizipenetan eta etsaiak eragiten dizkigun sentipenetan. Ondorioz, hautatzen ditugun irudiak errealitate horiekin lotuta daude: etsaiak seinalatu egiten gaitu; ez digu hitz egiten uzten; pentsatzeko, iritziak izateko, izateko askatasuna ukatzen digu; min fisiko eta psikologikoa eragiten digu; ankerra da; besteen aurrean ahul eta babesgabe sentiarazten gaitu; baztertu egiten gaitu; hutsaldu egiten gaitu; ez digu aditzen; eta abar. Batzuei, ordea, kontzeptua konplexua egiten zaie, eta ez dira gai irudi bakarra hautatzeko (batek ere ez duelako islatzen 'etsaia' zer den; kontzeptuaren irudi zehatzik ez duelako; edota laguntasun eza islatzen duen argazki bat baino gehiago hautatuko lukeelako).

'Gatazka' kontzeptuak ere zalantza ugari eragiten dizkigu: batzuetan etsaia bertan egoteak sortzen du, edota haren esanek, egintzek edo erabakiek (edota esan, egin edo erabakitzen ez duen horrek); besteetan, aldiz, etsaia ez da existitzen, edo ez gara gai hura identifikatzeko –lehen azaldutako sentipenak berdin-berdin

agertu badira ere–. Beraz, gatazka indarkeriarekin, suntsipenarekin, haserrearekin parekatzen dugu batzuetan; eta besteetan, berriz, kontzeptu neutrala da, edo, areago, aurrera egiteko aukera bat.

Azken zatian, etorkizunari buruzkoan, **Hitzen Zuhaitza** *landatu* dute, elkarrekin. Dinamika sinboliko horrek eman dio amaiera prestakuntza-saioari. Bakoitzak mezu bat idatzi du, irudikatzen duten etorkizunean oinarrituta. Gero, horretarako prestatutako arbolan eseki dira mezu guztiak. Alde egin aurretik, parte-hartzaileei eskatu zaie poltsikoan begiratzeko, eta egiaztatzeko saio hasieran *izenari* buruz idatzitakoen artean zenbat gauza bete diren.

Gazte batek bere mezua **Hitzen Zuhaitzan** kokatzen du.

Hitzen Zuhaitzan *partekatutako mezuak oso desberdinak dira, prestakuntza-saioan parte hartu dugunok ere desberdinak garen bezala. Saioak berezko sentipen, gogoeta eta ikaspenak eragin dizkigu. Eta badago kontzeptu bat mezu guztietan ageri dena: itxaropena. Itxaropen horrek, baina, zenbait forma hartzen ditu. Bestelako errealitate baterako itxaropenari buruz ari dira mezuok, non dibertsitatea baloratuko dugun; non, elkarrenganako indarkeria erabili ordez, elkarri aditu eta elkarrekin hitz egingo dugun; non gatazken konponbideak eta alternatibak aurkituko ditugun, irudimena eta askatasuna baliatuta. Itxaropena, iraganeko ereduak errepikatu gabe bizitzeko; gatazka eta horren*

ondorioak gainditzeko premiazko beharrizan bihurtuta; orainaldi adeitsuan, tolerantean, askean, elkarrekin bizitzeko itxaropena, etorkizuna elkarrekin eraikitzeko elkartuko gaituena. Itxaropena, helburu pertsonal gisa, ez etsitzeko; ikasten, ahaleginak egiten eta amesten jarraitzeko; geure mugak, aurrejuzguak eta beldurrak gainditzen ausartzeko; besteekin harremanetan egoteko; denok batera borrokatzeko.

HITZEN ZUHAITZA



BAKE IBILBIDEAK

Proiektu mota: topaketa, denbora eta espazioan zeharreko ibilbidea egiteko.

Laburpena: gertakari, bizipen eta sentimendu guztiak (partekatuak izan ala ez) gordetzen dituen marko komun bakarra izan da, da eta izango da hiria. Bizi ditugun hiru denbora-ardatzak (iragana, orainaldia eta etorkizuna) espazio fisikora ekarri nahi izan ditu ekimen honek. Horrela, hiru bazter horiek batu egin dira ibilbide batean. Elkarrizketarako tartea egon da, eta uneko zama humano eta sinbolikoa jaso duten ekintzak ere egin dira. Lagunarteko giro lasaian amaitzeko, pintxo potea egin da.

Helburuak:

- Hiria ezagutu, aztertu eta bizitzea partekatutako iraganaren, orainaldiaren eta etorkizunaren ikuspuntutik.
- Gazteek gai horiekin duten konpromisoa ikusgai jartzea gainerako herritarren aurrean.

Data: 2014ko azaroa

Tokia: ibilbide bat Euskadiko lurralde historikoetako hiriburu bakoitzean (Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Donostia)

Iraupena: 4 h 30', topaketa bakoitza.

Parte-hartzaileak, taldeko: gehienez ere, 20 lagun.

Oharrak:

- Proiektuaren laburpen-bideoa ikus daiteke YouTuben: 'EGK Bake Ibilbideak'.
- 2015ean eta 2016an zehar proiektu hau garatu, eta beren errealitatera egokitzeko aukera izan dute Euskadiko udalerriek.

Espazioan eta denboran zeharreko ibilbidea hasi aurretik (parte-hartzaile talde bat ibilbide bakoitzean), EGK-k Euskadiko lurralde historikoetako hiriburuetan dituzten egoitzetan batu dira parte-hartzaileak. Azaldu diete jarduera zertan datzan, eta elkar ezagutzeko zenbait dinamika egin dituzte (gutxieneko konfidantza maila bat garatu, eta talde-izaera bultzatzeko).

Gero, arratsaldeko lehenengo txokora joan da taldea: iraganekora. Hiriburuetako alde zaharretan kokatu dira txokook: Bilboko Burtsa Eraikinean (Yohn Jauregia); Vitoria-Gasteizko Kordoi Etxean; eta Donostiako San Jeronimoko

kriptan. Aulkiak jarri dituzte, biribilean, elkarrizketa errazteko. Parte-hartzaileak hizketan hasi dira, hiru galdera sorta hauen inguruko gogoetak partekatuz*:

1. Iraganera begiratuta, zein da burura datorkizun lehen irudia? Zein kolore, usain edo sentsaziorekin lotuko zenuke? Zein emozio pizten dizkizu?
2. Zuen nortasuna eraikitzerakoan, zer-nolako garrantzia izan du iraganak? Zein izan dira prozesu horretan gehien eragin dizueten faktore edo pertsonak?
3. Zuen ustez, iraganean, zergatik egon da indarkeria hain presente? Zuen aburuz, zergatik hautatu dugu toki hau horren guztiaren ikur gisa?

Hona hemen iraganaren txokoetatik ondorioztatutakoak:

Grisa. Horixe da hurbileko gure iraganari lotzen diogun kolorea. Paisaien grisa, euriz betetako zeruena. Burdin usaina duten fabrikena; lonjetara arrain freskoa dakarren itsaso oldartuarena. Espainiako beste tokietatik etorri zen jendea, eta gaur egun kolore biziagoetan ikusten dugun orainaldia eraiki zuten. Gertaera biolentoen segidaren grisa: ezin ahaztu daitezke, eta zuri-beltzeko film batetik ateratakoak dirudite. Sarriegi egindako hileta jendetsuen grisa. Espetxeen grisa, galdeketak baino deitoragarriagoak diren jarduketak egiten diren gela bateko hormen grisa. Hileta bakoitzaren ostean, ETAren amaiera eskatzeko egindako kontzentrazioetako isiltasun irmoaren grisa. Familiak ehunka kilometro urruntzen dituzten errepideen grisa... Gure gizarteko aurpegi bakoitzaren gris nabarmena (bizikidetzaren atmosferan enkistatua). Mezu samingarri eta etsaitasunezkoak jaurtitzen zituzten hormen grisa –kalean, komunikabideetan, Legebiltzarrean ere entzuten ziren mezuok–. Isiltasunen eta absentzien artean bizitako haurtzaro baten grisa. Galderarik ez; azalpenik ez. Grisa ez da beste kolore bat: oinazearen, hilketen, antsietatearen, torturen, beldurraren, estortsioen, mesfidantzaren, mehatxuen, tristuraren, mendekuen, gorrotoaren, atxiloketen kolore bilakatu da. Gris hori bat dator gure mendien berdearekin (ezin beste modu batean izan). Mendi horiek dira, hain zuzen ere, etorkizun adeitsua, partekatua, askea irudikatzeko aukera eman (ematen) digutenak.

Ondo baino hobeto dakigu hemen jaio eta bizi izanak baldintzatu egin gaituela, gure identitatea eraikitzerakoan. Hala eta guztiz, dimentsio bi bereizten ditugu, argi eta garbi: hurbilekoa (familia, eskola, herria), batetik; eta partekatutako

> Euskal Herriak paisaia eta gizarte grisa gorde ditu, bere lau hormen artean

* Elkarrizketaren jariakortasuna zein izan den, ez dira galdera guztiak egin.

testuinguruari lotutakoa, bestetik. Bigarren horrek zenbait faktore batzen ditu, gure hurbileko dimentsioa edozein izanda ere, gugan eragina daukatenak; bertan, indarkeria, oinazea eta isiltasuna izan dira protagonista.

Geure buruari galdetzen diogu ea iraganeko belaunaldiak ez ote diren ari gure belaunaldiari transmititzen haiek bizi izandakoa (batez ere, gure familiak bizi izandakoa), guk hura bizi ez bagenuen ere. Askotan, gainera, zein eskolatara joan garen, zein lagun egin ditugun, astunagoa da zama hori. Batzuetan, hurbileko gure ingurukoek bizi izandakoaren transmisioa elkarrizketaren bidez egiten da (traumatikoa ala ez, objektiboa ala subjektiboa, kasua zein den). Gehien-gehienetan, ordea, isiltasunaren bidezko transmisioa izaten da. Jakintzat emandako gauzen gainean eraikitako isiltasuna da; gauza horiek ez ziren azaltzen, beldurra, ezintasuna, babesa, konplizitatea tarteko.

Gutako batzuk hazi ginen ustetan gure etxekoen iritzi berekoak zirela besteak ere: ez zen ohikoa politikari buruzko elkarrizketak eta eztabaidak izatea. Gero, hazi ahala, ulertu genuen dirudien baino konplexuagoa dela dena: ikusi genuen hurbileko gertakariek baldintzatu ahal bagaituzte ere, gertatutakoari buruzko kontakizuna norberari gertatzen zaionetik harago doala. Inguruan gertatzen den guztia hartu behar da kontuan: geurea eta besteena.

Beste batzuk kontraesanean hazi ginen: alde batean, etxean esaten zutena; beste aldean, kuadrillaren iritzi monolitikoa. Beste batzuetan, korrontearen mende jartzen ginen, ez geneukalako behar besteko informazio edo gaitasunik geure diskurtsoak eraikitzeko. Gauzak aldatuz doaz, ordea, eta kritikoagoak, politikoagoak bihurtzen gara. Ordea, orainaldian zalantzak ditugunean, zaila egiten zaigu atzera ez begiratzea, ikusteko zer egin genuen, eta horrek zer-nolako emaitza izan zuen.

> Gure iragana gurea da, ala aurreko belaunaldiena?

Eta badaude iragana oraindik begietan duten bakan batzuk ere. Gure familiek bizi eta pairatutako iraganaren ondoreek (baita lehen pertsonan bizitakoek ere) jarraitzen dute gure orainaldia baldintzatzen. Etorkizunean, halaber, hala izango da –epe laburrera, behintzat–. Horixe da oraindik gainditu gabe ditugun hileta eta mehatxuen errealitatea, eta atxiloketen, torturen zein egiteke dauden epaiketena ere bai.

> Inguruabar eta testuinguru jakin baten emaitza gara; behingoz amaitzea nahi dut

Politikak bizitzaren dimentsio guztiak baldintzatzen zituen testuinguru batean hazi ginen: horren ziurtasun osoa daukagu, eta ziurtasun hori partekatzen dugu. Testuinguru hartan ez genuen, akaso, aurreko belaunaldiek bizitako indarkeria zuzena pairatu, baina, sarriegi, pentsatzen genuena isilpean gordetzen ikasi genuen, ez ginenaren itxurak egiten, nora eta norekin gindoazen zaintzen. Labur-labur esanda: geure burua zentsuratzen genuen. Etiketen beldur ginelako. Seinalatuak izatearen beldur ginelako. Biziraupenak hala aginduta egiten genuen, bi bandotan banatutako testuinguruari aurre egiteko. Testuinguru hartan, gainera, gehienak isilik zeuden, dela konplizitateagatik, dela berdin zitzaielako. Eta, egia esan, jarrera biek izutzen gintuzten, izutzen gaituzte.

Konplizitatearen beldur gara, nekez uler dezakegulako zelan sortu eta bidezkotu ahal izan zen horrenbesteko indarkeria, horrenbesteko sufrimendua. Hala eta guztiz ere, aitortu beharra daukagu aro bakoitzak badituela errealitateari aurre egiteko berezko moduak, gizarteak onartutako diskurtso bat, gorrotoa eta oinazea bideratzeko manerak... Eta indarkeria erabili zela sortutako etsai batek jotako erasotik babesteko. Finean, nahi izan direnengandik nahi izan dena lortzeko biderik errazena gisa gogoratzen dugu indarkeria. Desadostasunak edo frustrazioa beste modu batean komunikatzeko adierazpide gisa.

> *Etsai* berbera izatea da pertsona bi gehien elkartzen dituena

Era berean, axolagabekeriaren beldur ginen/gara. Atzera begira, harritu egiten gaitu ikusteak nazioarteko beste gatazka batzuetako biktimenganako interesa, enpatia eta ardura bazegoela, haientzako justizia eskatzen zela, eta, aldi berean, bertoko historia mespretxatu egiten zela, ez zegoela interesik gure gatazka modu eraikitzailean konpontzeko, justizia eskatzeko eta sufritzen ari zirenenganako elkartasuna adierazteko. Hori guztia dela eta, uste dugu gatazka bera baino okerragoa dela egiaztatzea zelan gatazka horrek ez zuen jada minik ematen, ez zuen eragiten; ikustea, azkenean, normal-normal barneratu genuela errealitate biolento bat.

Gure ustez, iragana gainditu ahal izateko, ezinbestekoa da onartzea gatazka bat bizi izan dugula, eta gatazka horretan, nahita, sufrimendu handia eragin dela, zuzenean zein zeharka. Ariketa horretan, baina, kontu batzuk

bereizi behar dira: Sufrimendu horretatik, zein hautatu dugu guk, eta zein inposatu digute? Bat gatoz: sufrimendua subjektiboa da, norberarena da eta ez da zertan alderatu, ez kategoriatan sailkatu: sufrimendu bat ez da beste bat baino txikiagoa, eta guzti-guztien aitortza egin behar da. Giza eskubideen bortxaketa hala da, testuingurua edozein izanda ere.

Era berean, guztiok sentitzen dugu argi geratu behar dela gauza bat direla gizarteari, oro har, eragiten dioten giza eskubideen bortxaketak, eta beste gauza bat dela eskubide indibidualak bortxatzea. Hori dela eta, sufrimendua sailkatu nahi ez badugu ere, biktima guztiak ez dira berdinak. Hori bai: uste dugu biktima guztiek merezi dutela aitortza, kasu guztietan eskatu behar dela erantzukizuna, eta biktima orori bermatu behar zaiola bizi izandakoa ez dela berriro gertatuko. Uste dugu horrek laguntzen duela biktima bakoitzaren zauriak sendatzen, eta hori ezinbestekoa dela, bizikidetza baketsua izango badugu. Ez dugu ikusten maila publikoan pausoak ematen ari direnik zentzu horretan, baina sinesten dugu badaudela maila pertsonalean elkar ulertzeko, elkarrekin hitz egiteko, adiskidetzeko aukerak. Ezin dugu inoren zain egon bideari ekiteko.

> Adi! Ez monopolizatu sufrimendua! Inork ez du erabaki behar nork sufri dezakeen eta nork ez, nork duen eskubidea biktima sentitzeko eta nork ez

Donostiako gazte taldea iraganaren txokoan solasean: San Jeronimoko Kripta.

Elkarrizketaren ondoren, eta *iragana* ixteko, ekintza sinbolikoa egin dute: **Memoriaren muralak.** Gazteei aukera eman zaie bi muraletan nahi zutena idazteko. "Iragandun galderak" zen lehenengo muralaren izenburua; bertan, burura behin eta berriro etorri, eta erantzunik aurkitzen ez dioten galdera hori jaso ahal izan dute. Bigarren muralean, "Iraganean gordeta" izenekoan, jaso dute beren ustez sekula ahaztu behar ez den hori.

IRAGANDUN GALDERAK

Zergatik hainbeste min?

Korapiloa askatu da?

Azkenean, zertarako balio izan du min guztiak?

Zergatik hainbeste isiltasun?

Aita, zergatik kendu behar dugu Ikurrina?

Zergatik kultura bat suntsitu nahia/behar hori?

Zergatik hainbeste beldur?

Zergatik ez gaituzte hasieratik onartu?

Zergatik ez gara lehenago ulertu?

Zergatik jarraitzen du espetxean kondena bete badu?

Nola iritsi ahal izan ginen honaino?

Zerk eragiten du pertsona batek bere gizatasuna galtzea?

Zertarako Euskal Herria independentea?

Zergatik horrenbeste indarkeria (hainbat eratakoa) eta elkarrizketa gutxi desberdinen artean?

Zergatik isildu ekiteko aukera badugu?

Zergatik ez dugu ikasten gure akatsetatik?

Gatazkei aurre egiteko isiltasuna erakutsiko diegu hurrengo belaunaldiei?

Zergatik gu?

Zergatik agintariek ez dute herriaren iritzia errespetatzen?

Noiz azalduko zara modu argian gehiago eztabaidatu ahal izateko?

Zerk edo nork egin gaitu etsai?

Zergatik gazteriaren kontra?

Zergatik zigortu da militantzia politikoa?

Zergatik erabili euskal gizartea euren ke gortina bezala?

Zer egin nezakeen nik?

Zergatik erail ideia batengatik?

Zergatik hil hiltzeagatik?

IRAGANEAN GORDETA

Sarako haur batek kontatu zidan nola eraman zuten bere aita eta ez zekiela ezer ez hari buruz.

1982

"Orain horri! Jertse arrosadunari!"

Familia osoa inoiz ez elkarrekin.

ETAren amaiera

Talde honetan sartuko naiz, baina ez esan inori.

Ez ditzagun ahaztu bakearen bila abiatu ziren pertsona ausartak.

2001/07/21

Unibertsitateko jendearekin euskal gatazkaren gaineko elkarrizketa luze eta produktiboak.

Aitaren mina

Gatazka azaldu beharra kanpoan bizi nintzenean.

Ikastolako irakasle izatetik etakidea izatera.

Azaroak 20

2008ko urtarrilak 23 – 2014ko urtarrilak 20

Bide banatuak

Biktima guztiak

Bakea behar dugu.

Konpromisodun gazteak

Memoria bakarraren aurka

Giza Eskubideak

Jarraian, orainaldiaren txokora joan dira parte-hartzaileak. Hiriburu bakoitzean toki batean irudikatu da: Bilbon, Oteizaren *Esferaren Desokupazioaren Oboide Aldaera* eskulturan kokatu da; Vitoria-Gasteizen, Irakasleen Unibertsitate Eskolan; eta Donostian, berriz, Aiete Jauregian amaitzen den Aldapeta aldapan. Iraganeko txokoko dinamika bera garatu dute hiru gune horietan ere: aulkiak jarri dituzte biribilean, honako galdera-sorta hauen gainean hitz egiteko*:

1. Non kokatuko zenukete iraganarekin hausteko unea (azaldu zer gertatu zen: zuen barruan edo kanpoan; edo, agian, batek bestea ekarri zuen)? Zertan igarri duzue haustura hori (eman baldin bada), barnean eta kanpoan?

* Elkarrizketaren jariakortasuna zein izan den, ez dira galdera guztiak egin.

2. Iraganetik zer ezabatuko zenukete? Eta zer da harro sentiarazten zaituztena? Kontraesanak ikusten dituzue bizitzeko edo pentsatzeko duzuen moduan? Nola gainditzen dituzue kontraesan horiek? Zer-nolako errealitatea edo pertsona ezagutu nahiko zenukete?

3. Aldatu al da bizikidetza, iraganekoarekin alderatuta? Nola sumatzen dituzue gaur egungo gazteak, gai horri dagokionez? Eta gizartea? Zuen ustez, zergatik irudikatu dugu orainaldia toki honetan?

Hona hemen orainaldiaren txokoetatik ondorioztatutakoak:

Ezin dugu iragana aldatu, iraganarekin hautsi. Ez dugu hala egin behar. Ez dugu egin nahi. Politikagintzako sektore batzuek zerotik hasi nahi dute berriro, baina iragana gure parte da, iraganak ekarri gaitu orainaldi honetara. Orainaldian iragana errepikatu ez dadin, gertatutakoaren aitortza egin behar dugu, geure egin, iragan horretatik ikasi. Garai berria bizi dugu. Gure oroimenean erreferentziak baino zerbait gehiago diren gertaerek bide berria irudikatzen joan dira.

José Antonio Ortega Lararen bahiketak eta Miguel Ángel Blancoren erailketak gizarte lokartua iratzarri zuten, berriro sentitzeko aukera ekarri zioten. Aieteko Bake Konferentziak nazioartean izandako oihartzunaren eraginez, ETAk su-eten iraunkorra iragarri zuen. 2011ko urriaren 20 hura atzera bueltarik gabeko bidea izango zelako esperantza genuen, benetako aurrerapena ekarriko zuten aldaketak eragingo zituela. Aitzitik, gure usteak erdi ustel: ETArik gabe ere, ez da indarkeriaren osteko garaia hasi, indarkeria hortxe dagoelako, oraindik ere. Espainiako Gobernua ez da mugitzen (Iparraldean ez bezalaxe, non iritzi politiko guztietakoek gutxieneko batzuk adostu baitituzte): salbuespen politikak mantentzen ditu; eta atxiloketak eta epaiketak egiten jarraitzen du. Ezker abertzaleak –Sortu legeztatuta badago ere– ez du autokritikarik egin, ez du aitortu hiltzea txarto egon zela.

Asko dugu oraindik egiteko. Badakigu bizikidetza ez dela berdina hiri handi batean edo herrixka batean. Aitortzen dugu oraindik badaudela tentsio-fokuak, adi-adi egotera behartu, eta eszeptiko izatera bultzatzen gaituztenak. Ez dira asko, baina hortxe daude. Larderiaz betetako kartelak ikusten dira, oraindik ere. Egintza biolentoak eta poliziaren kargak daude oraindik ere, manifestazio eta protesta batzuetan. Komunikabide batzuek jarraitzen dute diskurtsoak desitxuratzen, gorrotoa transmititzen saiatzen. Saiatzen dira Euskadiren irudia kutsatzen, ez dute islatzen bestelako bizikidetza-eredua aldarrikatzen duen gizartea dela gurea.

> Konpondu nahi dugu, bai ala ez? Bada, gainditu dezagun *zuk gehiago* dinamika, eta jar dezagun, bakoitzak, apur bat gure aldetik

> Aldatu dira taktikak, baina, aldaketa horiek, sakonekoak dira, ala azalekoak?

Bidegabe eragindako sufrimendu guztien gainean taburik gabe hitz egin dadila nahi dugu; Frankismotik dakartzagun korapilo guztiak aska daitezela; erantzukizunak har ditzatela hartu behar dituztenek, behingoz. Ez ditugu gatazkaren ondorioak gehiago pairatu nahi, eta ez dugu nahi beste inork paira ditzala. Horrek, argi eta garbi, bizikidetza oztopatuko luke. Aurrera egin nahi dugu, oraindik ere mesfidati daudenak gure bide honetara ekartzen saiatu. Badakigu denbora igaro beharko dela, oinazeak toki handia hartzen duelako oraindik ere, baina, hori horrela izanda ere, "Eta orain, zer?" pentsatzen jarraitu behar dugu, guztiok.

Argi daukagu: bizikidetza ez da batasunean eta zoriontasunean bizitzea. Bizikidetza da norberak ez bezala pentsatzen duena errespetatzea, etiketarik ez jartzea, ez epaitzea, ez baztertzea, eta pentsamolde-aniztasunak ez baldintzatzea gizarte-harremanen oinarri diren gutxieneko arauak. Bizikidetza da aukera izatea edozein proiektu politiko garatu ahal izateko, berau babesten dutenak baztertu, jazarri eta zigortu gabe. Bizikidetza da gorrotoa eta mendekua gainditzea, ez ditzaten eremu publiko eta pribatuko gure iritzi eta jarduketak gidatu.

Zinez uste dugu gizartea aldatzen ari dela, bizikidetza-giroa lasaitzen ari dela. Askeago sentitzen gara, lasaiago. Nahi duguna izaten uzten diogu geure buruari, unean uneko giroari, lagunei, inguruari horrenbeste erreparatu gabe. Jada ez gara gertatzen denari, gertatzen zaigunari, horrek sentiarazten edo pentsarazten digunari buruzko gure iritziak ematearen beldur. Ez gaitu beldurtzen norbaitek txartzat hartzea esaten dugunak: ados ez badago ere, badakigu begirunez jokatuko duela.

> Jada ez gara hitz egitearen beldur

Askotarikoa izan da bidea errealitateari beste modu batean begiratzea, elkarri dagokigun aitortza egitea eta harremanak nolabaiteko normaltasun eta errespetuz izatea ahalbidetzen digun errealitate honetara heltzeko. Denbora-tarte horretan zehar, gutako batzuk galdera asko egin dizkiogu geure buruari, saiatzeko azalpen bat aurkitzen sentitu eta ulertzen ez genuen hari; azalpen arrazionala eduki arren, barruan geneukan gorrotoa, beldurra edota mesfidantza baretzea lortzen ez zuen hari. Beste batzuk aukera izan genuen gertatzen zitzaiguna erlatibizatzen ikasteko, atzerrira joan ginelako, beste herrialde batzuetako jendea ezagutu genuelako, beste historia eta kultura batzuekin. Beste batzuk jarrera aldatu genuen, hurbileko gertakari batek hunkitu, dena kolokan jarri, axolagabekeriatik aterarazi, eta kontzientzia hartzea ahalbidetu zigunean.

Dena dela, gehienon kasuan, heziketa izan da sortasunetik irtenarazi eta esku hartzera bultzatu gaituena, pasibotasunetik parte hartzera ekarri gaituena. Heziketak erakutsi digu ezin dugula zain egon; urteetan gatazka konpontzen saiatzen ari diren horiek aintzat hartu behar dituztela gazteak; gu ere bagarela gizarte honen eta aldaketaren parte.

> Ez naiz bizi dudana. Egiten dudana naiz. Hala ikusiko nau jendeak ere

Gure eskubide eta betebeharra da demokraziaren kultura sustatzea, etorkizun partekatua eraikitzen laguntzea (giza eskubideak bakarrik oinarri hartuta). Horretarako, baina, ez dugu geure burua birformulatzearen, jarrera neutralagoak bilatzearen beldur izan behar. Bestelako iritziak dituztenak, beste errealitate batzuk bizi izan dituztenak aditu, eta haiekin hitz egin behar dugu, haiek ere sufritu egin dute eta. Hori da etiketak, norberarenak eta besteenak, inposatuak eta autoinposatuak, ezerezteko modua. Beldurra eta lotsa gainditu behar ditugu, eta ingurukoei zera galdetu: "Zelan zaude? Bizi izandakoari buruz hitz egin nahi duzu?". Horrela baino ez dugu lortuko isiltasunak gainditzea eta iraganeko errelatoekin bestelako orainaldia (orainaldi duinagoa) ehuntzea.

Elkarrizketaren ondoren, eta *orainaldia* ixteko, ekintza sinbolikoa egin dute: **Aldaketa landatuz.** Partekatutako etorkizuna lortzeko, orainaldian hartutako konpromisoa idatzi dute. Paper biodegradagarriz eta haziz egindako txartel batzuetan idatzi dute, eta, gero, loreontzi partekatuan landatu dute idatzia*.

Gazte batek bere konpromisoa *landu* egiten du Bilboko orainaldiko txokoan.

* Topaketetan parte hartu duten gazteek intimitatean idatzitako konpromisoak ez dituzte besteekin partekatu. Beraz, ez dago horiei buruzko informaziorik.

Azkenik, etorkizunaren txokora joan da taldea. Hiriburu bakoitzean toki desberdinetan kokatu da, baina guztiak egon dira euskal artista baten eskulturaren inguruan: Bilbon, Chillidaren *Begirari IV* eskultura eta Pedro Arrupe pasabidea; Vitoria-Gasteizen, Eusko Legebiltzarra eta Agustín Ibarrolaren *La Mirada* eskultura; eta Donostian, Nestor Basterretxeak egindako *Bakearen Usoa* eskultura. Elkarrizketa bideratzeko, hiru galdera sorta egin dira*:

1. Nola bizi nahiko zenukete? Nolakoa irudikatzen duzue etorkizuneko gizartea? Nola kontatuko zeniekete etorkizuneko belaunaldiei iraganean gertatutakoa eta orain bizitzen ari zaretena?

2. Nola hartuko duzue parte etorkizun hori eraikitzen? Zer egingo zenukete, gaur egun, indarkeria bidezkoa dela aldarrikatzen duen norbanako edo talde baten aurrean? Zergatik da ezinbestekoa pertsonen duintasuna eta giza eskubideak defendatzea?

3. Zuen aburuz, zergatik hautatu dugu toki hau etorkizunaren ikur gisa? Zeintzuk dira bakearen kulturan oinarritutako gizartearen ezaugarriak?

Hona hemen etorkizunaren txokoetatik ondorioztatutakoak:

Etorkizunean biziko garen tokia, gaur egungoarekin alderatuta, oso bestelakoa izango da. Bizi garen lurraldetxo hau oso berezia da: beti izan da askotarikoa, eta hala izaten jarraitu behar du. Erronka da, hain zuzen ere, pluraltasun hori kudeatzen ikastea: berau babesteko borrokatu beharko genuke; balore gisa ikusi behar genuke, ez liskar iturri gisa; besteen pentsamoldea errespetatu behar dugu, bakoitzak beretik, homogeneizatu gabe.

Ukaezina da asko sufritu dugula, eta badakigu bidea ez dela erraza izango, trabak egongo direla, kosta egingo zaigula topaguneak aurkitzea. Ordea, iraganetik ikasi beharra daukagu, orainaldiko eta etorkizuneko liskarrak hobeto kudeatzeko. Gainditu egin behar ditugu oinazea, mesfidantza eta gorrotoa. Elkarrenganako begirunea gorde behar dugu, dagokigun aitortza egin elkarri. Itxura batean elkarrengandik oso urrun dauden gizarte eragile batzuek (biktimek eta biktimagileek, esaterako) hala egin dute jada. Badaude erreferenteak; konpromisoari, ardurari eta esku-hartzeari esker, aldaketa posible dela erakusten duten adibideak.

Gure ustez, bestelako justizia eredu baterantz jotzea da aldaketa bultzatzeko urratsik oinarrizko eta ezinbestekoenetako bat. Mendeku eta zigorrezko justizia alboratu, eta justizia eraikitzaileago eta integratzaileago batera jo beharra dago. Horretarako, noski, nahita eragindako sufrimendua aitortu beharra dago. Garrantzitsua da, era berean, memoria kolektiboa eraikitzea. Gertatutakoaren irakurketa eta interpretazio asko daude eta, hartara, kontakizun asko barne hartuko dituen memoria elikatu behar dugu. Horrez gain, aztertu behar ditugu gizartearen parte bat xede politiko batzuk indarkeriaren bidez lortu behar zirela defendatzera eraman zuten arrazoiak, horiei zilegitasuna kentzeko eta giza eskubideen defentsan oinarritutako diskurtsoa nagusi izateko. Finean, Euskadin bizi, ikasi eta lan egiten

* Elkarrizketaren jariakortasuna zein izan den, ez dira galdera guztiak egin.

dugunon erabakitzeko eskubidea bermatu behar dugu. Eta ez dugu ahaztu behar aldaketarako heziketa ere sustatu behar dela: hezkuntzaren arloko eta komunitateko eragileek laguntza emango digute, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiak pluraltasuna kudeatzen eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzen hezteko.

> Aldaketarako eragileak izan behar gara: hitz egiteko eta bitartekari lanak egiteko prest egon behar dugu

Beste alde batetik, eremu pribatuagoan, uste dugu gazteok garela benetan aldaketarako giltza daukagun eragileok. Edonora goazela ere, elkarrizketa pluralerako guneak sortu nahi ditugu; hitzetan jarri nahi dugu hainbat eta hainbat urtean zehar isiltasunen atzean ezkutatutako guztia. Ideologizatzeari, zatituta egoteari, elkar baztertzeari utzi nahi diogu. Elkar ulertzeko eta elkar errespetatzeko borrokatu nahi dugu. Edonora goazela ere, ondo sentitu nahi dugu: izateko, sentitzen duguna adierazteko libre sentitu nahi dugu, inork txarto begiratu edo gu seinalatu gabe. Eragin handia dugu eta erraza da gugan eragitea, eta horretaz jabetu nahi dugu. Ezaugarri horiek baliatu nahi ditugu indarkeria aldaketarako tresna zilegi gisa betikotu edo bidezkotzen duten guztien aurka altxatzeko. Aditzeko eta hitz egiteko gonbita egin behar diogu elkarri. Bizitza dinamikoa dela ulertu behar dugu, aldatu egiten gaituela. Geure erosotasun ideologikotik irten, eta bestelako ikuspuntu batzuk aurkitu behar ditugu, beste historia, kultura eta errealitate batzuk. Eboluzionatzen joateko jarrera agertu behar dugu, zer esango duten beldurrik gabe, prozesu hau traizioa bailitzan ikusiko ote duten beldurrik gabe.

Oraindik ere indarkeria babesten dutenei, ordea, nola ulerrarazi hori ez dela aldaketarako bidea? Dirudienez, Historiak erakutsi digu testuinguru jakin batzuetan indarkeriak aldaketak eragin dituela. Hori horrela, geure buruari galdetzen diogu ea borroka guztiek ekarri behar ote duten giza sufrimendua. Oinarrizkoenak diren eskubideak ukatuta ere, ez al leudeke, beti, borrokatzeko beste modu batzuk? Gure bizipenek erakutsi digute indarkeriak (erasoa jotzekoak zein defendatzekoak) ez duela ezertarako balio izan, ezpada beharrezkoa ez zen sufrimendua eragiteko. Hori dela eta, uste dugu borroka bat hautatu aurretik, norekin eta nola borrokatuko garen aukeratu baino lehen, hausnartu beharko genukeela ea ez dagoen beste aukerarik, eta ea dakigun zer ondorio dituen protestarako tresna gisa indarkeria erabiltzeak. Eta, bai, egia da: egoera batzuek blokeatu egiten gaituzte, ezin diegu aurre egin. Bada, une horietan, elkarrizketa

> Ondorioaren kontzientzia eragin behar da

eta tolerantzia defendatu behar ditugu, sutsuki defendatu ere (intolerantziaren aurrean ere bai). Enpatia eta malgutasuna erakutsi behar dugu.

Ados. Onartzen dugu erronka. Bakearen kulturan oinarritutako etorkizuna eraiki nahi dugu, orainalditik. Prozesu honetan dagokigun protagonismoaren jabe izan behar dugu: erantzukizun hori ez diogu inori eskuordetu behar, gu gara-eta aldaketarako indarra. Uste dugun baino boteretsuagoak gara, bere burua errespetatzen duen gizartea eraikitzeari dagokionez –entzun, eta orotariko iritziak aintzat hartuko dituen gizartea, non inor ere ez den zigortua izango bere pentsamoldea dela eta–. Gizarte bat, non inor ez den egia absolutuaren jabe izango; non bertan bizi garenok badakigun akordioak erdietsi behar ditugula, aurrera egingo badugu; non batera ikasi ahal dugun, desberdin egiten gaituzten gauzei balio erantsia emanez. Justizia sozialaren alde lan egin nahi dugu; gatazka, bizikidetza demokratikoaren berezko elementutzat hartu nahi dugu, eta ulertu bide ez-biolentoetatik ebatzi behar dela, garaile-galtzaile eskemara jo gabe. Aitzitik, uste dugu desberdinen arteko zubiak eraiki behar direla, etorkizun partekaturanzko bidea eraikitzeko.

> Errespetatzea, humanizatzea da. Norbanakoak beren ideologiaz harago ikustea

Gasteizko gazte taldea etorkizunaren txokoan solasean: Eusko Legebiltzarra.

Elkarrizketaren ondoren, eta *etorkizuna* ixteko, ekintza sinbolikoa egin dute: **Etorkizuna gogoratuz.** Parte-hartzaileek mezua grabatu dute *etorkizuneko beren "Ni"entzat,* ez ahazteko **Bake Ibilbideak** topaketan ikasitakoa. Mezua posta elektronikoz bidali zitzaien urtebete beranduago. Grabatu zutenean ez zekiten halaxe izango zela.

Geure burua gogoratu nahi dugu, beti izan gogoan iraganean gertatutakoari buruzko memoria indibiduala subjektiboa dela eta, beraz, hark eragindako sentimenduak ere halaxe direla. Hori bai: memoria indibidual horrek baldintzatu egiten du gure izaera eta harremanak izateko modua eta, ondorioz, maila pertsonalean lanean jarraitu behar dugu, jakiteko zelan eragiten digun, eta gainditu ahal izateko besteenganako eraiki arazten dizkigun hesiak. Labur esanda: batzuetan, zauriak zabaldu egin behar ditugu, hobeto senda daitezen. Ezin dugu iragana ahaztu, eta eragindako bidegabeko sufrimendu guztiak ere ez. Baina iragan horretatik ikastea dagokigu, soluziobideari eustea, denok batera etorkizun partekatua eraikitzeko aldaketa bultzatzea. Bakea eta bizikidetza posible direlako ilusioa bizirik mantendu behar dugu.

> Sekula ez ahaztu bizi izan duzuna, eta bizi izandako horrek egiten zaituela gaur egun zarena

Beste alde batetik, gogoratu nahi ditugu orainaldiak eskaintzen dizkigun aukerak. Izan ere, duela urte batzuk arte pentsaezina zirudien elkarri aditzeko, gogoeta egiteko eta elkarrekin hitz egiteko gune bat egotea, non guztiz bestelakoak (are antagonikoak) diren errealitateak bizi izan dituztenek bizipenak partekatuko zituzten. Pluraltasunari dagokion balioa aitortu behar diogu. Hori dela eta, isiltasunaren, tabuen, oraindik ere hor daude beldurren gainetik, egia absolutuak eta aurrejuzguak desmuntatzen dituzten gune horietan parte hartzeko motibatzen jarraitu nahi dugu. Eta saiatu nahi dugu gure ingurukoengan eragiten, haiek ere parte har dezaten.

> Gauza txar guztiak gainditu ahal dira, horretarako borondatea badago

Guneotan husten ditugu iraganetik bizkarrean dakartzagun emozio suntsitzaileak; jasanberak izaten irakasten digute (hala ez direnekin ere bai); eta norbanako zein gizartearen kide gisa elkar ulertzea ahalbidetzen digute.

Konpromisoa daukagu gizartea horrekin. Konpromisoa, indarkeria guztien eta horiek eragiten dituzten egoeren aurka borrokatzen jarraitzeko. Konpromisoa, gure inguruan gertatzen denarekin sentibera izateko, beste aldera ez begiratzeko, bidegabetzat jotzen dugunari aurre egiteko. Konpromisoa hartzen dugu aldaketarako eta elkartasunerako eragile izateko;

adoretsu izateko eta enpatizatzeko; elkarrizketa erabiltzeko desberdintasunei aurre egiteko funtsezko tresna gisa; irtenbide begirunetsu eta eraikitzaileak bilatzeko. Gizakiok, bizitzaren eta gatazken aurrean, arrazoibide logikoa eta argudioak baino zerbait gehiago ere bagara, ideologia eta diskurtso politikoak baino zerbait gehiago daukagu barnean. Sentimenduak gara. Eta sentimenduak zaindu egin behar dira.

Gazte batek bere mezua grabatzen du Ibarrolaren *La Mirada* eskulturaren parean.

Topaketa amaitzeko, parte-hartzaileen taldeak pintxo potean aritu dira, eta **Bake Ibilbideak** ekimenari buruz solastu dira, lasai eta modu informalagoan.

Donostiako **Bake Ibilbidea** amaitu ostean gazte taldearekin egindako pintxo potea.

NAZIOARTEKO EGUNAK

Proiektu mota: Bake eta Bizikidetza lantaldea *(Bakezaleak)*

Laburpena: Lantaldeak bere egindako lehen erronka izan da bakeari eta bizikidetzari lotutako Nazioarteko Egunetarako ekimenak pentsatu, prestatu eta garatzea. Guztien artean gailentzen da Memoriaren Egunaren kariaz egindakoa: istorio laburrak partekatu dira sare sozialetan, Euskadin azken hamarkadetan izandako terrorismoaren eta indarkeria politikoaren eraginez egon diren eta dauden biktimen profilei buruz.

Helburuak:

- Bakeari eta bizikidetzari lotutako Nazioarteko Egunen inguruko gogoeta eragitea.
- Bizipenak eta ikuspuntuak partekatzeko erreferentzia-gunea sortzea.

Data: hileroko saioak, 2015eko martxotik abendura bitartekoak.

Tokia: txandaka. EGK-k Euskadin (Bilbon, Vitoria-Gasteizen eta Donostian) dituen egoitzetan izan dira saioak.

Iraupena: 2 h saio bakoitza.

Oharrak: 2016an ere bildu da lantaldea, baina beste xede batekin: aldaketarako proposamenak egitea. Xedearen garrantzia ikusita, argitalpen honen hirugarren kapitulua eskaini diogu: "Bakezaleak – Aldaketarako proposamenak".

Bestalde, 2014ko udazkeneko ekimenetan parte hartu zutenek oso ondo erantzun zuten eta, hori ikusita, lantalde bat eratzeko deialdia egiteko eskaera egin zuen EGKren Bakegintza eta Bizikidetza Arloak, 2015eko hasieran. Talde horrek *Bakezaleak* izena hartu zuen. Beraz, taldea bakeari eta bizikidetzari lotutako Nazioarteko Egunei begira ekimenak pentsatu eta diseinatzeko sortu bazen ere, gai horiei buruzko bizipenak eta ikuspuntuak partekatzeko erreferentzia-gune bilakatu zen.

Lehen saioetan zehar, lantaldea zedarritzen duten bi ardatzen inguruko gogoetak partekatu dira: Nazioarteko Egunek duten balioa; eta gazteek esparru horretan duten parte-hartzea.

//// Hauexek izan ziren gazteek esparru horretan duten parte-hartzeari buruzko gogoetak

Pertsonaia ospetsuek gazteei buruz egindako aipuak mahaigaineratu dira, eta kide bakoitzari bat hautatzeko eskatu zaio; gero, azaldu beharko dute zergatik egin duten hautu hori:

AIPUAK	GOGOETAK
"Beharbada, egunen batean, gazteei euren gazteria sortzen utziko diete", **QUINO**	*Haurtzaroan askatasunez, jolastera, egitera, etab. animatzen gaituzte. Baina gazteok bideratzen saiatzen dira. Eta guk zer izan nahi dugun asmatzeko betebeharra dugu!*
"Euren gazteak baztertzen dituen gizarteak, bere loturak mozten ditu: odolustera kondenatuta dago", **KOFI ANNAN**	*Gaztaroa bizitzaren epe iragankor bat bezala ikusten da, eta, ondorioz, gazteoi ez zaigu gizartearen beste eragile bat bezala kontsideratzen, garrantzizko ekarpenak egiteko gai. Gainera, ezberdina den guztia idealismoaren zakuan sartzen da eta ez du zertan horrela izan behar. Traumatizaturik ez dagoen gazteria aukera bikaina da gizarte batentzat.*
"Gazteriak lehenago daki zer ez duen nahi, zer nahi duen baino", **JEAN COCTEAU**	*Nerabezaroan beharbada kritikoa izateko gaitasuna falta zaigu, baina gaztaroan zer nahi dugun badakigu.*
"Gazteriak gizakia iragartzen du, goizak egunarekin egiten duen bezala", **JOHN MILTON**	*Gazteriak zein etorkizun mota izango dugun ikusarazten digu. Eta nik indiferente eta fatalista ikusten gaitut.*
"Gazteriak aurrez egindakoa beti lurrera bota nahi du. Baina horregatik ez naiz haren aurrean haserre agertuko", **GUSTAV KLIMT**	*Ez dut uste egindakoa lurrera bota nahi dugunik, egina dagoena zalantzan jartzen dugu, alternatibak bilatzen ditugu.*
"Gazteria bere esanahia jakin gabe bizitzen da; hori bere mamiaren zati bat da", **ELVIRA LINDO**	*Zita hau etxean betidanik entzundako ideia batekin lotzen dut: gazteak betebeharrez beteta bizi gara, hausnartzeko denborarik gabe eta ondorioz, ez dugu gaztaroa behar bezala aprobetxatzen.*
"Gaztea izatea gure bizitza eta orainaren jabe izatea da, baita etorkizunari erronka egiteko prest egotea ere", **MIGUEL ÁNGEL CORNEJO**	*Gazteok errugabeak gara eta horrek laguntzen gaitu ezinezkoak diruditen erronketan sinesten (zailtasunak hain argi ikusten ez ditugulako) eta proposatutakoak aurrera ateratzen.*

Beste alde batetik, eta gazteen parte-hartzeari dagokionez, erronka interesgarri bati heldu dio taldeak: zer egin daiteke gazteek horrelako topaketetan parte hartzea sustatzeko?

Gure ustez, gazteok parte hartuko badugu, kolektibo gisa (orokorrean) parte hartzeko zein motibazio eta itxaropen ditugun jakin beharko genuke lehenengo eta behin, eta zerk eragingo ligukeen gai horiei buruzko guneetan, zehazki, parte hartzea. Dudarik gabe, parte hartzea baldintzatzen duen kontuetako bat da nork bere denbora nola kudeatzen duen: nork bere lehentasunak markatzen ditu. Era berean, bizi, ikasi edo lan egiten dugun udalerritik beste nonbait joan behar badugu ekimenean parte hartzeko, utzi egingo dugu, orain ala gero. Hori dela eta, uste dugu teknologia berriak baliatuta gutxitu egin daitezkeela topaketak, eta Skype edo Facebook bidezko saioekin osa daitezkeela, elkartzen garenean zabaldutako eztabaidei segida eman ahal izateko. Nahiago dugu 'osatu', 'ordeztu' baino: gaur egun daramagu bizitza-erritmoak ez dizkigu gauzak errazten, baina, guretzat, askoz baliotsuagoak dira harreman zuzenak, mediatizatuak baino. Horrelako guneen xedea, beraz, ez da bakarrik gai horiek jorratzea; beste errealitate batzuetatik etorri, eta konpromiso zein ekimen maila bera duten gazteak ezagutzea ere bilatzen da. Esan behar dugu, baina, faltan bota dugula espektro ideologiko zehatz bat, zeinak, oraindik ere, parte hartzeko errezeloa baitu.

Bake eta Bizikidetza lantaldearen saioetako bat.

//// Zer esanahi ematen diegu Nazioarteko Egunei? Gure errealitatea islatzen al dute? Eragiten al digute?

Adostasunik ez, gai honen inguruan. Areago: hiru iritzi-ildo agertu dira gure artean. Lehenengo taldean gaude uste dugunok Nazioarteko Egunek balio dutela ospatzen edo aldarrikatzen ari den horri buruzko ideiak eta hausnarketak partekatzeko eta, batez ere, ikusgarritasuna emateko arazoei eta landu gabe ditugun erronkei. Uste baitugu ezin daitezkeela parekatu Eguna ospatzea, eta ospakizun hori bera gure eguneroko errealitate ezagunera moldatzea.

Bigarren talde batean gaude uste dugunok Nazioarteko Egunen helburu bakarra dela agenda politikoa eta mediatikoa markatzea. Ondorioz, ez dugu harremanik ikusten erakundeek, beren kabuz, egun horietarako antolatutako ekintza eta ekimenen, eta (elkarrekin) bizi garen errealitatearen artean.

Eta hirugarren taldean gaude dakigunok Nazioarteko Egunak zein garrantzitsuak diren konpontzeke dauden arazoei eta erdietsitako lorpenei ikusgarritasuna emateko. Hori bai: jarrera kritikoa mantendu dugu, eta kritiko agertu gara mamiarekin, asmoekin eta moduekin. Gehienok hirugarren ildo honetan gaude. Gauzak horrela, eskatu dugu 'Dena Delako Eguna'ren kariaz egindako lanari jarraikitasuna eta segida emateko ("urtean zehar ere lanean jarraitu beharra dago"). Komunikabideek, erakundeek eta gizarteak egun horiei emandako tratamendua birplanteatu behar dugu. Aldarrikatu behar dugu deseraiki egin behar direla egun horiek ezkutatzen dituzten botere-harremanak. Aztertu beharko litzateke nork egiten dituen Nazioarteko Egunak, eta zertarako: ageri-agerikoa da batzuei garrantzi handiagoa ematen zaiela beste batzuei baino.

Egiarako Eskubiderako Eguna	martxoak 24
Torturaren Biktimenganako Elkartasunaren Eguna	ekainak 26
Demokraziaren Eguna	irailak 15
Bakearen Eguna	irailak 21
Indarkeriarik Ezaren Eguna	urriak 2
ETAren su-etenaren urteurrena	urriak 20
Memoriaren Eguna	azaroak 10
Tolerantziaren Aldeko Eguna	azaroak 16
Giza Eskubideen Eguna	abenduak 10

Esanguratsua da: gazteok kostata identifikatzen ditugu bakeari eta bizikidetzari lotutako Nazioarteko Egunak. Ez gara gai egutegian zehatz kokatzeko, baina ezagutzen ditugu Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna, Bakearen Nazioarteko Eguna eta Indarkeriarik Ezaren Nazioarteko Eguna. Beste data esanguratsu batzuk, aldiz, oharkabean doazkigu, adibidez: Egiarako Eskubiderako Eguna, Torturaren Biktimenganako Elkartasunaren Eguna, Demokraziaren Eguna, ETAren su-etenaren urteurrena, Memoriaren Eguna eta Tolerantziaren Aldeko Eguna.

Ardatz horiek biak abiapuntutzat hartuta, lehen saioetan (udara arte) eztabaida interesgarria sortu da lantaldearen identitatearen eta xedearen inguruan. Era berean, argi geratu da aurrerapausoak eman behar direla, elkarrekin zerbait sortu, eta hori gizarteari, erakundeei eta komunikabideei ezagutzera emateko:

Nazioarteko Egunak gaur egun antolatuta dauden moduan har ditzakegu, edota, bestela, gure ikuspuntua aintzat hartuko duen proposamen original eta interesgarria egin ahal dugu. Gauza bata ala bestea egin, Dena Delako Nazioarteko Egunari lotutako kontzeptua hutsaldu ala, aitzitik, dagokion balioa aitortzea lortuko dugu. Zerbait berria ere sor genezake: gure benetako errealitatearen, gure interes eta beharrizanen neurrira antolatutako Egun berria!

Azkenik, uda eta gero, Memoriaren Egunaren gainean lan egitea erabaki da. Euskadin ospatzen da, azaroaren 10ean, 2011tik. Zergatik erabaki hori? Bada, 2015ean garrantzi berezia izan zuen egun horrek: Eusko Jaurlaritzaren "Gogora" inauguratu zen, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua. Hori dela eta, EGKren Bake eta Bizikidetza lantaldetik ezinbestekotzat jo dugu gazteek ere 'memoria'ri buruzko beren ikuspuntua ematea.

Hona hemen lantaldeak finkatutako premisak, Memoriaren Egunean aurrera eramandako ekimena koherentea izan zedin (bai formalki, bai edukiaren aldetik):

Aipatu behar da puntu horretan, biktimenean, pisu handiagoa hartu dutela gogoetak eta eztabaidak, eta galdera gehiago sortu direla: *Ekimenari begira, biktimak hautatu behar al ditugu, izen-abizen batzuk ezagutzera emateak eta beste batzuk ezkutuan gordetzeak dakarren arriskuarekin? Hau da: biktima guztiak ordezkatu behar al ditu ekimenak, ala biktimen profil desberdinak irudikatzen dituzten norbanako zehatzengan ardaztu?*

Jarduerarako esparru geografikoa: Euskadi.

Zabalkundea egiteko bidea: Internet **Hizkuntza:** Elebiduna

Ekimenaren helburuak:

- Gazteei ezagutzera ematea azaroaren 10a Memoriaren Eguna dela.
- Iraganaren aitortza egitea: gertatutakoarena, memoriarena eta biktimena.
- *Feedbacka* sortzea.

Galdera hauexek planteatu ziren, ekimena prestatzerakoan:

Zelan lortu 'memoria' gaur egungo gaia izatea? Zelan lortu gai horrek arreta mediatiko eta soziala bereganatzea? Zer gertatu da 'Memoriaren' Eguna egiten hasi aurreko urteetan? Noiztik egiten da? Zerk eragiten ditu liskarrak egun horretan? 'Memoria' bakarra dago? Ala bat baino gehiago? Zergatik jasotzen dute aitortza biktima batzuek bakarrik?

Azkenean, egokiago ikusi da istorioak ezagutaraztea: izendatzaile komunak dituzten istorioak, sufrimendu mota desberdinak islatzen dituztenak, baina, betiere, pertsonalizatu gabe. Baina... nola egin hautaketa? Nola definitu 'Biktima'? Zeintzuk dira beren ezaugarri komunak?

//// Ekimenaren planteamendu finala

Azaroaren 5etik azaroaren 15era arte, egunero, 18etan, gure iraganarekin lotura duten hainbat istorio EGK-ko Facebook eta Twitterrean partekatuko dira. Istorio hauetako protagonistak gatazkak eragindako hainbat biktimen profil orokorrak izango dira. Istorioak lantaldeko kideek sortu dituzte, lehenengo pertsonan edo gertuko inguruan entzundako bizipenetan oinarrituta.

Zergatik ahazten dugu?

Guztioi gustatuko litzaiguke oroituak izatea.

Gure memoria bizirik jarraitzea nahi al duzu?

EGK-ko Bake lantaldeak sortutako ekimena duzu hau. Azaroaren 10an Memoriaren Eguna gurea, gazteona, egin nahi dugu. Gure memoriak ere, gizartearen memoria osatuko duelako, egin zuk ere iragana oraina!

Jarraian, Bakea eta Bizikidetza lantaldeak idatzitako hamabi istorioetatik hiru aurkezten dira:

Parranda eguna dute etxeko gazteek. Afalordurako ama bakarrik gelditu da etxean, aita lanean dagoelako. Gaueko ordu txikiak dira dagoeneko eta amak alabari telefonoz deitu dio. "Zer ote du amak ordu hauetan?". "Bihotza, ETAk aita hil egin du." Alaba orduan, anaia bilatu eta biak negarrari eutsi ezinik ospitalera doaz. Ama bertan dago, eta ez berak ezta seme-alabek ere, ez dute ulertzen zer gertatu den eta batez ere, zergatik gertatu den. Ospitaleko momentuak eta hurrengo egunak ez dituzte oso argi gogoratzen, minak itsututako momentuak agian. Familiak lortu du hilketaren arrazoia zein den jakitea, aita guardia zibila zen. Baina orduan, horrek zer esan nahi du? Okina izango balitz bizirik egongo litzatekeela? Gainera zetorkien gorrotoari uko eginik, barkamenaren bidea aukeratu dute, eta orain urte batzuk, hiltzailea aurrez aurre hartu eta bere burua ulertzen saiatu dira. Barkatzea gehiegi esatea da, baina gutxienez gorrototik eraikita egongo ez den bizitzekin jarraituko dute aurrera. Aitak horrela nahiko luke.

Gurasoek janari denda txiki bat daukate eta anaia eta biok bertan aritzen gara laguntzen. Egunero zeregin dezente izaten ditugu bertan eta salmentak ongi joateko gogoz jarduten dugu. Anaia, maiz joaten da Iparraldera, bertakoa baitu bere neska-laguna, udaberrian kontzertu batean ezagutu zirenetik. Nik behin baino gehiagotan eraman izan ohi dut bertara aitaren auto zaharrarekin, berak ez baitu gidabaimena atera nahi. Gure etxean politikaz mintzatzea beti egon da debekatua. Aitona erbesteratua izan zen guda ostean eta ordutik gai hauek isilaraziak daude gurean. Kalean mugimendu handia sumatzen da eta kontuz ibiltzeko azpimarratzen digu beti amak. Egunkaria irekitzea nahikoa da berunezko urteetan gaudela jabetzeko. Pentsaezina zen niretzat, anaiaren bila joandako bidaia batean bizia kenduko zidatela, ETAkide batekin nahastuta.

Unibertsitatetik bueltan nintzen, amak bazkaltzeko prestatu zuenarekin asetzeko irrikan. Telefono dei bat nuen, zenbaki arraro horietakoa, inork erantzuten ez dituen dei horietakoak, "baina tira, gaur hartu egingo dut, ez du zertan ezer txarra izan".

-Bai esan?

-Kaixo, anaia! Parisetik deitzen dizut. Kartzelan naiz, dei bakar bat egin dezaket, eta zuri deitzea erabaki dut. Bisitan etor zaitezkete, jarri kontaktuan kartzelako administrazioarekin. Baina ulertzen dut, momentuz gauzak pentsatu behar dituzuela. Zer moduz zaudete?

-Ezustean harrapatu nauzu. Eraman zintuztenetik ez dugu ezer jakin zutaz, eta gauza asko pasa zaizkigu burutik, egia esatea nahi baduzu. Izango duzu gure berri. Muxu bat anai, ondo izan.

Lehorra izan nintzela? Ados. Baina ez nekien zer esan, ez nekien zer egin. Hilabete eskas pasa zen anaia etxera bila etorri zirenetik eta dei hura jaso nuen arte. Anaia nahiko bihurria zela denok genekien, baina ez hainbesterako. Etxean abertzaleak bai, independentistak bai, baina inola ere ez borroka armatuaren aldekoak. Hamabost urte pasa dira eta nik familia eduki dut dagoeneko. Bihar nire seme-alabei esaten diedan moduan, txangoa dugu. Parisera goaz, osaba bisitatzera. "Odolak ideiek baino gehiago lotzen gaitu", errepikatzen diot bidaia bakoitzean nire buruari, baina anaia han ikusten dudan bakoitzean, lana izaten dut sentitzen dudan amorrua barruan mantentzeko.

BAKE&ARTE TAILERRAK

Proiektu mota: arte-tailerra

Laburpena: tailer honen helburua izan da gazteek hausnartu dezatela artearen, bakearen eta giza eskubideen defentsaren artean dagoen harremanari buruz. Gai horiek, delikatuak eta, batzuetan, mingarriak izaki, zeharkakoago landu dira, baina, hala ere, ekimena eraginkorra eta aberasgarria izan da.

Helburuak:

- Artearen, bakearen eta giza eskubideen defentsaren arteko loturak miatzea.
- Memoria artistiko gaztea sortzea, eta segida ematea "Bakeahots" komunitate birtualari (2014an abiarazitakoa).

Data: 2015eko apirila

Tokia: tailer bat Euskadiko lurralde historikoetako hiriburu bakoitzean (Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Donostia)

Iraupena: 3 h 30' tailer bakoitza

Parte-hartzaileak, taldeko: gehienez ere, 15 lagun

Oharrak:

- Bideo-laburpena ikus daiteke YouTuben, 'EGK Bake&Arte Tailerrak' jarrita.
- 2015ean eta 2016an zehar proiektu hau garatu, eta beren errealitatera egokitzeko aukera izan dute Euskadiko udalerriek.

Tailer bakoitza garatu da arteari eta kulturari lotutako gune batean: Bizkaian, EHUren Arte Ederren Fakultatean, Leioan; Donostian, Donostia 2016 Europako Kulturaren Hiriburutzaren egoitzan; eta Vitoria-Gasteizen, GeroArte gazte elkartean. Arte-tailerrari ekin aurretik, parte-hartzaileei azaldu zaie jarduera zertan den (tailer bakoitzean talde bat dago), eta zenbait dinamika burutu dituzte, elkar ezagutzeko eta talde-izaera sustatuko duen gutxieneko konfiantza sortzeko.

Tailerreko lehen dinamika izan da ipuin herrikoi bat irakurtzea elkarrekin (edozein errealitate oso-osorik ezagutzeko ezintasunari, eta horrek eragindako gatazkak kudeatzeari buruzko kontakizuna, hain zuzen ere). Parte-hartzaile bakoitzak "Itsuak eta elefantea" ipuina irakurri du bere kolkorako.

Istorio hau, orain dela urte asko, Kenyako herrixka batean bizi ziren sei itsuei gertatu zitzaien. Sei itsuek erregea herrixkara elefante batean igota zetorrela jakin zuten. Taldeko inork ez zekien zer zen elefante bat. "Elefantea! Nola izango da?", galdetu zioten elkarri. Eta bere bila abiatu ziren. Itsu bakoitza bere aldetik joan zen.

Lehenengoak tronparekin topo egin zuen. Bigarrenak, aldiz, hortz batekin. Hirugarrenak, belarri batekin. Laugarrenak, hanka batekin. Bosgarrenak sabelarekin eta azkenak, buztanarekin. Gero, guztiak etxera bueltatu ziren, elefante bat zer zen argi eta garbi zekitela sinetsiz.

Heldu bezain laster, aurkitu zutenaren inguruan hitz egiten hasi ziren. "Elefante bat ikaragarria da! –esan zuen lehenengoak– biguna eta baxua". "Ez: zurruna eta luzea da", esan zuen bigarrenak, hortza ukitu zuenak. "Bai zera! –esan zuen belarri bat ukitu zuen itsuak– elefante bat laua eta mehea da haragi-xerra baten antzera". "Zer arraio esaten ari zarete! Zuhaitz handi bat bezala da", esan zuen hanka aurkitu zuenak. Beste bi itsuak bidetik topatu ziren eta eztabaidatzen zetozen: batek kobazulo baten pareta bezala zela esaten zuen eta besteak, aldiz, lokarri bat bezalakoa zela erantzuten zion. Eztabaida areagotuz joan zen: geroz eta zentzugabeagoa eta bortitzagoa bilakatuz. Elkarri joka hasi ziren arte!

Orduan, itsuengana ikusi zezakeen bizilagun bat hurbildu zen eta hala esan zien: "Denek arrazoia daukazue: zati guzti horiek elefante bat osatzen dute".

Gero, biribilean eseri, eta galdera batzuk egin zaizkie, bi taldetan antolatuta: irakurri berri duten istorioari lotutakoak, batetik; eta ipuina beren errealitatearekin lotzen dutenak, bestetik*:

1. Zer iruditu zaizue istorioa? Nolakoa da itsuen eta erregearen arteko harremana? Itsuak izango bazinete eta jakingo ez bazenute zer den elefante bat, hurbilduko zinatekete ukitzera? Nola jakin zuten elefantea ukitzen ari zirela? Seietako zein itsu izango zinateke eta zergatik? Zergatik uste duzue itsuek ez zutela elefantearen beste zati batzuk ukitzen jarraitu? Zergatik uste duzue bakoitzaren ikuspuntua defendatzeko eztabaidatzen hasi zirela, joka bukatu arte? Zergatik hurbildu zitzaien ikusten zuen bizilagun bat ondorio bat ematera? Zergatik ematen zaio ipuinean egiaren autoritatea ikusten duen pertsona bati? Nola uste duzue erantzungo ziotela sei itsuek bizilagunari entzuterakoan? Bere ikuspuntuaz fidatuko zirela uste duzue? Zer amaiera mota emango zeniokete istorio honi?

2. Elefanteak zer irudikatu nahi du? Eta ikusi dezakeen bizilagunak? Normalean, nola jokatzen dugu guk antzeko eztabaidetan? Beharrezkoa al dugu beti *ikusten dutenez fidatzea*? Zergatik? Ipuin honen ondorioa egokiena dela uste al duzue?

* Elkarrizketaren jariakortasuna zein izan den, ez dira galdera guztiak egin.

Dinamika honen helburua da istorio berari buruz egon daitezkeen interpretazio desberdinen inguruko hausnarketa egitea, eta egiaztatzea zein aberasgarria den ikuspegi guztiak bateratzea. Hona hemen jardueratik ondorioztatutakoak:

Zalantza izpirik ez dago: 'elefantea' da aurrez aurre jarri ahal gaituen edozer, hau da, gatazka eragin dezakeen edozein gauza: gai zehatz bat, iritzi bat, egitate bat, kontzeptu abstraktu bat ('Askatasuna', 'Egia'). Desberdinak direla eman arren, elkarren antza badute gauza batean: aurrez aurre jartzen gaituen horri buruz, beti dago ezagutzen ez dugun zati bat. Zati ezezagun hori (edo horiek) ezagutzeko saiakera horretan hasten da ikuspuntu trukaketa/gatazka: zer-nolako jarrera hartu, ezagutzen ez dugun hori ezagutzerakoan? Gutako batzuk beharrezkoa dugu ezezagun zaiguna beldurrik eta mesfidantzarik gabe ezagutzea; beste batzuk, aldiz, nahiago dugu elefantea ikusi, eta ukitu ez; beste batzuk eremu ezezagunera joan nahi dugu, baina lagunduta, betiere; eta beste batzuk, berriz, ez gara joaten.

Ikasi dugu gai gatazkatsuak identifikatzen, horien inguruko faktore espezifikoei erreparatuta, adibidez: eragin ohi dituzten emozioei (tristura, tentsioa, amorrua); dena delako gai horrek denboraren poderioz eskuratutako konnotazio sozial, politiko edo mediatikoei; edo, areago, gatazkak eragindako pertsonaren baten edo haren ibilbidearen aitortzari.

> Nekatuta nago *ikusten* dutenek ni laguntzeaz, uste baitute ez naizela gai neure kabuz *ikusteko*

'Itsuak' ere, argi eta garbi identifikatzen ditugu: gatazka baten aurrean ikuspuntu desberdinak agertzen dituztenak dira. Beraz, nola edo hala, guztiok gara itsuak, gure ustez. Ezinezkoa da ezagutzea gatazkak baldintzatzen dituzten ikuspuntu eta faktore guztiak. Ordea, denok ez gara berdinak: gure izaera zein den, zein ezagutza ditugun, eta aurreko bizipenetatik zer ikaspen lortu dugun, bakoitzak gure modura kudeatzen ditu gatazkak. Gatazkak konpontzeari dagokionean, ez dugu uste errealitate bat ala beste bizi izanagatik (tokatu zaiguna eta hautatu duguna) iritzi batzuk beste batzuk baino pisutsuagoak izan behar dutenik, edo balio handiagoa izan behar dutenik. Ordea, gatazka zein den, eta harekin zein lotura dugun, horrek eragina dauka gugan: gai emozionalenetan, sentitzen dugu ez dela bidezkoa inork gu zalantzan jartzea.

Dena dela, uste dugu badagoela gatazka guztietan errepikatzen den jarraibide bat: beste ikuspuntu batzuen aurrean, beti uste dugu arrazoia geuk dugula, hau da, kosta egiten zaigu gure iritzia aldatzea. Saiatzen gara aditzen, ulertzen; baina ez dugu aldatzeko saiakera egiten. Ezagutzen dugunaren arabera eraikitzen ditugu gure ideiak; gure ustez, gizartean adierazgarriena denaren gainean, edota gizartean onartuen dagoenaren gainean; edo, bestela, gure ideologiatik edo bizipenetatik hurbilen dagoena aintzat hartuta. Batzuetan, gure usteak egiaztatzera jotzen

> Nork esango dit niri arrazoia ote dudan ala ez, sentitzen dudanaren gainean?

dugu, eta, beste batzuetan, originaltasunera eta egiazkotasunera. Edozelan ere, gehien-gehienetan, planteamendu berriak ezagutu baino, ezagutzen dugunarekin konformatzen gara –gauza ezagunek segurtasuna ematen digute eta–. Ordea, jarrera hori aldatu nahi genuke: gai gatazkatsu beraren gaineko ikuspegi gehiago ezagutzeko grina dugu, hala egin behar dugula sentitzen dugu. Ikusi nahi dugu beste diskurtso batzuek gure planteamenduetan zer-nolako eragina izan dezaketen, zer zalantza sor ditzaketen.

Gatazka batek zuzen-zuzenean eragiten digunean, baina, zein jarrera hartzen dugu? Litekeena da pertsona eta inguruabar beste erantzun egotea. Eragina dauka ere gatazka zein den, eta harekiko zein lotura maila dagoen: inplikazio emozionala zenbat eta handiagoa izan, orduan eta tinkoago eutsiko diogu gure jarrerari. Oro har, baina, gatazkaren dimentsioa minimizatzen saiatzen gara; hitz egiten ahalegintzen gara, tentsio maila jaisten, enpatizatzen, beste ikuspuntu batzuen zergatia ulertzen. Beraz, garrantzitsua da, gure ustez, sentimenduetatik hitz egitea, egitateetatik baino: gertatu denari buruz aritu ordez, horrek nola sentiarazi gaituen adierazi behar dugu. Horrek guztiak, nola ez, baditu bere arriskuak. Benetan latzak izan diren gertaeren kasuan, sentimenduetatik bakarrik hitz egiteak ez digu uzten hortik harago ikusten; gertaerari buruzko objektibotasuna galtzen dugu, eta, horrekin batera, ezerezean geratzen da sentitzen duguna baretuko duten soluziobideez gain, beste batzuk ere aurkitzeko gaitasuna.

Elkarrizketa eztabaida gogor eta antzu bihurtzen denean, egoera saihestea da onena, gure ustez –behintzat, jarrerak bare daitezen eta, onenera, aldaketa ekarriko duen autokritika eta gogoeta eman daitezen–. Era berean, uste dugu horrelakoetan ez ditugula itxaropen handiak izan behar, arazoa konpontzeari dagokionez: alternatibak, normalki, ez ditu alderdi guztiak asebetetzen.

Beste alde batetik, 'ikus dezakeen hura' da kanpoko norbait, gatazkarekin zerikusirik ez duena, saiatzen dena arazoari irtenbidea bilatzen, zuzenean parte hartu gabe. Hala egin dezakeela jotzen dugu, lehenago antzeko egoera bizi izan duelako; edota, bestelako arrazoiak tarteko (jakinduria, ospea, ibilbidea), badagokiolako aginpide hori. Hori dela eta, noizbait ere, ikusten duen pertsona hura izango ginen.

> Ezin hobeto *ikusten* duela uste duena, ez da fidatzekoa: bere ustez *ikusten* duenaz harago ikusteko ezintasuna ezkutatzen du, benetan, bere gaitasuna neurriz kanpo baloratzeko jarrera horrek

Ordea, uste dugu itsu guztiek ez ohi dutela berdin hartzen pertsona hori. Ikusten du, bai, baina horrek ez du esan nahi zentzumen guztiak dituenik; beraz, ez du zertan arrazoia, edo ikusten ez dutenen gaineko aginpidea izan; baliteke abantaila izatea, baina horrek ez du esan nahi hobea denik. Funtzionalki desberdinak gara eta, beraz, norbanako bakoitzak, osotasunaren zati bakarra ikusten du, ikusteko erabilitako zentzumenak edozein izanda ere. Norberaren bizipen eta ezagutzen arabera eraikitako zatia da huraxe. Eta hori errespetatu beharra dago. Ikusten duen pertsona bere planteamendua inposatzen saiatzen bada, gainerakook hura baztertzera jo ohi dugu, ez diogu uzten parte hartzen gatazka konpontzeko prozesuan.

Era berean, ikusten duten pertsonei jaramon egiteko beharra sentitzen dugu sarri, beldurrak baldintzatuta. Segurtasuna ematen digu horrek, konfiantza, fede-aitortza bat bailitzan. Hori guztia, baina, ez da doakoa. Ikusten duen pertsonak erakutsi behar du nola lortu duen bere aginpidea. Gainerakoek hala dela egiaztatu behar dute. Distantzia hartuz gero, beste ikuspuntu batetik ikusten dira gatazkak, eta, gatazka barruan ez dagoen norbaiten ikusmira txertatzea kostatzen bazaigu ere, gure ustez, gehien-gehienetan beharrezkoa da hala egitea, gatazka konponduko badugu. Hori dela eta, gustatuko litzaiguke ikusten duten pertsonek lanabes egokiak ematea ikusten ez dutenei, azken horiek aukera izan dezaten ezagutzeko gatazkaren beste alderdi batzuk, ezjakintasunagatik, axolagabekeriagatik edo iritziengatik ezagutzen ez dituztenak.

Bilboko gazte taldea "Itsuak eta elefantea" ipuinaren irakurketa ostean hausnartzen.

Bigarren dinamikan, **Giza eskubideak irudikatzen** izenekoan, giza eskubideak identifikatu eta definitzen dituzten hitzarmenen, itunen, aitorpenen eta karten zerrenda jasotzen duen webgune bat proiektatu da*. Gero, taldekideei eskatu zaie banan-banan saiatzeko giza eskubide horietakoren bat pertsonifikatzen, argazki bidez irudikatzen. Hasierako ideia zera da: gorputza bera ez den beste materialik ez erabiltzea. Elkarri lagundu ahal diote, baina bakoitzak argazki bat aurkeztu behar dio taldeari, eta gainerakoak saiatu behar dira asmatzen zein eskubide (edo eskubide-urratze) irudikatu nahi izan den. Dinamika honen xedea da frogatzea giza eskubideak ez direla bakarrik esakune bat: eskubide horien urratzea presente dagoela, etengabe, eguneroko gure errealitatean. Hona hemen argazkiak ikusi ostean ateratako ondorioak:

* Eskuragarri eta kontsultagarri honako helbide honetan: www.derechoshumanos.net/derechos/

Ezagutzen dugu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948). Beste itun batzuk, ordea, ez zaizkigu ezagun egiten –adibidez, gizarte zibilak berak XXI. mende hasieran sinatutako Giza Eskubide Sortuberrien Aldarrikapena–. Ikusteaz batera, badakigu oinarrizko eskubideak direla, baina egiaztatu dugu gutxi direla guztiz betetzen direnak (arrazoia izan daiteke, agian, estuki lotuak daudela eskubide batzuk eta besteak). Horrek zalantzak sorrarazten dizkigu, ea giza eskubideek zer-nolako legitimitatea duten erakundeentzat, enpresentzat, alor desberdinetako eragileentzat eta gizartearentzat berarentzat. Zalantzak ditugu, era berean, beste kontu baten gainean: ea giza eskubideak errespetatzen direla bermatu behar duten erakundeek indarkeria erabil dezaketen, giza eskubideak urratu nahi dituztenen aurkako disuasio eta zigor gisa.

Giza eskubideak argazki bidez islatzeko eskatzen digutenean, hasieran, oro har, blokeatu egiten gara. Alde batetik, giza eskubideak kontzeptu abstraktuetan oinarritzen direlako ('Askatasuna', 'Duintasuna', 'Identitatea'): kontzeptu horiek ulertzen ditugu, bai, baina zaila egiten zaigu pertsonifikatzea, ikusgarri egitea. Beste alde batetik, ez garelako seguru sentitzen, pentsatzen dugulako argazkia interpretatuko duenak ez duela ulertuko islatu nahi izan duguna. Ordea, sentipen hori ezerezean geratzen da amaierako emaitzak ikustean: besteek egindako argazkietan ikusten ditugunean giza eskubideak, ia-ia berehala asmatzen dugu zein izan den irudikatutako giza eskubidea (edo urratzea).

Kultu-askatasun eskubidea

Egiarako eskubidea

Giza eskubideak irudikatzeko, lehenengo eta behin, eskubide zehatz bat hautatu ohi dugu (harekin identifikatzen garelako, bizi izan dugulako, hurbil izan dugulako, edo berezia dela iruditzen zaigulako). Gero, taldearekin partekatzen ditugu dauzkagun ideiak, horiek osatzen edota hobekien irudikatzen lagun gaitzaten. Gainera, argazkirako material zehatza baino ezin daiteke erabili, eta, ondorioz, saiakera gehiago egiten ditugu elementu ukiezinekin (irudiaren mezua indartu ahal dutenak), hala nola: argia, enkoadraketa, keinua, eta abar. Gustuko ditugu argazki emozionalak, eta horiek ikusten dituenari gogoeta, zalantza eragitea. Hori dela eta, argazkiak egiteko metodo bi baliatu ditugu: eskubidearen kontzeptu nagusiak iradokitzen digunaren argazkia egitea; edo eskubide hori urratzearen ondorioak islatzea.

'Askatasuna' izan da argazkietan gehien irudikatu duguna: identitate askatasuna, boto askatasuna, adierazpen askatasuna, sexu askatasuna, ezagutzarena, eta abar. Ura izateko eskubidea ere agertu da, nonbait. Ez genekien eskubide sortuberrien artean zegoela, baina badakigu zein garrantzitsua den: ura izateko eskubidea ukatzea, jendeari osasunerako eta, finean, bizitzeko eskubidea ukatzea da. Argazkietan irudikatutako beste giza eskubideak: bizitzarako eskubidea; autodeterminazio eskubidea; duintasunerako eskubidea; etxebizitzarako eskubidea; hezkuntzarako eskubidea; egiarako eskubidea; ingurumen osasuntsurako eskubidea; preso daudenek tratu duina izateko duten eskubidea; eta aberastasunaren bidezko banaketarako eskubidea.

Identitaterako eskubidea

Bidezko merkataritzarako eskubidea

Askatasunerako eskubidea

Tailerrarekin amaitzeko, **Etorkizuna amestuz** dinamika egin dute. Mihise zuria, musika instrumentala, eta material sorta zabala jarri da parte-hartzaileen esku (margoak, pegatinak, kartulinak, errotuladoreak, purpurina, aldizkariak), etorkizunak zelakoa izan beharko lukeen irudika zezaten: zer-nolako gizartea irudikatzen dute? Nolakoa da bake-kulturan oinarritutako gizartea? Gainera, aukera izan dute mihisean nahi beste aldiz esku hartzeko, eta batera lan egiteko ere bai.

Hona hemen mihiseen gainean ateratako ondorioak:

Hasieran ez gara ausartzen mihise zurian ezer egiten: kosta egiten zaigu ohikoa ez zaigun beste bide baten bidez, hau da, hitzak ez diren beste modu batean adieraztea sentitzen duguna. Hala gertatu ohi zaigu, ez dugulako sekula horrelako jarduerarik egin, edota lehenago egin dugulako eta gure gaitasunei aurre egin beharko diegulako. Hala eta guztiz ere, musikak lagunduta, geure barnean murgildu gara; sentipenei, emozioei eta bulkadei heldu diegu, eta imajinatzen ez genituen irudiak irten zaizkigu. Gerora, margotutakoa arrazoitu, eta osatuz joan gara.

Oro har, sentitzen duguna da margotutakoak islatzen duela zer garen: gure izaera, eta etorkizunerako zer espero dugun. Ordea, banaka margotzen dugu, hau da, ez dugu besteen lanetan esku hartzen: bakoitzak sortutakoa errespetatu nahi dugu, ez dugu beren jatorrizko mezua desitxuratu nahi. Etorkizuna hautemate bat da, grina bat, eta, beraz, zelan esku hartu horretan, hau da, margotutakoan? Beste alde batetik, baina, etorkizun partekatua nahi badugu, ez al litzateke zentzuzkoa irudi bateratuak egitea?

Eta, zer-nolakoa da amesten dugun etorkizun hori? Buruan dugun etorkizuna lan artistikoen bidez islatu behar genuela eta, iraganarekin dugun harremanaz hausnartu dugu, eta etorkizuna nola ikusten dugun aztertu dugu. Hartara, batzuetan, orainaldian gustuko dugunarekin kontrajarrita islatzen dugu etorkizuna: aldatu nahi dugun hura irudikatzen dugu.

> Etorkizuna pintatu aurretik, neure buruari galdetu behar diot zer den benetan nahi dudana

Askatasunean bizitzeko, nahi duguna izateko aukera gisa ikusten dugu etorkizuna, sentitzen baitugu iraganean estutu eta etiketatu egiten gintuztela. Orain izateko, egiteko, esateko ausardia behar dugu. Etorkizuna, beraz, iraganeko egoerak gainditzearen eraginez sortutako prozesua da, eta egoera horietatik ikasi egin dugu. Indarkeriarik gabeko etorkizuna nahi dugu. Baina, gainera, ondo bizi nahi dugu; gure bizitza-proiektuak garatzeko aukera izan nahi dugu; hazi egin nahi dugu, alor guztietan hazi ere. Etorkizuna horrelakoa izango bada, ezinbestekoa da askatasuna; bestelakoak direnenganako begirunea; oreka; naturarekin harremanetan egotea; humanoagoak izatea; gehiago konpartitzea, komunikatzea; gehiago maitatzea elkar; eta, datorrena datorrela ere, aurrera egitea. Eta, noski, ohartu behar gara horretarako oinarria heziketan dagoela: gaur egungo neska-mutilak dira bestelako etorkizunerako esperantza.

Gazte bat oihalean marrazten Gasteizeko tailerrean.

BAKEHIZKETAK

Proiektu mota: asteburu bateko bizikidetza

Laburpena: gazteak eta euskal errealitatearen hogei erreferente elkartu dira topaketa honetan. Elkarrekin emandako asteburua bost zatitan banatu da. Saio bakoitzean, edukiekin bat zetorren dinamika bat egin dute lehenengo, eta, gero, zuzendutako hizketaldia egon da, eta gonbidatu ezagunek hartu dute parte.

Helburuak:

- Sustatzea gazteek gogoetak egitea bakeari eta bizikidetzari lotutako zenbait errealitateri, bizipeni eta ikuspunturi buruz.
- Belaunaldiarteko isiltasunak gainditzea.

Data: 2015eko urria **Tokia:** Arrasate/Mondragón

Iraupena: ostiral arratsaldetik, igande eguerdira arte

Parte-hartzaileak, taldeko: gehienez ere, 25 lagun

Oharrak:

- Saioari buruzko bideo-dokumentala ikusteko YouTuben, idatzi 'EGK Bakehizketak dokumentala'.
- Proiektu honek bigarren zatia ere badauka: Bakehizketak II.

Hogei gazterekin itxi zen hitzordua, urriko ostiral baterako, Arrasate/Mondragóneko hotel txiki eta galdu batean. Kide ziren elkarteen bidez jaso zuten jarduerari buruzko informazioa, edota, bestela, EGKren mezu elektroniko labur baten bidez. Astebururako egitaraua zeukaten eta landu beharreko gaiak ezagutzen zituzten, baina ez zekiten zein pertsonaia ospetsurekin bilduko ziren*. Asteburu mamitsua izango zela sumatzen zuten: ezagutzen ez zituzten gazteekin emango zuten asteburua; euskal errealitatearen hogei pertsonaia ospetsuren bisita jasoko zuten; elkarren artean oso bestelakoak ziren ikuspuntuak ezagutuko zituzten; eta bizipen aparten berri izango zuten. Hori bai: bertaratuen arteko inork ere (ez gazteek, ez pertsonaia ospetsuek, ez eta EGKren taldeak ere) ezin zuen aurreikusi topaketak gerora izango zuen garrantzia.

* Honako irizpide hauen arabera hautatu ziren pertsonaia ospetsuak: erreferenteak izatea, dela beren ibilbide profesionalagatik, dela beren diskurtsoagatik, dela beren bizipenengatik; oreka ideologikoa bermatuta egotea; euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko gaitasuna izatea, edota hizkuntza biak ulertzea, behintzat; sexu-genero parekotasuna; eta zenbait belaunaldi ordezkatzea.

Lehen zatiari ekin aurretik, parte-hartzaileei azaldu zaie asteburua zelan antolatuta dagoen, eta zeintzuk diren errespetatu beharreko oinarrizko bizikidetza-arauak. Egitaraua banatu zaie, gonbidatutako pertsonaia ezagunen izen-abizenekin, eta eskatu zaie zuhur aritzeko, jardunaldia amaitu arte. Gero, dinamika bat burutu dute, talde-izaera sustatzeko gutxieneko konfiantza ezarri ahal izateko. Azkenik, asteburu osoan zehar areto nagusian parte-hartzaileen esku egongo diren lau materialak aurkeztu dira: "Ondorioen horma" (beren gogoeta guztiak jasotzen dituena, gaika), "Sentsazioen horma" (bizitzen doazen sentipenak jasotzen dituena), "Konfiantzaren termometroa" (jardunaldiei buruzko beren asebetetze maila islatzen duena), eta *esekitoki* bat (bat-bateko argazkien kamerarekin ateratako argazkiak jartzeko).




KONFIANTZAREN TERMOMETROA
100
80°
70°
60°
50°
40°
30°
20°
10°
0°

Ondoren, lehen zatiari ekin diote: **Errelatoa eta oroimena: Historiaren alde, ala kontra?** Gaiari heltzeko dinamika bat egin dute lehenengo. Itxuraz berdina den ipuina banatu, eta eskatu diete zenbait aldiz irakurtzeko, eta besteekin ez komentatzeko. Gatazka eragin dezaketen zenbait faktore islatzen ditu ipuinak, eta gatazka horrek zer-nolako eragina izan dezakeen talde baten bizikidetza-giroan. Gero, banaka, gela batera joan dira, eta kamera baten aurrean ipuinaren laburpena egin dute, 45 segundu baino gutxiagotan. Besteei ezin izan diete kontatu gela horretan zer gertatu den. Ez dakitena da ipuin beraren lau bertsio daudela: batean ez da ageri gatazka zein testuingurutan ematen den (urdinez); bigarrenean, gatazkaren jatorria ezkutatu da (gorriz); hirugarrenean, *etsaiaren* alderdi humanoa kendu da (berdez); eta azkena da ipuinaren bertsio osoa.

EMAGUZU GAUR EGUN HONETAKO OGIA

Iván Canet Moreno

Ogi asko neguko gauetan hazten da
Friedrich Wilhelm Weber

El Páramo (basamortua) esaten zioten, baina ez zen leku antzua, ez hotza, ez babesik gabea: aitzitik, esango nuke guztiz kontrakoa zela: bero itogarria zerion bizia zuten bazter eta pasabide guztiei, ernamuindu berri ziren fruituz beteriko gelei, biharko egunari beldurrez beteriko inguru guztiei, orainaldi nekagarri eta gogaikarriari... Cerrojos-ek Páramo esaten zion bere baitan, bere baitan baino ez; izan ere, bizilagunek ergeltzat izan zezaten ohituta zegoen neurri batean. Ergelari enbarazu gutxiago egiten zaio. Nork erreparatzen du ergel batengan? Barre egiten diote eta birrindu egiten dute zabaltzara igotzeko eskaileretako solasaldi inprobisatuetan; seinalatzen dute seinalatu ere egin gabe, begiak lurrera bideratuz eta bekaina leunki altxatuz; baina minutu gutxira existitzen denik ere ahaztu egiten zaie. Bufoirik existitzen ez den garai honetan, ergel batek noizean behin baino ez du hitz egin behar, eta Cerrojos-ek hain sakon aztertuta zeukan papera antzeztu besterik ez zuen egiten: txikitu egiten zen, isildu eta men egiten zuen, listua eta amorrua irentsita.

Cerrojos-ek Sole maitatzen zuen hasieran, eta gorrotatzera ere heldu zen azkenerako; bere histeria, bere negar lehorrak, bere nerbio-atakeak, bere existentzia hutsa gorroto zituen. Eguerdi hartan gehixeago gorroto izan zuen, ahal bada; ogiaren greba piztu zenean. Solek errazionatu nahi izan zuen, eta errazionamenduak (ez arrazoinamenduak) garai batean irakurritako paragrafo lausoak zekarzkion gogora; anaiarteko gerrak, asmo txarreko komunismoak, putzuaz bestaldeko iraultzak, urte txarrak, garai txarrak... Etxerik ez da ogi gabe irauten duenik. Ni naiz biziaren ogia, Nigana hurbiltzen dena ez da sekula gose izango.

– Ez dago ogia erosteko aurrekontu gehiagorik -esan eta kontua amaitutzat jo zuen.

– Orduan ez dut ogi gehiagorik jango -erantzun zuen Cerrojos-ek, kolpatze gorrez eta kolpe mutuez elikatutako harrotasun mindu izpi batez. Cerrojos-ek behar beharrezkoa baitzuen eguzkipeko minutu hura.

Cerrojos-ek ogi-otarra hartu zuen orduan, eta mahai erdira bota. Inguruan bildutako mahaikideek nork bere erreakzioa izan zuen: batzuek barre egin zioten ausardiari, beste batzuek, axolagabe, zopa xurgatzen jarraitu zuten. Solek xerrak batu zituen, bere tokian utzi eta otarra La Locaren aurrean utzi zuen. La Loca zen Páramo hartan zoratuta ez zegoen bakarra.

– Ogirik gabe, ez da otordurik. Momentu honetatik aurrera gose-grebari ekin diot -hala iragarri zuen.

Almadreñak isilpean aztertu zuen gertatutakoa, otorduetan ez baitzuen apenas hitzik egiten; eta ezer esaten zuenean, epaiak botatzera mugatzen zen. Azkenik, bere epaia eman zuen:

– Zeuen ideia horretan tematzen bazarete, dei batzuk egin beharko ditugu beharbada.

La Locak platera aldendu eta besoak gurutzatu zituen. Aurretik barrez zeudenek barre egiteari utzi zioten, zopa xurgatzen zebiltzanek bere horretan jarraitu zuten, axolagabe. Cerrojose-k La Locarekin bat egingo zukeen, baina sekulako gosea zeukan. La Loca eta Cerrojos, bata bestearen parean, isilik geratu ziren; bata ogirik gabe, bestea janaririk gabe. Eta mahaikideek bereari eutsi zioten.

Solek, aulkia arrastatuz, hots zalapartatsuarekin batera, bazkaria bukatutzat jo zuen eta gainontzekoek mahai-tresnak batzeari ekin zioten. Almadreña izan zen jantokitik ateratzen lehena.

– Brandy bat beharko du hemen gertatu denaren ostean -komentatu zuen batek.

– Batzuetan lotsagabeak zarete, gero! -erantzun zuen Solek, beti denetara adi.

Berak ere egin zuen alde berehala. Zergatik jakin gabe, gazte-errebeldia adierazpen hark bere seme nerabea ekarri zion gogora eta, nolabait, arreta nahikorik ematen ez ziola pentsatu zuen. Maite zuen, jakina; hartaz arduratzen zen, nola ez ba! Baina dibortziatu zenez geroztik, zera galdetzen zion bere buruari; gaurik gau etxean ez egoteak semearengan eragin negatiboa izango ote zuen, hazi eta pertsona arrotz bilakatuko ote zen. Solek ohe gainean erortzen utzi zuen gorputza eta arratsaldea ilundu arte egin zuen negar.

Almadreñak ez zuen haietako inor jasaten. Inor ez. Ez zekien nolatan heldu zen horrelako leku batera, Páramo zeritzon hartara. Berak, ordea, ez zuen horrela deitzen, berak ez zion inola ere deitzen eta. Edate kontuak noiz eta non ihes egin ote zion ere ez zekien. Orain haiek bazekiten. Eta auskalo zer gehiago jakingo zuten. Almadreñak bere burua aztertu zuen ispiluan. Ezin zuen etsi. Etsitzea ez zen beretzat aukera. Ez zegokion berari etsitzea.

Cerrojos eta La Locak azken mahai-oihala tolestu eta patiora irten ziren.

– Ogitarako ere ez dugu etxe honetan -esan zuen Cerrojos-ek.

– Hala da -erantzun zuen La Locak.

– Ez al zara gose? -galdetu zion mutilak.

– Uste dut ondo egongo naizela.

Cerrojos eskaileretan gora abiatu zen, josteko haria lurretik arrastaka zeramala, bizidun lurralde hura berreraikitzeko beharko baitzuen berriro ere. Mugimendu sismikoek mugak suntsitzen dituzte. Cerrojos-ek ideia bat izan zuen, barandara hurreratu eta kideari deitu zion.

– Ez kezkatu -esan zuen-. Gaur gauean ogia afalduko dugu.

Taldekide guztiek beren laburpena grabatu eta gero, bideo osoa proiektatu da. Orain, istorio beraren irakurketa batetik jaiotako bertsio desberdinak entzun eta gero, gai izango al dira memoria eta errelato partekatua ehuntzeko? Dinamika horrek bilatzen duena da bizitzea eta aztertzea nola eraikitzen den komunitate bateko Historia eta memoria soziala, eta agerian uztea errelato guztiak direla garrantzitsuak, prozesuak eratzerakoan.

Bizipen erabat nahasgarria izan da. Sentsazioa geneukan informazioa falta zitzaigula, baina ezin genuen asmatu zer. Bestalde, ezin genuenez elkarrekin komunikatu, ez eta besteekin irakurritakoa partekatu, are estugarriagoa zen. Banan-banan deitzen gintuzten, baina inork ez zekien zertarako. Eta kamera aurrean jartzen ginenean, ez genuenez ulertu irakurritakoa, ez ginen gai azaltzeko, edo nahastu egiten ginen, edo kontakizuna faltsutzen genuen (batzuetan, irakurritakoari koherentzia emateko kontuak ere asmatzen genituen).

Alabaina, banakako laburpenen bideoa ikusi eta gero, aldatu egiten da dinamikari buruzko ikuspegia. Zentzua hartzen du denak. Egiaztatzen dugu dinamikan bizi izandakoak kolokan jartzen duela itxura batean partekatua den gertaera berberaren gainean, norberak memoria eraikitzeko duen modua. Ikusten dugu ikuspuntu, errelato guztiak direla ezinbestekoak ipuina, Historia ulertzeko. Aho batez identifikatu ahal izan dugun bakarra izan da bizikidetza hondatzen duen gatazka bati buruzkoa dela ipuina. Gainerakoan, nork kontatzen duen, ipuina aldatu egiten da: testuinguruaren deskribapena, pertsonaia bakoitzaren izaera eta papera, harremanak, gatazkaren jatorria, amaieran zer gertatzen den... Erabat subjektiboa izan da narrazio bakoitza. Bakoitzari egokitu zaigun bertsioa desberdina izateaz gain, bakoitzak gure moduan ulertu dugu ipuina eta, beraz, irakurritakoaren interpretazio pertsonala egin dugu. Bakoitzak, ipuina zer begirekin ikusten duen, komunikatzeko zer-nolako trebetasun dituen, eta bertako konturen batekin zenbateraino identifikatzen den (bilbearekin, gatazkarekin, pertsonaiaren batekin, sentimenduren batekin, eta abar), horrela kontatzen die ipuina besteei. Horrexegatik, hain zuzen ere, oso bestelakoa da batzuek eta besteek ateratako irakaspena.

Dinamika egin eta gero, taldeak biribila osatu, eta honako lau pertsonaia ospetsu hauek gonbidatu dituzte parte hartzera:

IÑAKI GARCÍA ARRIZABALAGA

Komando Autonomo Antikapitalistek 1980an bahitu eta eraildako Juan Manuel García Corderoren semea. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Elkartearen sortzaileetako bat izan zen 1986an, eta Denon Artean - Paz y Reconciliación Elkartearena, 1991ean. Terrorismoaren biktima baten, eta Langraiz bidea hartutako ETAko preso baten arteko lehen topaketaren protagonista izan zen.

EIDER LANDABEREA

Historian doktorea Deustuko Unibertsitatean. Komunikazio graduan irakaslea da eta, aldi berean, ikertzaile lanetan dabil Euskal Herriko Historia Garaikide arloan. Azken urteotan, alderdi politiko nagusiek Trantsizioan izandako diskurtsoak aztertzen ibili da.

MANUEL MONTERO

Historia Garaikide katedraduna, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko dekanoa izan zen lehenengo (1997/00), eta EHUko errektorea gero (2000/04). Euskal Herriko historia garaikideari buruzko zenbait azterlan egin ditu (sintesi orokorrekoak, historia ekonomikoari buruzkoa eta Trantsizioaren historiari buruzkoak, besteak beste). *El Correo, El Diario Vasco* eta *Ideal* egunkarietan idatzi ohi du.

JOSÉ ANTONIO PÉREZ PÉREZ

Historia Garaikidean doktorea EHUn, eta Valentín de Foronda Gizarte-historia Institutuko ikertzailea. Gaur egun, 1960 eta 1978 artean emandako polizia gehiegikeriak aztertu eta aitortzen dituen Eusko Jaurlaritzaren batzordeko kide da. Bere liburu aipagarrienen artean daude *Los años del acero* (2001) eta *El peso de la memoria* (2015).

Mahai-inguru batean erabiliko litzatekeen metodologian ez bezala, kasu honetan, solasaldiari ekiteko, gonbidatu bakoitza aurkeztu, eta eskatu zaie jorratuko duten gaiaren laburpen bat egin dezatela. Horren helburua da Historiaren eta memoria sozialaren arteko harremanaz hausnartzea; biktimek balizko prozesuetan izan dezaketen protagonismoaz; errelato partekatua eraikitzearen argi-ilunez; eta ideologia politiko bakoitzak lengoaia eta kontzeptu jakin batzuk nola darabiltzan. Gero, gazteek galderak egin dizkiete eta beren gogoetak helarazi dizkiete.

Hona hemen **Bakehizketak** jardunaldien lehen saiotik ondorioztatutakoak:

Hauxe da, hain zuzen ere, eremu publiko eta pribatuko gai gatazkatsuenetako bat. Eta, gure ustez, bi arrazoirengatik da. Alde batetik, gizartearen zati batentzat (eta, beraz, gazteriaren parte batentzat ere bai), iragana itxi gabe dagoelako: ez dago denborak eta emozioek ematen duten perspektibarik, orainaldi sorra baizik (non, oraindik ere, sufrimendua dagoen, eta borroka egin behar den egia, justizia eta erreparazio eskubideak aitortuak izan daitezen). Zentzu horretan, eta salbuespenak salbu, badakigu terrorismoak eta indarkeria politikoak sufrimendu eskerga eragin dutela hamarkadetan zehar, baina harritu egiten gaitu sektore ideologiko eta gatazkaren parte diren eragile batzuek (ezker abertzaleak eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek, adibidez) autokritika egiteko eta iraganean gertatutakoagatik dagokien erantzukizuna beren gain hartzeko erakutsitako ezintasuna. Kezkatu egiten gaitu kontuak, eremu publikoan autokritika egiteak eta erantzukizunak bereganatzeak eragina izango lukeelako Historia idazten, irakurtzen, interpretatzen eta zabaltzen dutenengan, eta horrek, aldi berean, eragina izango lukeelako gizarte gisa eraikitzen dugun memorian. Beste alde batetik, uste dugu gaia korapilatsua dela, sarriegi ikusi dugulako alderdi batzuek biktimak eta presoen kolektiboa erabili dituztela gizartean onarpen handiagoa lortzeko, politikan gora egiteko edo arerioari kalte egiteko. Gizartea eta hautesleak emozionalki erabili dituzte.

Biktimek Historia eta gizartearen memoria eraikitzean duten paperaz aritzeaz gain, prozesuen bateragarritasunaz ere hitz egin dute gonbidatu ospetsuek. Hori dela eta, tarteka, iruditu zaigu gutxieneko maila akademikoa eskatzen zuela solasaldiak: zaila egin zaigu parte hartzea. Hala ere, genituen zalantzak argitzeko balio izan digu saioak, eta sentitzeko guk ere errelatoa (partekatua ala ez) eraikitzen lagundu ahal dugula, eta halaxe egin behar dugula. Gure bizipenek, prozesu honen parte garela sentiarazten digute. Gizarte honen parte gara, zor zaigun aitortza, sarri, sentitzen ez badugu ere: beste talde bat gara, eta esateko daukaguna aditu behar dute. Horren harira, geure buruari galdetzen diogu ea zer egin dezakegun, zein tresna erabil ditzakegun pairatutako isiltasunak eta absentziak (belaunaldiarteko etena) gainditzeko. Gure ustez, hala egiteak aukera emango digu gazteen artean ere motibazioa eta grina pizteko.

> Iragana ezagutu, eta belaunaldiarteko isiltasuna gainditzeko, gure ingurukoei gai horiei buruz galdetzeko lotsa eta beldurra ere gainditu behar ditugu

Oso interesgarria egiten zaigu, era berean, lengoaiaren manipulazioaren kontua: sektore ideologiko desberdinek erabilitako kontzeptuen inguruko gogoeta partekatua egitea, hausnartzea ea zein den jokamolde horren helburua (agerikoa zein ezkutua). Egia da, ordea, gonbidatuen artean ez dela eztabaida ideologiko sakonik eman; adostasuna gailendu da, guztiek antzeko diskurtsoa zerabilten eta. Pentsatzen jarrita, logikoa da hala gertatu izana: unibertsitate, irakaskuntza eta ikerketa historikotik datoz guztiak.

Gazte taldea **Bakehizketak** barnetegiko lehenengo saioko gonbidatuekin solasean: **Errelatoa eta oroimena: Historiaren alde, ala kontra?**

Elkarrekin emandako lehen gaua eta gero, bigarren zatiarekin hasi da larunbata: **Berdinak al dira emakumeak eta gizonak gatazka baten eta bere eraginen aurrean?** Gaiari heltzeko, lehenik eta behin, dinamika bat abiarazi dute eta, horretarako, lau taldetan banatu dira. Talde bakoitzak kartoi mehe bat izan du. Bertan, izenburu bat, profil jakin bat, eta txotxongilo baten irudia. Helburua da gogoeta egitea honako profil hau dutenek izan ditzaketen pentsamenduen inguruan (txotxongiloaren buruan idatzita daude), emozioen inguruan (bihotzean ditu), portaeren inguruan (gorputz-adarretan idatziak) eta aurrejuzguen inguruan (kanpoaldean daude): 'indarkeria pairatzen duen emakumea'; 'indarkeria darabilen emakumea'; 'indarkeria pairatzen duen gizona'; 'indarkeria darabilen gizona'.





INDARKERIA DARABILEN EMAKUMEA

Amorrua, Gorrotoa, Frustrazioa, Mina, Gutxiespena, Jelosia, Menpekotasuna.

Mendekua, Nagusitasuna-Gutxiagotasuna, Bereizketa, Desabantaila soziala, Autodefentsa, Maitasuna?, Justizia?

Agresibitatea, Enpatia eza, Umiliagarri, Autoritarioa, Kalkulatzaile, Hotza.

Biktimadun kondizioa saihesteko erreakzioa, Garrantzia kendu, Ulertezintasun, Morboa, Onarpena.

INDARKERIA DARABILEN GIZONA



Bakardadea, Erasota, Frustratua, Abandonatua, Gutxietsia, Erreakzioa.

Izorratu daitezela, merezia zuten, Bilatu egin dute, Erantzun egin nuen, Ez nuen beste aukerarik izan, Arrazoia daukat, Defendatu egin naiz.

Indartsuarena egin, Etsaitasuna, Haserrekortasuna, Defentsarik onena eraso on bat da, Ekin, Zentzuzkoa dela itxuratu, Hoztasuna.

Erasotzailea, Gutxietsita, Zenbat pertsona gehiago minduko zituen... Ez da inoiz aldatuko, Ez du inoiz bigarren aukera bat edukiko, Nahastea, Pertsona arrunta dela itxura dezake, Bere kabuzko justizia.

Dinamika egin eta gero, taldeak biribila osatu, eta honako lau pertsona ezagun hauek gonbidatu dituzte parte hartzera:

AINHOA AZNÁREZ

Magisteritza ikasi zuen. Feminismoan aditua, trebatua da ere bake eta garapenerako lankidetza-prozesuei genero-ikuspegitik heltzen. Ahotsak proiektuko kidea izan zen eta, gaur egun, Nafarroako Legebiltzarreko burua da.

RITXAR BACETE

Aita da. Hori da, hain zuzen ere, bere nortasunaren ardatzetako bat, pertsonalki zein profesionalki. Gizartelana, Antropologia, Ekonomia Aplikatua, Feminismoa eta Coaching ikasi du zaletasunagatik, eta zenbait lanbidetan aritu da bokazioagatik, besteak beste, Emakunderen (Eusko Jaurlaritza) Gizonduz zerbitzuan.

IDURRE ESKISABEL

Urteetan zehar *Euskaldunon Egunkarian* kazetari lanak egin eta gero, Audientzia Nazionalak hura itxi ostean *Berrian* aritu da. Gaur egun EHUko irakaslea da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, eta tesia egiten dabil; besteak beste, ikertzen ari da nazionalismoek nola irudikatzen zituzten generoak.

ZURIÑE RODRÍGUEZ LARA

Feminista. Gaur egun ikertzaile eta irakasle dabil EHUn, Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Bere tesian aztertzen ditu emakumeek gatazka armatuetan parte hartzeko izandako oztopoak, eta horien aurrean garatutako estrategiak. Zehazkiago, ETAn aritu izandako emakumeen kasua aztertzen du.

Aurreko saioan egin bezalaxe, solasaldiari hasiera eman aurretik gonbidatu bakoitza aurkeztu, eta eskatu zaie labur-labur azaltzeko zer gairi buruz ariko diren. Xedea: generoaren ikuspegitik hausnartzea euskal gatazkak izandako ondorioen gainean, non biktima zuzen eta zeharkako gehienak gizonak diren. Gero, gazteek galderak egin dizkiete eta beren gogoetak helarazi dizkiete.

Hona hemen **Bakehizketak** jardunaldien bigarren saiotik ondorioztatutakoak:

Oso gai berezi eta berritzailea iruditu zaigu. Hezkuntzan, komunikabideetan eta erakundeetan oso gutxitan heltzen diote. Kontu delikatua ere bada, eta, sarriegi, feminismoari buruzko eztabaida bilakatzen da. Feminismoari buruzko eztabaida horretan, gainera, emakumeek eta beren sentipen eta bizipenak baino ez dira aintzat hartzen. Hori dela eta, zaila egin zaigu parte hartzea. Alabaina, gonbidatuetako bat gizona zen, eta horrek lagundu du elkarrizketa esku artean geneukan gaira berriro ekartzen: emakumeen eta gizonen artean ematen diren desberdintasunak gatazka baten eta horren eraginen aurrean.

Gure ustez indarkeria existitzen da, eta beti existituko da: giza izaeraren parte da, emakumeena eta gizonena. Hori bai: gure sexua zein den, indarkeria hori modu batean ala bestean pairatzen eta egikaritzen irakatsi digute. Gizonen kasuan, batez ere, beren nortasuna eraikitzeko prozesua oso lotuta dago indarkeria erakustaldiekin eta indarkeria egikaritzearekin. Horregatik, hain zuzen ere, erronka da indarkeria hori neutralizatzen ikastea, indarkeria horri zilegitasunik ez ematea, eta berau ez transmititzea. Indarkeria eragiten duten faktoreak antzematen baditugu, eta hausnartzen badugu indarkeria pairatzeak eta eragiteak nola sentiarazten gaituen (bai gizaki gisa, bai genero ikuspegitik), aukera izango dugu indarkeria horrek gainezka ez dezan, kontrolpean egon dadin.

> Gure sexua zein den, indarkeria modu batean ala bestean sufritzen eta egikaritzen irakatsi digute

Ordea, gure ustez, gatazka guztietan ez da indarkeria agertzen. Gatazkak ere betidanik existitu dira, eta beti existituko dira. Aurrean dugun erronka da gatazka horiek kudeatzen ikastea, eragiten diguten dimentsioetan: eremu intimoan; identitateari dagokionean; gradu desberdinetako harreman pertsonaletan (familia, lagunartea, bikotekoa); komunitate txikietan (eskola, auzoa); gizarte eta kultura mailan; edota eremu publikoan (politika, komunikabideak, erakundeak). Zoritxarrez, gure gatazkan indarkeria mota asko egon dira, eta indarkeria horiek bizitzaren dimentsio guztiak baldintzatu dituzte. Gizonak izan dira protagonistak biktimen eta biktimagileen alorrean; emakumeak, artean, beste modu batean tratatuak izan dira, eta agian, batzuetan, bigarren plano bidegabe eta onartezin batean geratu dira. Hori guztia lotzen dugu jaio, hazi eta harremanak garatu ditugun hezkuntza-, kultura- eta gizarte-ereduekin. Horrek are larriago egin ditu emakumeen eta gizonen arteko harremanetan zeuden desorekak. Beraz, hausnartu behar dugu ea zein izan diren gure rolak eta erantzukizunak emakume zein gizon gisa, bai iraganean, bai gaur egun, aintzat hartuta etorkizun baketsu, komun eta parekidea eraiki behar dugula guztion artean.

Gazte taldea **Bakehizketak** barnetegiko bigarren saioko gonbidatuekin solasean: **Berdinak al dira emakumeak eta gizonak gatazka baten eta bere eraginen aurrean?**

Bazkalostean hirugarren zatiari ekin diote: **Presoen barne-prozesuak: Nola kudeatu emozioak eta kontraesanak?** Bazkaldu baino lehen, pertsona bat preso eta libre zerk egiten duen hausnartzeko dinamika egin nahi zuten, eta egindako delituaganako hautematea aldarazi dezaketen faktore eta arrazoiei buruzkoa ere bai. Bigarren saio aztoratua eta gero, ordea, gonbidatuen aurrean nola erantzun duten hausnartzeko erabili du taldeak tarte hori. Ahalduntzeko aholkatu diote elkarri, eta are gehiago parte hartzeko hurrengo hitzaldietan, batez ere, ados ez dauden diskurtsoetan.

Hirugarren saiora honako lau pertsona ezagun hauek gonbidatu dituzte:

MAIXABEL LASA

Juan Mari Jauregi sozialistaren alarguna. Gipuzkoako azken gobernadore zibila izan zen Jauregi, eta ETAk erail zuen 2000. urtean. Lasa, bere aldetik, Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimen Zuzendaritzako buru izan zen 2001etik 2012ra bitartean. Hainbat ekimenetan parte hartu du (eta parte hartzen jarraitzen du), besteak beste, Langraiz Bidearen inguruan antolatutako topaketa leheneratzaileetan.

JESÚS LOZA

Kargu ugari izan ditu: Gizarte Ongizateko diputatua izan zen Araban (1987/97), eta Gizarte Gaietarako kontseilariordea Eusko Jaurlaritzan. Eusko Legebiltzarreko kidea izan zen 2001etik 2012ra, eta Patxi López lehendakari izan zenean, Bizikidetzarako haren ordezkaria izan zen (Langraiz Bidearen Euskadiko koordinatzaile lanak egin zituen 2009 eta 2012 artean).

ALBERTO OLALDE

Gizarte Bitartekaritzan eta esku-hartzean doktore, EHUren Gizarte-laneko Unibertsitate Eskolan irakasle aritu aurretik, bitartekaritzari eta gatazkak eraldatzeari lotutako enpresa bi sortu zituen. Eusko Jaurlaritzan familia- eta zigor-arloetako bitartekaria ere izan da. Bitartekari aritu zen, era beran, Langraiz Bidearen topaketa leheneratzaileetan.

IÑAKI REKARTE

ETAn sartu zen 18 urte bete eta berehala. 20 urte zituenean espetxeratu zuten, eta 203 urteko zigorra ezarri zioten hiru pertsona erail, eta beste hogei zauritzeagatik, 1992an, Santanderren, bonba-auto batekin. 2014an espetxetik irten zen. Langraiz Bidearekin bat egin zuen lehenengoa izan zen. ETAko preso disidenteei zuzendutako programa horren baitan (biktimekin topaketak aurreikusten dira).

Aurreko saioetan egin bezalaxe, solasaldiari hasiera eman aurretik gonbidatu bakoitza aurkeztu, eta eskatu zaie labur-labur azaltzeko zer gairi buruz ariko diren. Oraingo honetan, helburua da hausnartzea zelan heltzen den bizitzarako eskubidea bortxatzera edota bortxaketa hori bidezkotzera, eta zer-nolakoa den damuranzko prozesua –zehazkiago, hain konplexua den bizitza-prozesu horretan zein emozio eta kontraesan ematen diren–. Gero, gazteek galderak egin dizkiete eta beren gogoetak helarazi dizkiete.

Hona hemen **Bakehizketak** jardunaldien hirugarren saiotik ondorioztatutakoak:

Gure ustez, solasaldi honetan ezin hobeto uztartu dira gonbidatuen ikuspegiak eta bertsioak: Langraiz Bidearen protagonista izandako horien barnea ezagutzeko aukera izan dugu. Are gehiago: haien testigantzak entzun eta gero, pena ematen digu Espainiako Gobernuak ekimena gelditu izana.

Hauxe izan da saio honetan (eta asteburu osoan zehar) gehien agertu den galderetako bat: "zergatik gizarteak utzi du iraganean gertatutako guztia gerta zedila?". Gure aburuz, gertatutakoa oso larria da, ezin dugu erlatibizatu. Ulertzen dugu testuinguruak hala behartuta mantentzen zituztela jarrera eta diskurtso batzuk mutur biek –etika urriko eta enpatiarik gabeko diskurtsoak, hain zuzen

ere–. Baina nekez uler dezakegu hainbesteko indarkeriaren eta nahita eragindako sufrimenduaren aurrean gizartea geldi geratzea. Hori esanda, uste dugu gizartea bera zela arrazoi gorena ETAren argudioen zilegitasuna minimizatzeko eta erakunde armatuak beldur kolektiboaren gain zeukan boterea gutxitzeko.

> Bigarren aukeretan sinesten dut, baldin eta nahita eragindako sufrimendua aitortzen bada

Elkarrizketa honetan aukera izan dugu bizipen zirraragarriak bertatik bertara ezagutzeko, gure historia eta memoria partekatuaren iragan eta orainaldiari lotutako bizipenak, hain zuzen ere. Horren eraginez, desmuntatu egin dira gure aurrejuzguak, humanizatu egin dugu gertatutakoa eta protagonistak (hau da, biktimak eta biktimagileak, batez ere). Gehien penatzen gaituena da gutxi batzuk baino ez direla izan adoretu, nahita eragindako sufrimenduagatiko erantzukizuna beren gain hartu, eta hura konpontzeko erabakia hartu duten presoak. Ez dakigu non dauden, zer sentitzen duten eta zer pentsatzen duten oraindik (?) ausartzen ez diren horiek. Ezinbestekotzat jotzen dugu ETAko kide izan zirenen (edo direnen) eta haien ingurukoen errelatoak ere entzutea. Damututa egon ala ez. Finean, haietako bakoitzak –presoen kolektiboan egon ala ez–, bilakaera pertsonala izango zuen (bakarra, norberak berea), sakonagoa ala azalekoagoa, eta, ikuspuntu horretatik, beste modu batean ikusiko dute egin, bidezkotu eta defendatu zuten huraxe; beste gogoeta batzuk izango dituzte.

Eta hori da, izan ere, gaur egun lantzeke daukagun beste gaietako bat. Uste dugu ez dela beharrezkoa presoak urruntzea, eta espetxeetan dauden askoren egoera berrikusi egin behar dela. Elkarri gonbita egin diogu gai biren inguruan gogoeta egiteko. Lehenengoa, preso daudenen senideen biktima-izaera. Ados gaude esatean espetxe-politikak beharrik gabe areagotu duela presoen eta haien ingurukoen sufrimendua (presoak urruntzea; sakabanatzea; bisitak edo baimenak ezustean baliogabetzea; eta abar). Horrek ere aitorpena eta berrikustea eskatzen du. Hori bai: uste dugu presoen kolektiboak berak hausnartu beharko lukeela ETAko kide izateak zer ekarri dien urte hauetan guztietan zehar beren senitartekoei. Bigarrena, biktimagile gehienek barkamena eskatzeko erakutsitako ezintasuna, hau da, egin zutena txarto egon zela eta beste familia batzuei beharrik gabeko sufrimendua eragin zietela ulertzeko (eta horrekin kontsekuente jokatzeko) ezintasuna. Uste dugu hala jokatzen dutela, oro har, uste dutelako barkamenak beren sektorearen ibilbide politikoa baliogabetuko lukeela, ibilbide hori zilegitasunik gabe utziko lukeela. Gertatutako guztiaren ondoren, ez al dugu ikasi oraindik pertsonak ideologiak baino garrantzitsuagoak direla?

Gazte taldea **Bakehizketak** barnetegiko hirugarren saioko gonbidatuekin solasean: **Presoen barne-prozesuak: Nola kudeatu emozioak eta kontraesanak?**

Larunbata amaitzeko, laugarren zatiari heldu diote: **Komunikabideen erronka, iraganaren eta etorkizunaren arteko giltzarria.** Gaiari heltzeko, lehenik eta behin, dinamika bat egin dute: gatazkaren ia bost hamarkadei lotutako berriak, iritzi-artikuluak eta erreportajeak jarri dira taldearen esku*. Gero, eskatu zaie saiatzeko honako galdera hauei erantzuten: zergatik hautatu duzu berri/artikulu/erreportaje hori? Zeri buruzkoa da? Zelan islatu du berria idazleak? Zer egin du hoberen, eta zer txarren?

Zenbait arrazoik bultzatzen gaituzte kazetaritza-testu bat hautatzeko, beste baten gainetik. Gehienetan, gaiaren irizpideari jarraitzen diogu: gure interesekoa delako, ezohikoa delako, gertaerarekin edo bere protagonistekin identifikatzen garelako, eta abar. Baina izan liteke testu bat hautatzea idatzi duena miresten dugulako, gogora ekartzen digulako jasotzen duen gertaerak gugan izandako eragina, titularrak edo argazkiak zirrara sorrarazten digulako, edota luzapenagatik.

* Tokiko, Autonomia Erkidegoko eta Estatuko idatzizko komunikabideetatik atera da materiala. Ildo editorial desberdinak (are kontrajarriak ere) dituzte komunikabideok. Batzuk, gainera, desagertu egin dira jada (zenbait arrazoi tarteko).

Hautatu ditugun testuek, gehienbat, oraindik dirauen iraganaren gairen baten irakurketa egiten dute, orainaldiaren ikuspegitik; edota ageriko eraginak oraindik ere bistakoak dituzten kontuak jorratzen dituzte. Adibidez, ETAren amaiera eskatzen zuten gizarte-mugimendu desagertuak; argitu gabeko erailketak; gatazkaren parte diren eragileek Aieteko Adierazpenaren ostean izandako bilakaera; estortsioen ondorio ekonomikoak; Espainian preso daudenen senideek kartzeletara egindako bidaiak; autokritika, komunikabideek iraganean informazio- eta komunikazio-zeregina nola egiten zuten; eta abar. Horrez gain, urte lazgarri eta biolentoenetan idatzitako testu batzuk ere hautatu ditugu, hain zuzen ere, norbanakoengan zein gizartean, zuzenean edota zeharka, eragin handia izandako gertaerak hizpide dituztenak. Hurrenkera kronologikoari jarraituta: Sarrionandiaren ihesaldia; María Dolores González Catarain "Yoyes"en erailketa; Fernando Buesaren aurkako atentatua; Ernest Lluchen erailketa; Berriaren lehen alea; eta "Antza" eta "Anboto" ETAko kide historikoen aurkako epaiketa Parisen. Eta azkenik, salbuespenez, kazetaritza-testuak izan arren, zama humano handia duten testuak hautatu ditugu. Kasu honetan nabarmendu egin dira ETAtik irtendako presoei buruzko testuak (Iñaki Rekarte edo Joseba Urrusolo Sistiagari buruzkoak, esaterako), edota terrorismoa eta indarkeria politikoa Euskadin pil-pilean zeuden hamarkadetan izandako istorio anonimoak.

"Dos mujeres contra el odio"
El País - 2007/02/11

"Gure marra gorriak dira engaiatu ginen borrokari bizkar ematea, damutzea eta salaketa"
Argia – 2015/06/30

"Se fugan de Martutene Pikabea y Sarrionaindia"
Egin – 1985/07/08

"Veinticinco años del atentado de Hipercor, la mayor masacre de ETA"
Libertad Digital - 2012/06/19

"ETA mata en Gasteiz al dirigente del PSE Fernando Buesa y a su escolta"
Gara - 2000/02/23

"A la abogada del colectivo de presos"
El Correo – 2014/12/08

Kazetaritza-lana baloratzen jarriz gero, uste dugu aztertutako datuek badituztela agerian utzi beharreko kontuak: kasu batzuetan, berriek/erreportajeek/artikuluek gaia egokiro jorratu dutelako; beste kasu batzuetan, berriz, guztiz kontrakoagatik. Kazetaritza-testu batean positiboki baloratzen ditugu, adibidez, honako hauek: jorratutako gai edo gertaerari buruzko ideia ahalik eta osoena egitea ahalbidetuko digun informazio xehatua ematea; komunikabidearen ildo editoriala gainditu, eta agerian uztea posible dela objektibotasuna gordetzea gaiak lantzerakoan; egitateak aseptikoki aztertzea, sentsazionalismoa eta morboa alde batera utzita; jarduera eta diskurtso jakin batzuk kritikatzea, testua idatzia izan den testuinguruaren presioaren gainetik; eta ohikoak ez diren ikuspuntuak eskaintzea.

Beste aldean, honako hauek dira, gure ustez, kazetaritza lanetan dabiltzanek egin behar ez lituzketenak: pertsonen giza eskubideen aurkako jarduerak minimizatzen, desdramatizatzen eta erlatibizatzen saiatzea; jendea

xaxatzea erantzun biolentoak izateko; bidegabea dena bidezkotzea; giza eskubideen bortxaketa pairatu dutenak deshumanizatzea; berriaren indarra ezkutatzea bigarren mailakoa edo garrantzitsua ez den informazio artean; gai edo gertaera beraren parte diren alderdien erantzunak, adierazpenak edo jarrerak isilean gordetzea; eta iritziak ematea informazio-testuetan.

Dinamika egin eta gero, taldeak biribila osatu, eta honako lau pertsona ezagun hauek gonbidatu dituzte parte hartzera:

AITOR GUENAGA

1985etik ari da kazetaritza-lana egiten Euskadiko eta Espainiako komunikabide publiko eta pribatu nagusietan. *El País* egunkarian aritu da batez ere (1989-2009), Madrilen eta Euskadin. Gaur egun *eldiarionorte* zuzentzen du (*eldiario.esen* parte da).

ARANTXA MANTEROLA

Eginen herriz herriko edizioetan aritu zen, 1998an itxi zuten arte. Frantzian bizi izan da hamabi urtez eta, hori dela eta, Iparraldearekin zerikusia duten gaiei buruz idazten du *Gara* egunkarian, 2003az geroztik. Politikari, gizarteari eta ekonomiari buruz idazten du, batez ere. Horrez gain, laguntzaile gisa aritzen da *Kazeta.infon* eta *Mediabask.eusen*

LOURDES PÉREZ REBOLLAR

Antena 3 Radion, SERen eta EITBn praktikak egin eta gero, *El Correon* hasi zen 1995ean. Hamarkada bat eman zuen han, politikari, terrorismoari eta epaitegiei buruzko informazioa jorratzen. 2006 amaieran Vocentoko Eskualdeetako Egunkarien Iritzi Ataleko buru izendatu zuten. Egoitza Madrilen du Vocento taldeak. 2010etik, gainera, *El Diario Vascoko* erredakzioburua da.

MIKEL URRETABIZKAIA

Kazetaritzan doktorea, *Egin* egunkarian ekin zion ibilbide profesionalari, eta hiru urte eman zituen han. Parte hartu zuen, era berean, Euskal Telebistaren hastapenetan, eta, ordutik, han jarraitzen du lanean: albistegietako buru izan zen 1995 eta 2000 bitartean; duela hamar urtetik, berriz, ETBren Programazio Atalean dago. Esandakoaz gain, Deustuko Unibertsitatean irakaslea da.

Aurreko saioetan egin bezalaxe, solasaldiari hasiera eman aurretik gonbidatu bakoitza aurkeztu, eta eskatu zaie labur-labur azaltzeko zer gairi buruz ariko diren. Oraingoan, helburua da hausnartzea komunikabideek, iraganean, gazteen iruditeria eta diskurtsoak eraikitzean izandako eraginaz, gaur egungo komunikabideen egoeraz, eta etorkizunera begira dauden itxaropenez. Gero, gazteek galderak egin dizkiete eta beren gogoetak helarazi dizkiete.

Hona hemen **Bakehizketak** jardunaldien laugarren saiotik ondorioztatutakoak:

Uste dugu kazetaritzaren kalitatea eta zehaztasuna ezin daitekeela testuinguruaren mende egon. Gure kasuan, bai iraganean, bai gaur egun, kazetaritza-jarduna baldintzatu duten eta baldintzatzen jarraitzen duten faktoreak daude (mehatxuen eta indarkeriaren presentzia etengabea; adierazpen askatasun falta; mendekotasun ekonomikoa; eta abar). Ondorioz, gure ustez, horrek eragina izan du komunikabideek informazioari emandako tratamenduan, eta gaur egun ematen diotenean ere bai. Eragina du, halaber, komunikatzeko moduei jartzen dieten arretan. Diskurtsoak eta errealitateak eraikitzen dituzten neurrian, ez al dira jabetzen iraganean eta orainaldian gertatutakoaren gainean dagokien erantzukizunaz? Ulertzen dugu presioa, beldurra eta sufrimendua izan direla, hainbat urtean zehar, kazetaritzan ari direnen eguneroko ogia. Ordea, horrek ez du azaltzen kode deontologikoa betetzeari eta errespetatzeari buruzko autokritika egitera ausartzen diren kazetariak bakan batzuk baino ez izatea (bai iraganean, bai orainaldian).

Iruditzen zaigu iraganean oso definituta eta polarizatuta zeudela Euskadin zeuden komunikabideen ildo editorialak (politikariak eta gizartea bera bezalaxe). Horren harira, ez zitzaigun zaila egiten identifikatzea komunikabide bakoitzak zein ideologia eta gizarte-espektro babesten eta erasotzen zuen. Aldez aurretik genekien informazioa alderdikoia eta partziala izango zela. Hala egiaztatzen zuten komunikabide bakoitzak erabilitako hizkuntza-kodeek, eta informazio bakoitzari emandako garrantziak (ikusgarri ala ikusezin egin).

> Berria irakurri aurretik, bagenekien informazioa alderdikoia eta partziala izango zela

Guk geuk ere, oso gutxitan erkatu dugu informazioa, errealitatearen gure ikuspegiarekin bat ez zetozen komunikabideetatik kanpo. Horren eraginez, sarri, gure jarrerak berretsi egiten genituen. Hala ere, komunikabideek gai batzuk nola jorratzen zituzten ikusita, zalantzak eta kontraesanak ere sortzen zitzaizkigun. Hori bai: kosta egiten zitzaigun zalantza eta kontraesan horiek partekatzea, isilarazitako inguruneetan, ingurune isiletan, bizi ginelako. Beraz, saioak lagundu digu gure pentsamoldea eta errealitatearen hautematea heterogeneoagoa eta inklusiboagoa egiten.

Gaur egun, oraindik ere, ikusten dugu komunikabide batzuek oso aurrerabide txikia egin dutela iraganetik gaur egunera arte. Areago: gizartea zatitzeko saiakeran tematuta jarraitzen dute batzuek. Ez dugu ulertzen zer onura ateratzen dioten aurkarien arteko desberdintasunak, tentsio-puntuak, eta bizikidetzari lotutako egoera eta gertakari delikatuenak bakarrik islatzen dituzten berriak zabaltzeari, gizartea jarrerak hurbiltzeko eta elkar ulertzeko lanean

ari den garai honetan. Horren aurrean, zorrotz jokatu behar dugu: komunikabideei doitasuna eta zintzotasuna eskatu behar dizkiegu. Gutxienekoen akordio bat, edo partekatutako gako batzuk, akaso?

Zehazkiago, gustatuko litzaiguke komunikabideek gehiago ez kriminalizatzea gazteen militantzia politikoa; zilegitasuna kentzea gorrototik jaiotako diskurtsoei; gizartea berriro eraikitzeko lanetan diharduten norbanako eta kolektiboak gehiago goraipatzea. Eta, batez ere, nahi genuke komunikabideek ikusgarritasun handiagoa ematea gai horiei buruz uste dugunari, eta bakearen eta bizikidetzaren alde egiten ari garen lanaren berri zabaltzea.

> Komunikabideek ikusgarritasun handiagoa eman beharko liokete gai horiei buruz pentsatzen dugunari, eta bakearen eta bizikidetzaren alde egiten dugun lanari

Gazte taldea **Bakehizketak** barnetegiko laugarren saioko gonbidatuekin solasean: **Komunikabideen erronka, iraganaren eta etorkizunaren arteko giltzarria.**

Elkarrekin emandako bigarren gaua eta gero, igandean azken zatiari ekin diote: **Hezkuntza eta kultura: etorkizun baketsurako hegoak.** Gaiari heltzeko, lehenik eta behin, dinamika bat abiarazi dute eta, horretarako, sei taldetan banatu dira. Hirukote bakoitzari adierazpen bat banatu diote, egilea nor den esan gabe. Gaia berbera da guztietan: nola hezi etorkizuneko belaunaldiak gatazkan eta bizikidetzan*. Helburua zera da: ados ez dauden hitz edo esaldiak aldatzea, eta adierazpenak eragin dizkien galderak apuntatzea. Gero, galderak besteekin partekatu dituzte. Saiatu dira, era berean, adierazpena nork egin duen asmatzen**.

JATORRIZKO ADIERAZPENA

Alabei behin eta berriro errepikatu diet, atentatu, ekintza biolento edo manifestazio bat zegoen bakoitzean, ez dagoela ekintza biolento bat merezi duen ideiarik, xederik, helbururik. Abertzalea naizen aldetik, gainera, beti azpimarratu diet inongo aberrik ez duela merezi haren izenean inor hiltzerik. Eta gure aberria, Euskadi, bateraezina da hil dutenen aberriarekin.

ANDONI ORTUZAR - EBB-REN BURUA (EAJ-PNV)

Nik beti hitz egin dut nire seme-alabekin nire jarduera politikoaz eta Euskadin gertatzen diren gauzez; bai orain, bai lehen, jendea hiltzen zutenean. Eta saiatu naiz azaltzen beren egunerokotasunean, eta nork bere ideiak defendatzeko, ez dela sekula beharrezkoa indarkeria erabiltzea. Azaldu diet Euskadin ez zela inoiz arrazoirik egon hiltzeko, ezta proiektu politiko batengatik ere. Eta ez zegoela terrorismoarekin amaitzeko ekintza biolentoak bidezkotzerik. Eta ez dela zuzena indarkeria edo bide biolentoak erabiltzea polizia-jardueretan edo dena delakoetan. Beti saiatu naiz transmititzen hitz eginda edozein ideia defenda daitekeela; erabakiak ala desadostasunak sortuko direla, baina bizikidetza

GALDERAK

Zer da nazionalismoa zuretzat?

Bete-betean esan al daiteke inongo helburuk ez dituela ekintza biolentoak bidezko egiten? Baita gaur egungo testuinguruan ere?

Bateraezinak al dira gure aberria eta hil duten pertsonak?

Zein borroka mota?

Zer da zuretzat askatasuna?

* ETAren behin betiko su-etenaren urteurrenaren kariaz www.diariovasco.comen paperezko edizioan argitaratutako erreportaje baterako argitaratutako bideo batetik atera ziren adierazpenak. Honako lotura honetan dago ikusgai: http://www.diariovasco.com/politica/201510/18/convivencia-nuestros-hijos-20151018015125-v.html.

** Ez dira adierazpen aldatuak jaso, gazteek egindako aldaketa txikiek ez dutelako jatorrizko mezuaren zentzua baldintzatzen.

JATORRIZKO ADIERAZPENA

errespetutik eraiki behar dugula; eta beti errespetatu behar ditugula besteen ideiak. Etxean beti errespetatu ditugu ideia guztiak: ez dizkiet sekula sustatu ideia nazionalistak edo ez-nazionalistak. Askatasun osa ematen diet, haiek, guztia aditu eta ikusi eta gero, erabaki dezaten. Nire ustez, hori da onena denontzat, ezta?

IDOIA MENDIA - PSE-EE-KO IDAZKARI NAGUSIA

Alabei kontatuko diet konpromiso politikoa izan zela ama eta ni eraman gintuena gure herriaren askatasuna lortzeko lan egitera; eta, 175 urte eta gero, haiek direla herri honetan beste baldintza batzuetan gozatzeko, lan egiteko eta bizitzeko aukera duten lehen belaunaldia. Gustatuko litzaidake haiek pentsatzea guk egindako guztia egin genuela une hori posible egiteko, haiek bakean, askatasunean bizi ahal izateko eta pertsona libre gisa bizi ahal izateko Euskal Herri libre batean.

HASIER ARRAIZ - EH BILDU-REN BOZERAMAILEA

Seme-alabei, nagusiak direnean, ulertzeko gai direnean, kontatuko diet Euskadin talde terrorista bat egon zela, indarkeriaren bitartez haren pentsamoldea inposatu nahi izan zuena. Eta, batez ere, azalduko diet hori ezin dela egin. Bakoitzak bere proiektu politikoa izan dezake, guztiok defendatu ahal ditugu gure ideia politikoak behin eta berriz, hitz egin nekatu arte, baina indarkeria ez dugu sekula erabili behar.

NEREA LLANOS - EUSKADIKO PP-REN IDAZKARI NAGUSIA

GALDERAK

Zer da Euskal Herria?

Zein bake mota?

Etorkizuneko belaunaldiengatik bakarrik egin behar al da?

Noiz dago pertsona bat prest indarkeria eta bakea ulertzeko?

Seguru al gaude, kontu honi buruz iraganean hitz eginda?

Indarkeria justifikaezina dela badiogu, zergatik daukagu joera hamarkadetan zehar pairatutako indarkeria mota guztiak zerrendatzeko? Halako distantziakidetasuna eragin al dezake horrek?

Ideia guztiak errespetatu behar al dira?

Zergatik gaineratzen dugu "Euskadin", biolentzia bidezkotzeari ala ez bidezkotzeari buruz ari garenean?

JATORRIZKO ADIERAZPENA

Nire ustez, gertatutakoari buruzko egia da kontua, gertatutako guztia kontatzea. Hori da, nik uste, bizikidetza bermatzeko modurik onena; ez bakarrik bizikidetza, justizia ere bai. Beraz, zera kontatu behar da: talde terrorista nazionalista bat egon zela, saiatu zena bere proiektu politiko totalitarioa inposatzen gizarte osoari, indarkeria eta terrorismoa baliatuta beste modu batean pentsatzen zutenei eraso egiteko. Hori da nire iritzia, benetan gertatu zena. Hori da kontatu behar dena, berriro gerta ez dadin.

GORKA MANEIRO – UPyD EUSKAL HERRIKO BOZERAMAILEA

Nola kontatu haur bati, demagun, gertatutakoa. Batez ere, saiatuko nintzateke memoria historikoa egoteak traumak luzatzea, trauma horiek hari transmititzea ez dakarren modu batean kontatzen. Saiatuko nintzateke gertatutakoa modu ez traumatikoan transmititzen; ahaleginak egingo nituzke ikuspuntu positibotik ulertarazten gatazkak bideratzen jakin behar dugula nolabait; gatazkek ikasteko aukera eman behar digutela, pertsona hobeak izaten lagundu.

ROBERTO URIARTE – PODEMOS EUSKADIKO IDAZKARI NAGUSIA

GALDERAK

Zer da egia?

Zerk desberdintzen ditu egia eta iritzia: egia unibertsala al da, eta iritzia norberaren egia?

Nola transmititu memoria objektibotasunetik? Zer hizkuntza erabili behar dugu?

Hau guztia kontatu behar al diegu haurrei? Zein da kontatzeko modurik aproposena? Zein da ikuspunturik onena?

Gatazka barruan sortu al dugu geure identitatea?

Dinamika egin eta gero, taldeak biribila osatu, eta honako lau pertsona ezagun hauek gonbidatu dituzte parte hartzera:

MIREN MAITE ALONSO ARANA

Magisteritza eta Psikologia Klinikoa ikasi zituen Deustuko Unibertsitatean. Irakaslea izateaz gain, Hezkuntzako aholkulari eta ikuskatzailea ere bada. Duela urte bitik Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakaria ere bada; erakunde horrek Gizalegez Akordioa sinatu zuen, eta parte-hartze aktiboa du Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetza Planean.

ALEX CARRASCOSA

Artibista (artista plastikoa eta elkarrizketaren aldeko aktibista), diseinatzailea eta elkarrizketa-erraztaile multiaktorea eraldaketa KreAktibo prozesuetan eta herritarren parte-hartze prozesuetan, Europan eta Ameriketan zehar. 'Dia-Tekhn : elkarrizketa Artearen bitartez' metodologiaren sortzailea da. Beste bi ekimen ere koordinatzen ditu, Gernika Gogoratuzetik eta Bakearen Museotik: Itsasoratze artibista eta MemoriaLab.

LUISA ETXENIKE

Prentsa idatzian eta irratian aritzen da. Azpimarratzekoa da 15 urte daramala *El País* egunkarian idazten. Zenbait eleberri ere argitaratu ditu, besteak beste: *El ángulo ciego* (Euskadi Saria 2009). 2007an Arte eta Letren Ordenako zaldun izendatu zuen Frantziako Gobernuak.

PAUL RÍOS

20 urte baino gehiago eman ditu bakearen eta bizikidetzaren alde lanean, aktibista gisa lehenengo, eta Lokarri akordioaren, kontsultaren eta berradiskidetzearen aldeko herritarren sareko zuzendari gisa gero. Gaur egun, boluntario gisa dihardu bakearen aldeko zenbait ekimenetan, eta erakunde eta fundazioei parte-hartze sareak handitzen laguntzea du lanbide.

Azken saio honetan ere, solasaldiari hasiera eman aurretik gonbidatu bakoitza aurkeztu, eta eskatu zaie labur-labur azaltzeko zer gairi buruz ariko diren. Helburua da hausnartzea heziketak eta kulturak elkar ulertzeko eta errealitatea, harremanak eta norberaren nortasuna eraikitzeko duten garrantziaz: zer espero da gure belaunaldiarengandik? Zein izango da gure rola? Gazteok ba al dakigu zein den orainaldian eta etorkizunera begira dugun erantzukizuna? Gero, gazteek galderak egin dizkiete gonbidatuei, eta beren gogoetak helarazi dizkiete.

Gazte taldea **Bakehizketak** barnetegiko bosgarren saioko gonbidatuekin solasean: **Hezkuntza eta kultura: etorkizun baketsurako hegoak.**

Hona hemen **Bakehizketak** jardunaldien bosgarren (azken) saiotik ondorioztatutakoak:

Argi daukagu: heziketa eta kultura dira lanabes egokienak hainbeste hamarkadatan zehar Euskadiko bizitzaren alor guztiei eragin dien zama politiko eta ideologikoa arintzeko, gatazkaren ondorioak gainditzeko, bizi izandakotik ikasteko eta berriro horrelakorik gerta dadila ekiditeko. Gonbidatuek esperantza helarazi digute; esan digute posible dela etorkizun partekatua eraikitzea, baldin eta gai bagara gure subjektibotasuna eta jarrera alderdikoiak gainditu, eta plano intelektualago eta, batez, ere, emozionalago batean aritzeko.

Hain zuzen ere, heziketa emozionalean ditugun gabeziak izan dira, gure ustez, gatazkak hainbat urtean zehar luzatu izanaren arrazoietako bat. Enpatiarako daukagun ezintasuna. Hainbeste isiltasunen atzean egon diren eta dauden arrazoiak gainditzeko ezgaitasuna. Belaunaldiarteko erraila gainditzeko gaitasunik eza. Desadostasunak asertibitatetik ezin ebaztea. Ezin dugu inor behartu pentsatu eta sentitzen ez duena pentsatu eta sentitzera, baina ahalegindu behar gara ulertzen zergatik pentsatzen eta sentitzen duen hala. Eta, hori, heziketaren bitartez baino ezin daiteke lortu. Heziketa ezinbesteko lanabesa da, era berean, bizitzaren konplexutasuna ulertzeko, jakiteko nola portatu, eta gatazkak nola kudeatu (gizakiok, gizarteko kide garen neurrian, berezkoak ditugu-eta gatazkak).

> Enpatiatik komunikatzea da belaunaldiarteko hesiak gainditzeko modu bakarra

Beste hitz batzuetan: uste dugu heziketak eta kulturak aukera ematen digutela (elkarrekin) bizi garen mundua behatzeko, aztertzeko eta ulertzeko eta, hortik abiatuta, norbanako gizaki gisa hartzen dugun tokia birpentsatzeko. Hori da, izan ere, geure burua eta mundua bera eraldatzeko aurretiazko urratsa.

Ildo horretan, jabetu behar gara dagokigun erantzukizuna egikaritzea dela gure askatasuna kudeatzen ikastea, besteena ere aintzat hartuta, koherente izaten saiatuta, kontsekuente izaten ahaleginduta (gertatutakoarekin eta etorkizunak dakarkigunarekin). Puntu horretan dago, preseski, benetako demokrazia eraikitzeko gakoa. Demokrazia demokratikoago egiteko, ezin dugu balizko beste eredu batzuen gaineko gogoeta egitera mugatu. Praktikara eraman behar ditugu eredu horiek, performatizatu, ikusgai egin, egunerokotasunaren parte ezinbesteko moduan. Eta, zentzu horretan, gazteok oso zorrotz jokatu behar dugu, hizkuntzarekin bezalaxe, komunikatzeko erabili ohi ditugun hitzekin ere. Zoritxarrez, funtsezkoa den kontu hau oso baldintzatuta egon da urteetan zehar. Zama hori gainetik astindu behar dugu behingoz. Hizkuntza eta komunikazioa baitira gure pentsamendua eraikitzen dutenak, eta pentsamendutik eraikitzen baititugu errealitateak. Historia eta memoria soziala bezalako errealitateak, hain zuzen. Hori dela eta, ezinbestekotzat jotzen dugu elkarrizketa enpatiko eta asertiboa, agerian uzten duelako zein oparoa den denon artean hitz egitea, elkarrizketatik bestelako iruditeriak sortzea (non posible den bizikidetza partekatu eta baketsua).

Gonbidatuak agurtu eta gero, azken bilera egin du taldeak, asteburua nola joan den aztertzeko: bizipena nola baloratzen duten, zer ikasi duten, zer-nolakoa izan den bizikidetza... Eskerrak eman dizkiete ekimenean parte hartzeagatik, eta aukera eman diete beren gogoetak bideoan grabatzeko (gonbidatu guztiek ere hala egiteko aukera izan dute).

Hauexek izan dira elkarrekin emandako asteburuaren gaineko gogoeta esanguratsuenak:

Guzti-guztiok uste dugu ohore handia izan dela ekimen hau bizi ahal izatea. Aukera paregabea izan da iraganera kritikotasunetik hurbiltzeko, eta gatazkaren erraietan eta ondorioetan murgiltzeko; zenbait gairi buruz gauza berriak ikasteko; euskal errealitatean erreferente diren pertsona ospetsuen diskurtsoak, testigantzak, bizipenak bertatik bertara ezagutzeko (hori bai: faltan bota ditugu mutur-muturreko profilak). Aukera paregabea, era berean, elkarri begirunez aditzeko; gogoeta egiteko gonbita egiteko; gure desberdintasunak nondik datozen ulertzeko; desberdintasun horiei buruz tentsio barik, aske eta patxadaz hitz egiteko; posible dela sinesteko; aldaketa eta elkarrekin eraikitako etorkizuna lortzeko ahalduntzeko. Bizipen aberatsa eta eraldatzailea izan da. Labur esanda: abangoardiazko ekimena, alderdi politikoek edo komunikabideek esaten dutenaren aitzin doana. Errepikatu ahal den, errepikatu behar den eredua.

> Gauza berriak ikasi ditugu, baina, batez ere, gure desadostasunak nondik datozen ulertu dugu

Bi izan dira hori guztia posible egin duten faktoreak. Lehenengoa, hurbiltasuna balio konstante gisa: parte-hartzaileen artean, dinamizatzaileekin, gonbidatutako pertsona ospetsuekin eta, finean, bizikidetzaren alor

> Bakeari buruz hitz egitea bakea da

guztietan. Hurbiltasunak zintzotasuna ekarri die testigantza eta iritziei. Hurbiltasunak aukera eman digu parte-hartzaileak ez ikusteko ideologikoki hurbilago edo urrunago genituen subjektu gisa, baizik eta aurpegia, ahotsa eta arima duten norbanako gisa, agerikoago ala izkutuago dagoen arrazoiren batengatik guk bezala pentsatu eta sentitzen ez duten subjektu gisa. Hori dela eta, ezagutu ez dugun errealitate horrekin enpatizatu dugu, harekin bat egin dugu. Eta, horri guztiari esker, mugak hautsi ditugu, estereotipoak eta aurrejuzguak desmuntatu ditugu. Bigarren faktorea izan da bizipen honen alderdi emozionalari jarritako arreta berezia. Gai ugari jorratu ditugu –batzuk teorikoak, beste batzuk ez hainbeste; batzuk konplikatuak eta delikatuak, beste batzuk ez hainbeste–, baina une oro hausnartu dugu ea gai horiek zelan eragiten dieten norbanakoen emozioei eta harremanei.

Beste alde batetik, aldatuz joan da gure jarrera gonbidatu ospetsuekin izandako elkarrizketetan ere. Hasieran haiek esaten zutenaren mende geunden apur bat; saioek aurrera egin ahala, ordea, seguruago sentitzen joan gara, eta berdinetik berdinera aritu ahal izan dugu, hierarkiarik gabe. Eskuzabaltasuna izan da gonbidatuengan gehienetarik baloratu dugun ezaugarrietako bat: lantaldearekin beren ikaspenak (pertsonalak eta profesionalak), iritziak, testigantzak, bizipen intimoenak ere partekatzeko agertutako borondatea. Ez hainbeste ikuspegi ideologiko eta publikotik, jarrera humano eta emozionaletik baizik. Horren eraginez, gonbidatuak profil gisa baino, pertsona gisa ikusi ditugu. Era berean, uste dugu askatasunez aritu izana izan dela bi belaunaldi taldeen arteko elkarreraginaren ezaugarri nagusia. Lagungarria izan da, era berean, jakitea gune berezi eta babestu batean geundela; partekatzeko beharrizana eta grina eragin digu horrek.

Adierazitako guztiagatik, uste dugu ekimen hau behar beste aldiz errepikatu behar dela. Ez bakarrik gure gatazka eta horren eraginak lantzeko, baizik eta edozein gai jorratzeko (batez ere, dena delako gaia multidimentsionala bada, eta zenbait profil eta zenbait belaunaldiri eragiten badie). Uste dugu horrelako guneek aukera ematen digutela gazteoi edozein gairi buruzko ikuspegi globalagoa eraikitzeko eta, beraz, kritika sendoagoak eta errealitateari hobeto egokitzen zaizkien proposamenak egiteko. Horrelako bizipen baten ostean, sentitzen dugu badaukagula aldaketan laguntzeko borondatea, indarra eta legitimitatea; etorkizun baketsua gure esku dagoela. Horretarako esperantza badagoela erakutsiko duen beste eragile bat izan nahi dugu.

> Eredu izan nahi dugu, aldaketa eraiki

2015eko urrian, Arrasaten egindako **Bakehizketak** barnetegian parte hartu zuen gazte taldea.

TRUKEA SETON HALLEKO UNIBERTSITATEKO IKASLEEKIN

Proiektu mota: topaketa

Laburpena: gazteek memoriaren, errelatoaren eta iraganaren ikuspegi zabalagoa izan dezaten, Seton Halleko Unibertsitateko (AEB) ikasle talde batekin bizipenak partekatzeko proiektua abiarazi da. Talde biek aukera izan dute elkar ezagutzeko eta zenbait gairi buruzko bizipenak partekatzeko, ikuspegi akademikotik baino, egunerokotasunetik abiatuta. Egunerokoan hauteman, aditu eta sentitzen dutenaren gaineko gogoeta egin dute.

Helburuak: Memoria indibidualari, sozialari eta publikoari buruzko ikuspuntuak eta bizipenak partekatzea eta, ondorioz, horiek kudeatzeko tresna berriak baliatzen ikastea.

Data: 2016ko urtarrila **Tokia:** Bilbo

Iraupena: 2 h 30' **Parte-hartzaileak, taldeko:** gehienez ere, 25 lagun

Euskadiko parte-hartzaileen taldea Seton Halleko Unibertsitateko ikasle taldearekin batu da Bilboko Zazpi Kaleetako taberna batean, elkar ezagutzeko. Aurkezpena egiteko dinamika ezohikoa da, baina bi arrazoirengatik erabili da: batetik, parte-hartzaileen arteko komunikazioa ingelesez eta gaztelaniaz izan behar denez, berau errazteko, gai teknikoagoak eta, beraz, hizkuntzaren aldetik ere zailagoak jorratu baino lehen; eta bestetik, jarduerari aurre egiteko beharrezko kohesio eta konfiantza sortzeko denbora gutxian.

Gero, Bilborockeko areto batera joan dira guztiak, saioari hasiera emateko. Azalpenak jaso ostean, jatorri mistoko bikoteak eta hirukoteak osatu dituzte, aintzat hartuta parte-hartzaileen ingeles eta gaztelania maila ere. Saioa lau gairen inguruan antolatu da. Zati horietako bakoitza, berriz, bi partetan banatu da: lehenengo eta behin bikoteek edo hirukoteek hitz egin dute gaiari buruz, eta, gero, ondorioak beste taldeekin partekatu, eta mural batean jarri dituzte.

Hauexek izan dira gogoetak, gaika:

1. 'Memoria indibiduala', 'Memoria soziala', 'Memoria historikoa' eta 'Historia'. Zelan definitzen ditugu kontzeptu horiek?

'Memoria indibiduala' da gazteok argien definitzen dugun kontzeptua: berehala identifikatzen dugu bakoitzak aldean daramagun memoriarekin, zeina gogoratzen ditugun une historikoetan eta, noski, gure bizipen propioetan oinarritzen baita. Bizi izandako denbora-tartearen ikuspuntutik beste belaunaldiena baino laburragoa da, baina horrek ez du esan nahi horiek bezain oparoa eta bizia ez denik. Bizi izandakoa eta gogoan daukaguna, hainbat barne- eta kanpo-faktoreren mende dago.

Hala ere, zaila egiten zaigu 'Memoria soziala' eta 'Memoria historikoa' desberdintzea: biak ulertzen ditugu familiarekin, lagunekin eta komunitatearekin dugun harremanaren bitartez eraikitako prozesu kultural bat bezala. Zehazkiago, une historikoen hautematearen bidez eraikitzen ditugu, horiei ematen diegun esanahiaren bitartez eta horiek gogoratzeko eta gure inguruetara transmititzeko moduaren bitartez. Hori dela eta, uste dugu memoria indibiduala, soziala eta historikoa lotuta daudela: memoria indibidualetik sortzen direla memoria soziala eta historikoa. Horrek sentiarazten digu ez Historia, ez berau osatzen duten gertaketak ezin daitezkeela objektibotasunez begiratu. Ordea, prozesuaren subjektibotasuna alde batera utzita, uste dugu lan egin behar dela publikoki, memoria historikoa barneratzailea izan dadin, hau da, askotariko memoria indibidualak eta sozialak gorde ditzan bere baitan. Azkenik, azpimarratu beharra dago batzuetan sentitzen dugula memoria historiko jakin batek Historia bera ere alda dezakeela.

> Zergatik dauka 'memoria' izena, jende askorentzat ez bada hala?

2. Noiz hasi gara 'memoriaz' arduratzen, eta zergatik?

Zenbait arrazoirengatik hasi gara gazteok 'memoria'ren ardura hartzen. Horien guztien oinarrian, baina, harridura-galdera sendo bat dago: "Aizue! Zer gertatzen ari da?!" Inflexio-puntu bat gisa bizi izan genuen galdera hori, iratzartze bat bailitzan. Baina, zer gertakarik, faktorek edo prozesuk iratzarrarazi gintuzten?

Kanpo-faktoreek eraginda izan zitekeen, adibidez: eskolan Historia ikastea; iraganari lotutako egitate baten protagonista izatea; edota gure ingurunea zalantzan jartzea orainaldian eman, baina memoria sozial eta historikoari lotutako gertaerak egon direnean.

Iratzartze hori eman daiteke, era berean, barne-hausnarketen ondorioz, adibidez, geure buruari galdetzea iraganak nola eragiten digun, identitate indibidual eta kolektiboa eraikitzerakoan. Edota jabetzean ezinbestekoa dela Historiatik ikastea, iraganeko akats berdinak ez errepikatzeko. Edota konturatzean orain ala gero subjektu pasibo izateari utzi, eta subjektu aktibo bihurtuko garela, geure memoria etorkizuneko belaunaldiei kontatzen diegunean.

> Ardura hartzen hasten gara gure rola entzutetik komunikatzera igarotzen denean

3. Zeintzuk dira, bada, gazteok gure 'memoria' ezagutzeko ditugun baliabideak eta lanabesak?

Gure komunitatearen memoria sozial eta historikoa ezagutzeko egokitzat jotako baliabideak zerrendatu aurretik, esan beharra daukagu kezkagarria iruditzen zaigula gazteen zati batek gai horiei buruz erakusten duen axolagabekeria. Jarrera horren kontra egin behar dugu, uste dugulako 'memoria'ren faktoreak asko baldintzatzen duela gure identitate indibiduala eta kolektiboa nola eraikitzen dugun.

Memoria sozial eta historikoa ezagutzeko identifikatu ditugun tresnei buruz, berriz, askotarikoak dira, gugandik eskatzen duten elkarreragite mailaren arabera. Batzuk inpertsonalagoak eta bitartekoagoak dira (filmak, komunikabideak, Internet, testuliburuak, eta abar): horrelakoek aukera ematen dute norberak erabakitzeko noiz, nola, non eta zenbat informazio jaso nahi duen. Beste tresna batzuek jarrera aktiboagoa eta harberagoa eskatuko digute. Adibidez: askotariko bizipenak eta testigantzak kontatu, eta ideologikoki kontrajarriak diren iritzi eta ikuspuntuak partekatzen diren gune edo taldeetan parte hartzea; herrialde bateko kultura, ohiturak eta hizkuntzaren ezagutzan murgiltzea; hurbilekoekin solasean aritzea (familia, lagunak, auzokoak); iraganaren ezagutzari lotutako turismoa egitea; edota nork bere pentsamendu kritikoa jorratzea, ikasitakoa zalantzan jartzeko. Areago, gutako batzuk jarrera proaktiboa daukagu, eta gaineratu dugu gogoratzeko moduak ere sor daitezkeela.

4. Memoriari buruzko politika publikoen balorazioa.

Urriak eta lausoak dira erakundeek egindako memoria-politiken gainean gazteok ditugun ezagutzak. Ez daukagu informazio askorik eta, beraz, bakarrik identifika ditzakegu politika horiek diseinatu, garatu edo horien zabalkundea egiten duten erakunde publikoak. Hala eta guztiz ere, irudikatzen dugu politika horiek nolakoak izan beharko luketen. Izan ere, oso ikuspuntu kritikoa dugu, uste dugulako ez direla betetzen ari memoria-politikei buruz genituen itxaropenak.

Gure ustez, balore demokratikoak eta giza eskubideak izan behar dira memoria-politika ororen ardatz. Gainera, politika horiek arreta berezia jarri behar diote biktimak zaintzeari –eta biktimek, indibidualki, ez dute sentitu behar beren sufrimendua beste biktima baten sufrimenduarekin erkatzen denik–.

> Balore demokratikoak eta giza eskubideak izan behar dira memoria-politiken ardatz

Beste alde batetik, uste dugu memoria-politikek hiru erpin izan behar dituztela. Lehenengoa, desberdinen arteko elkarrizketarako gune irekiak sortzea, ez bakarrik gatazkei eta iraganari buruz hitz egiteko, orainaldian bake-kultura eraikitzeko diskurtsoak sustatzeko ere bai. Bigarrena, 'memoria'ren politizazioa identifikatzea, horren aurka egitea eta hala egitea prebenitzea. Azkenik, ez ahaztea kontuak heziketaren aldetik duen garrantzia, horrek bermatuko duelako pentsamendu kritikoa garatzea, eta gertatutakoa berriro ez errepikatzea.

Seton Hall unibertsitateko ikasleek eta Euskadiko gazteek osatutako taldea esperientzia trukea hasi aurretik.

BAKEHIZKETAK II

Proiektu mota: dokumentala proiektatzea eta dinamika parte-hartzailea

Laburpena: Dokumental bat egin eta aurkeztu da, **Bakehizketak** proiektutik ateratako ondorioak publiko egiteko. Aurkezpenera, 2015eko asteburuan parte hartu zuten gazteez eta pertsona ezagunez gain, gazte eta pertsonaia ezagun gehiago joan dira. Dokumentala proiektatu eta gero, dinamika parte-hartzailea egin dute, etorkizun baketsuaren aurrean gazteek dituzten erronkak identifikatzeko.

Helburuak:

- **Bakehizketak** proiektutik sortutako bizipenen eta gogoeten berri ematea erakundeei, eragile sozialei eta komunikabideei.
- Bakeari lotuta gazteek orainaldian eta etorkizunean dituzten erronkak definitzea.
- Belaunaldiarteko isiltasunak gainditzea.

Data: 2016ko otsaila **Tokia:** Bilbo

Iraupena: 3h **Parte-hartzaileak, taldeko:** Dokumentala proiektatu den aretoko edukiera 120 lagunekoa izan da, eta dinamika parte-hartzailean 80 lagunekoa, gehienez ere.

Oharrak: topaketa laburbiltzen duen bideoa ikus daiteke YouTuben, 'EGK Bakehizketak – aurkezpena eta topaketa' jarrita.

2015eko urrian aurrera eramandako **Bakehizketak** proiektua eraldatzailea izan zen bertan parte hartu zuten guztientzat. Bai gazteek, bai gonbidatuek, azpimarratu zuten egun horietan zehar gertatutakoa eta ereindakoa partekatu eta zabaldu egin behar zela, argi eta garbi geratu baitzen gogoetan eta begirunean oinarritutako elkarrizketak humanizatu egiten duela, isiltasunak gainditzen dituela, estereotipoak hausten dituela, jarrerak hurbiltzen dituela eta zubiak eraikitzen dituela. Topaketek erakutsi zuten bizikidetzan oinarritutako etorkizuna zedarritzeko, belaunaldi guztiek orainaldian parte hartzeko konpromisoa har dezaketela, parte hartu behar dutela.

EGK-k ez zeukan asteburuaren bizipenak islatzeko dokumentala egiteko asmorik. Aurreikusia zegoen gazteen eta gonbidatuen sentipenak eta iritziak grabatzea, baina horren helburu bakarra zen jardueretarako barne-memoria osatzea. Ordea, proiektuak parte-hartzaileengan izandako eragina ikusita, dokumentala egiteko erabakia hartu zen.

Horrela, bada, asteburu hartako ondorioak erakundeei, komunikabideei eta, oro har, gizarteari helarazteko, ekitaldi irekia antolatu zen, orduko ikus-entzunezko materialarekin egindako dokumentala lehen aldiz proiektatzeko. Ordea, hori ez zen izan xede bakarra: proiektuan parte hartu zuten gazte eta pertsonaia ezagunak gonbidatzeaz gain, euskal errealitateari lotutako beste pertsona ezagun batzuei eta beste gazte batzuei ere helarazi zitzaien aurkezpenera etortzeko gonbita. Guztira, 80 izan dira (40 + 40).

Bilboko Azkuna Zentroan gauzatutako **Bakehizketak II** topaketako parte-hartzaile taldea (gazteak eta pertsona ospetsuak).

Dokumentala proiektatu eta gero, lau gaztek kontatu dute zer izan zen haientzat **Bakehizketak** proiektuan parte hartzea. Elkarren artean oso bestelakoak, baina elkarren osagarri ere izan dira diskurtsoak. Haurtzaroa eta nerabezaroa nola gogoratzen dituzten azaldu dute, batetik; nola gogoratzen duten gatazka bizi izan zuten ingurunea, zer-nolakoa zen bizikidetza. Bestetik, azaldu dute proiektuan parte hartzeak zer ekarri dien: eremu babestu, intimo eta lasai batean zeudela sentitzea, beste ingurune batzuetatik zetozen gazteak ezagutzea, beste errealitate batzuk ezagutzea, ikustea nork bere bizipenak dituela baina, finean, ez dirudiela emozionalki hain urrun daudenik. Etorkizun baketsua lortzeko, gazteek (eta gainerako belaunaldiek) orainaldian elkarrekin bereganatu beharko lituzketen erronka, itxaropen, ardura eta konpromisoei buruz ere mintzatu dira.

Gazte batek **Bakehizketak** barnetegian izandako esperientzia jendaurrean azaltzen du dokumentalaren proiekzioaren ostean.

Gero, bertaratuek aukera izan dute beren gogoetak eta bizipenak partekatzeko. Hauexek izan dira esanguratsuenak: nahita eragindako sufrimenduari lotutako bizipen dramatiko bat bizi ostean gorrotoa eta mesfidantza zelan gainditu irudikatzen duen errelatoa; iraganeko eta orainaldiko bizikidetza-giroen arteko aldearen analisia; herri txikietan eta oraindik ere oso ideologizatutako inguruneetan bizi, edota alderdi politikoetan militatzen duten gazteen bizikidetza liskartsuaren deskribapena; belaunaldiarteko isiltasunak eta hesiak gainditzeko deialdia; oraindik ere *muturtuta* dauden sektoreei autokritika eta dagokien erantzukizuna eskatzeko beharrizana.

Hitzaldia amaitu eta gero, jardueraren bigarren zatiari ekin diote. Pribatua izan da, eta aurretiaz izena emandako gazteek eta pertsona ospetsuek baino ez dute parte hartu. Xedea izan da identifikatzea etorkizun baketsua lortzeko euskal gazteek dituzten erronkak. Horretarako, adostasun mailakatuan oinarritutako dinamika egin dute.

Taldeetako bi gazteriak etorkizun baketsu baten aurrean dituen erronkei buruz hitz egiten.

Taldea bikote mistoetan (gazte bat eta pertsona ospetsu bat) banatu dute. Bikote bakoitzak denbora-tarte mugatua izan du lau erronka adosteko. Horiek adostu eta gero, laukoteak osatu dituzte eta, zortzi erronketatik, lau adostu behar izan dituzte, denbora-tarte mugatuan berriro ere. Azkenik, beste laukote batekin elkartu behar izan dute, eta zortzikotearen behin betiko lau erronkak adostu. Amaitzeko, guztiak elkartu, eta hamar taldeek partekatu egin dituzte identifikatutako lau erronkak. Era berean, kontatu dute zer-nolakoa izan den belaunaldiartean solasean aritzea, eta jarrera zein ideia desberdinetatik akordioak erdiestea.

Talde txikitan landutakoaren partekatzea.

Jarraibide orokor gisa, talde ia-ia guztietan zaharrenak izan dira gehien hitz egin dutenak. Alabaina, ez dugu uste hori negatiboa denik, kontrakoa baizik: aditu egin nahi diegu; atzera begiratzean egiten dituzten gogoeten berri izan nahi dugu. Beren bizipen profesionalak eta pertsonalak ezinbestekotzat jotzen ditugu gure diskurtsoak osatzeko, hainbat urteko isilaldien eta jakintzat ematen zen informazioaren ostean.

Bakea eta bizikidetza eraikitzeko, gurea bezain beharrezkoa da beren errelatoa. Ez gara gatazkaren belaunaldia: ez genuen gatazkaren jatorria bizi, ez eta sasoi dramatiko eta biolentoenak ere. Hori bai: gatazka konpontzeko konpromisoa hartuko duen belaunaldia izan gaitezke, izan behar dugu. Gatazka, gainera, ez dugu edozelan konpondu behar. Ez du balio bakea edozein preziotan eskuratzeak. Gatazkaren ebazpena barneratzailea izan dadila nahi dugu. Barneratzailea, ez bakarrik sentsibilitate ideologiko guztiekin, baizik eta bizitzaren edozein dimentsiotan ematen diren desberdintasunak balio gisa ulertuta, ez arazo gisa. Hori dela eta, faltan botatzen ditugu gazte batzuen errelatoak (mesfidantza eta oinaze handiegia eragin dizkieten egoerak bizi, eta horiek horrelako foroetan partekatzeko gai ez diren gazteenak, hain zuzen ere): torturak pairatu eta preso daudenenak; dispertsioaren aldeko gazteenak; Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoko gazteenak; gatazka urrunagotik bizi izan duten gazte etorkinenak; beste kultura eta erlijio batzuk dituztenenak; eta abar. Uste dugu haien egia beste guztiak bezain beharrezkoa dela; haien egiak ere aintzatespena merezi du, jasota geratu behar da, gertatutakoari buruzko memoria eraikitzerakoan.

Era berean, uste dugu estuki lotuta daudela bakea eta demokrazia erreal eta parte-hartzailearen egikaritza, non gure eskubideen aldarrikapenaren jabe izan, eta horrekin kontsekuente izango garen. Konpromisoa hartu behar dugu, era berean, bidegabe eragindako edozein sufrimendu aho batez salatzeko, kontuan hartu gabe hura nork eragin zuen, edota nori eragin zion. Bizitza errespetatzeak izan behar du gure helburu gorena, eta halaxe izango da.

Hona hemen hamar taldeek identifikatutako lau erronkak*:

ETORKIZUNA BAKEAN BIZITZEKO GAZTEEN ERRONKAK

1. TALDEA

- Esan behar duguna esateko eta mintzatzeko beldurrik edo lotsarik gabe hitz egitea.
- Gizarte enpatikoagoa eraikitzea, hezkuntzatik abiatuta.
- Onartzen eta errespetatzen ikastea, zenbait ideologiaren elkarguneak sortuta.
- Leheneratze-prozesuak komunitateari zabaltzea.

2. TALDEA

- Aurrejuzguak haustea.
- Beldurra haustea: izan zeure burua adierazteko libre.
- Hizkuntza berreraiki eta naturalizatzea.
- Jaso demokrazia.

* Hauexek izan dira bake eta bizikidetzarako lantaldeek (Bakezaleek) egindako proposamenen abiapuntutzat hartutako erronkak (argitalpen honen hirugarren kapituluan ere daude ikusgai, "Bakezaleak - Aldaketarako proposamenak" izenburupean.

3. TALDEA

- Giza eskubideak: bizikidetzarako oinarria.
- Gizartea piztea: eremu publiko parte-hartzaileak sortzea, batez ere gazteei bideratuta.
- Gatazkak eta desadostasunak onartzea, eta horiek konpontzeko markoak eta lanabesak sortzea.
- Gazteei aukerak eta erantzukizunak ematea eremu guztietan.

4. TALDEA

- Ekimen hau gazte gehiagori helaraztea, haiek ere parte har dezaten.
- Belaunaldien arteko zubi-lana egitea (guneak sortzea).
- Beldurra eta aurrejuzguak gainditzea.
- Denbora-muga duen ekintza-plana diseinatzea.

Gazte batek bere taldeak **Bakehizketak II** topaketan identifikatu dituen erronkak zintzilikatzen ditu.

5. TALDEA

- Jarrera eraikitzailea, eraldatzailea eta barneratzailea islatu eta garatzea.
- Zubiak eta topaguneak sortzea, eta horiek normalizatzea.
- Ez dago egia bakarra, asko baizik: errelato guztiei dagokien aitortza eman, eta horiek errespetatzea.
- Gizartearen indarra baliatzea gutxieneko akordio-oinarria eratzeko.

6. TALDEA

- Gazteek parte hartzea sustatzea.
- Bizikidetza lortzea.
- Gatazkari, bakeari eta bizikidetzari buruz hitz egin eta aditzeko guneak sortzea.
- Ez ahaztea: iraganetik ikastea, etorkizuna eraikitzeko.

7. TALDEA

- Egunerokoan, gatazkari buruzko belaunaldiarteko komunikazioaren blokeoa haustea.
- Arreta jartzea gazteok bizikidetza eta etorkizuna eraikitzeko gureganatu behar dugun rolari buruz, erantzukizun guztia gure gain hartu gabe.
- Dibertsitatea eta identitate-pluraltasuna aitortu eta errespetatzea.
- Elkarrizketarako guneak sortzea, memoria ahantzi ez dadin.

8. TALDEA

- Isiltasun-katea apurtzea (iraganeko historia ez eraikitzea orainaldiko interesetan oinarrituta).
- Bizikidetza eraikitzea giza eskubideen eta ideia ororen errespetutik abiatuta.
- Ezagutzaren eta gatazkaren konponketa barneratzailearen belaunaldia izatea.
- Biktima guztiei dagokien aitortza egiteak eta ikusgarritasuna emateak duen garrantzia azpimarratzea, eta horretan parte hartzea.

9. TALDEA

- Elkarrizketarako gune horizontalak antolatzea, belaunaldiarteko ikuspegien transmisioa barne.
- Bake-prozesuetan esku hartzen duten gazteak ikusgarri egitea, heziketaren eta beste eremu batzuen bitartez gazte gehiagok parte har dezatela sustatzeko.
- Memoria plurala, aintzat hartuko dituena giza eskubideen kultura bultzatuko duten narrazio-alternatibak.
- Giza eskubideak errespetatuko dituen espetxe-politika, biktimen eta bizikidetzaren erreparazioa sustatuko duena.

10. TALDEA

- Hizkuntza askatzea, bizikidetzarako.
- Belaunaldiarteko komunikazioa bultzatzea.
- Gazteek memoria historikoa eraikitzeko prozesuan parte hartzea.
- Bake eta bizikidetza proiektuak txertatzea hezkuntza-sisteman.

EGK: 30 URTE BAKEAREN ALDE LANEAN!

Proiektu mota: topaketa

Laburpena: 1986tik hona aldatu egin da testuingurua eta, ondorioz, gazteen sentipenak eta aldarrikapenak ere bai. Hala eta guztiz ere, EGKren lanaren oinarri izaten jarraitzen dute faktore horiek biek. Zehazkiago, orainaldia eraldatzeko xedea duten erronkak definitzen laguntzen dute, partekatutako eta elkarrekin bizitzeko etorkizuna lortzeko. Hori dela eta, topaketa bat antolatu da gazte talde baten, eta 30 urte hauetan zehar gai horiek EGKtik jorratu dituzten zenbait profil teknikodun pertsonen artean.

Helburuak:

- Belaunaldiarteko isiltasunak gainditzea.
- Gazteek iraganean zituzten eta gaur egun dituzten arazoak eta erronkak erkatzea.

Data: 2016ko ekaina **Tokia:** Bilbo

Gazteek hausnarketarako gunea EGKn lan egin zutenekin partekatu aurretik, landuko duten gaiari lotutako dinamika egin dute: EGK-k bakean hezteko egindako lanari lotutako 30 urteko historia eta memoria. Taldea bitan banatu da (talde horia eta talde urdina), eta talde bietan komodin aritu da pertsona bat (talde bati zein besteari laguntzen). Helburua zera da: hiru alditan zatitutako denbora-lerro batean (laurogeiko hamarkada, laurogeita hamarreko hamarkada, eta 2000ko lehen hamarkada) kokatzea zenbait gertaera, gertakari, datu edo mugarri, Euskadiko gaur egungo bizikidetza neurri handiagoan ala txikiagoan baldintzatu dutenak. Denbora mugatua dute taldeek, eta ezin dute kanpo-iturrietara jo: beren memoria eta ezagutza partekatua baino ez dituzte.

Gazte taldea dinamika hasi aurretik.

Gauza asko gertatu dira Euskadin, denbora gutxian. Egitate bat gure bizipenetatik, eremutik eta garaitik zenbat eta urrunago sentitu, orduan eta zailagoa egiten zaigu egitate hori Historian kokatzea. Egia da ez dugula gertakarien hurrenkera nahasi, baina, kasu batzuetan, urteek gora eta behera egiten digute. Gertakari batzuetan, besteetan baino gehiago. Adibidez, epaiketa baten aurreko (zioak?) eta osteko (ondorioak?) gertakariak; epaiketaren data zehatzak nahastera garamatzaten arrazoiak (Lasa eta Zabala kasua, edo 18/98 makroauzia). Ez dugu asmatu, ezta ere, gatazkaren zenbaki dramatikoenak noiz eman ziren, hau da: ETAk jende gehien hildako urtea, preso gehien egon izandako urtea, edota tortura-salaketa gehien egon izandako urtea. Era berean, gaur egungo egoera dela eta, kosta egiten zaigu Autonomia Erkidegoan lanpostu gehien eta gutxien egon zireneko urteei orainaldiko ikuspegitik begiratzea.

Egitateak (oro har) zehaztasunik gabe kokatu baditugu ere, aipatu dizkiguten 48 gertaerak ezagutu ditugu. Azken 30 urteotako bizikidetza-giroan zedarri izandako gaiekin lotuta daude guztiak. Beraz, dinamika, zaila egin zaigun arren, interesgarria iruditu zaigu. Esan beharra dago memoriatik abiatuta eta taldea ezagutu ahala, elkarri kontatu diogula nola izan genuen lehenago aipatutako egintzen berri, eta nola sentiarazi gintuzten, eta bere garaian eragin zizkiguten hutsak eta zalantzak.

> Egitate bat gure bizipenetatik, eremutik eta garaitik zenbat eta urrunago sentitu, orduan eta zailagoa egiten zaigu egitate hori Historian kokatzea



Talde urdinak eta horiak euren denbora-lerroetan kokatutako gertaerak.

Lau izan dira EGKrekin lotutako beren bizipenak gazteekin partekatu nahi izan dituzten gonbidatu ospetsuak: hiru, bertara etorri dira; laugarren batek, berriz, idatzizko testigantza bidali du. Antzinatasunaren hurrenkerari jarraituta, hauexek izan dira:

RAFAEL AJANGIZ

Deustuko Unibertsitateko talde antimilitaristan parte hartu zuen laurogeiko hamarkada hasieratik. Kontzientzia Eragozpenerako Mugimenduaren (KEM) kide aktiboenetakoa izan zen, eta intsumisio-estrategiaren diseinuan nahasia ere egon zen. EGKren teknikaria izan ez bazen ere, aipatutako gaien gaineko aholkulari gisa aritzen zen elkarteko teknikariekin.

IÑIGO ABASOLO

Gazte-gaztetatik egin zuen filosofia antimilitaristaren eta desobedientzia zibil ez-biolentoaren aldeko hautua. Laurogeita hamarreko hamarkada hasieran kontzientzia-eragozpen teknikaria izan zen EGKn. Balkanetako Gerran zehar Bosnia eta Kroaziako 'iheslari-esparruetan' boluntario aritutako gazteen taldeak antolatzen ere parte hartu zuen.

IÑAKI OTAMENDI

Institutuan ezagutu zuen mugimendu antimilitarista, eta laurogeiko hamarkada bukaeran Kakitzat Koordinakundera sartu zen. Balkanetako Gerran zehar Kroaziako 'iheslari-esparru' batean egon zen, EGKren gazte talde batekin. 1996 eta 1999 bitartean Kontseilura sartu zen, kontzientzia-eragozpen teknikari gisa. Bidea Helburu taldeko kidea da, zeinaren xedea den 'Ezbiolentzia Aktiboa'.

MAIDER MARTIARENA

Parrokia-astialditik etorria, han hasi zen bake-kultura eraikitzeko ekimenetan parte hartzen. Arlo horretan egin zuen lan EGKn ere, 2004 eta 2006 bitartean. Garai hartan, bakean hezteko eta esku hartzeko ekimenak ez zihoazen ildo bakarretik: dibertsifikatu egiten ziren, testuinguruaren beharrizanei ahalik eta hoberen erantzuteko.

Gazte taldea eta gonbidatuak esperientzia trukea hasi aurretik.

Txandaka, lau gonbidatuak honako galdera hauei erantzuten saiatu dira: zeintzuk izan ziren gaztaroan bizi izandako testuinguruaren ezaugarriak, eta zer-nolako emozioak eragiten zizkieten? Gaztetan, zeintzuk ziren beren aldarrikapenak? Zer-nolako lana egiten zuten, beraz, EGKtik?

Gero, gazteek galderak egin dizkiete gonbidatuei, eta beren gogoen berri eman diete. Hona hemen jardueratik ondorioztatutakoak:

Ezagutzen ditugu iraganeko testuingurua (biolentoagoa eta biolentatuagoa) baldintzatzen zuten faktoreak, eta ez dira orainaldiko berdinak. Hala eta guztiz ere, zaila egiten zaigu ulertzea duela hiru hamarkada besterik ez, gutxieneko batek baino ez aldarrikatzea borroka ez-biolentoa aldaketa sozial eta politikoak sustatzeko. Horregatik, hain zuzen ere, eredugarri iruditu zitzaizkigun KEM eta intsumisio-estrategia. Ez bakarrik zuten barne-antolakuntzagatik (mugimendu asanblearioa, parte-hartzailea eta barneratzailea), sormenez betetako beren aldarrikapenengatik eta komunikabideekin erdietsitako konplizitateagatik –lortu zuten beren eskaerek eta esku-hartzeek oihartzuna ematea–; desobedientziaren ondorio sozial, juridiko eta penalak beren gain hartzeko konprometituta zeudelako ere bai, arduraz jokatzen zutelako.

Batzuetan, baina, kosta egiten zaigu ekintza biolentoak eta ez-biolentoak bereiztea: gure borrokak gizartearen gehiengoaren sostengua izan, eta zilegitzat hartzen bada ere, non dago desobedientzia erakusteko muga? Non amaitzen da desobedientzia zibila, eta non hasten da delitu penal batenganako konplizitatea?

> Non amaitzen da desobedientzia zibila, eta non hasten da delitu penal batenganako konplizitatea?

Zentzu horretan, ez dakigu ea ezker abertzalearen jarraitzaileek (batez ere, gazteek) desobedientzia erakusteko erabilitako estrategia berriek ('herri-harresia' izenekoa, esaterako) ez ote duten antzik KEMek eta bestelako mugimendu ez-biolentoek baliatutakoekin. Gainera, sektore ideologiko horren ibilbide politiko-militarra ikusita, estrategia horrek mesfidantza eragiten digu.

Beste alde batetik, halako sintonia batetik abiatuta bada ere, gustatuko litzaiguke jakitea alderdi bakoitzak zer argudio erabili dituen, iraganean eta gaur egun, bidezkotzeko indarkeria erabiltzea, ejerzitoa eta gastu militarrak.

Balkanetako Gerran, EGK-k Bosniako eta Kroaziako 'iheslari-esparruetara' bidalitako gazte taldeei dagokienez, berriz, zalantza bat darabilkigu, kontraesan bat: zelan daiteke filosofia antimilitaristadun EGK-k gazte taldeak bidaltzea, etsaiaren aurrean aliatuen ejerzitoak defendatzera? Beste modu batera esanda: Euskadin, EGK-k borroka ez-biolentoaren alde egiten zuen baina, aldi berean, nolabait, nazioarteko testuinguru hartan, onartu egiten zen etsaiaren aurka indarkeria erabiltzea 'iheslari-esparruetara' bidalitako pertsonak defendatzeko. Orduan, gauza bera al da antimilitarista eta bakezalea izatea? Ez dugu berehala ulertzen kontraesan hori, ez dugulako gerra-testuingururik izan hurbil. Baliteke, agian, testuinguruak markatzea gure lehentasunak, gure mugak (zer onartuko genuen eta zer ez), eta ekiteko gure metodologia. Balore eta sinesmen batzuk baditugu, baina gerraren errealitatearen alderik humanoena bizitzeak horiek alda ditzake. Horregatik, bada, jakin nahi dugu zelan prestatu behar garen, bai psikologikoki, bai emozionalki, gerrak asaldatutako testuinguru batera boluntario lanak egitera joateko (hango errealitateak ez dauka-eta zerikusirik ezagutzen dugunarekin).

> Gustatuko litzaiguke jakitea alderdi bakoitzak zer argudio erabili dituen, iraganean eta gaur egun, bidezkotzeko indarkeria erabiltzea

Miresmena izan da gonbidatuekin egindako topaketan zehar gehienok izan dugun sentipena. Miresgarria iruditu zaigu deskribatutako testuinguru gogor eta triste haietan desobeditzeko, aurre egiteko eta indarkeriarik ezaren filosofian oinarritutako borroka aurrera eramateko gai zen jendea egotea. Miresgarria iruditu zaigu gizartea zatitzen zuena baino, pertsonak batzen zituena bilatzen saiatzea une oro (batez ere, une zailenetan). Miresgarria iruditzen zaigu pertsona oro ongi etorria izatea borrokara, inongo alderdiren txartelik erakutsi beharrik gabe. Miresten dugu, finean, bokazio bakezalea, humanista, feminista; talde eta mugimendu haien kontzientzia libertarioa; haien balore eta ideiekin zuten konpromisoa. Horregatik, hain zuzen ere, nahi dugu horrelako errelato eta bizipen eredugarriei zabalkundea eman diezaietela, ikastetxeetan eredu horiek ikas ditzatela; agian, hori izango da modu bakarra ez-biolentzian hezteko, nork bere ekintzen erantzule izaten ikasteko, eta nork bere ekintzekin kontsekuente izateak duen garrantziaz jabetzeko.

> Ahal izan bazuten, ahalko dugu

> Nahi dugu horrelako errelato eta bizipen eredugarriei zabalkundea eman diezaietela, ikastetxeetan eredu horiek ikas ditzatela

Kezkatu egiten gaitu ikusteak orokorrean, gure historia eta memoria partekatuan eragina izan duten gero eta gertakari gutxiago gogoratzen ditugula. Izan ere, hain da handia gure kezka, horrelako guneetan parte hartu eta gureak bezalako ardurak dituzten gazteak topatzeak izugarri pozten baikaitu; tamalez, errealitatearekin talka egiten dugu berehala. Kezkatu egiten gaitu, badakigulako zein garrantzitsua den konpromisoa hartzea, gure ustez bidezkoak, zilegi edo zuzenak ez diren gauzak aldatzeko. Ikasi dugu beste batzuek iraganean egin zutenean daudela gaur egungo gure borroken sustraiak; harro egoteko eta haiengandik ikasteko modukoa da hori.

Lan egin behar dugu kontzientzia bakezalea berpizteko, ikusgai egiteko, kutsatzeko eta aldarrikapen guztietan transbertsal bilakatzeko. Elkarrekin indartsuago garela sinetsarazi behar diogu jendeari, ezin garela mugatu gurekin

> Badakigu zein garrantzitsua den konpromisoa hartzea, gure ustez bidezkoak, zilegi edo zuzenak ez diren gauzak aldatzeko

antzekoak diren taldeen borroketara (ekologistak, aldarrikapen ekologistetara; feministak, aldarrikapen feministetara; eta abar). Entzundako errelatoen ostean, jabetu gara giza-izaera ez dela monolitikoa, konplexua eta lausoa baizik. Testuinguru zehatz bat bizitzeak, une horretan etsaitzat dugunarekin izugarri enpatizatzera eraman gaitzake, gure ideiak eta argudioak aldatzeraino. Ordea, ez litzateke gauza bera gertatu behar gure oinarri etikoekin.

Bakea eta bizikidetzaren eraikuntzan gazte taldeak izandako esperientziei buruz gonbidatuekin solasean.

GAZTEAK ETA GAUR EGUNGO ERRONKA BAT: BAKEA

GALDETEGIA ETA EMAITZAK

OINARRIAK

EGK-k 2014ko udazkenaren eta 2015eko udaberriaren artean garatutako bake eta bizikidetza proiektuak ebaluatu eta gero, hauxe ondorioztatu zen:

> *Gazteok badugu interesa Euskadin pairatutako terrorismoa eta indarkeria politikoan, bortxatutako giza eskubideen aitortzan eta erreparazioan eta bizikidetzaren eraikuntzan, baina gai horiek ez dira lehentasunezkoak guretzat. Gaur egungo testuinguruaren ondorioa da hori, zeinaren eraginez, gazteok, beste arazo batzuk konpontzeko aldarria egin dugun behin eta berriro, hala nola: langabezia-tasa handia; hezkuntza-sistemaren erreforma desegokia; eta etxetik alde egiteko eta berezko bizitza-proiektua garatzeko ezintasuna.*

Gauzak horrela, galdetegi hau egitea eta zabaltzea erabaki zen, honako helburu hauekin:

1. ***Euskadiko gazteek bakeari eta bizikidetzari lotutako zenbait gairen gainean duten interes-maila, parte-hartzea, konpromisoa, gogoetak eta ikuspuntuak ezagutu eta aztertzea.***

2. ***Emaitzak eta ondorioak erakundeei, komunikabideei eta, oro har, gizarteari aurkeztea.***

3. ***Errealitateari eta gazteen interes eta kezkei hobeto egokitzen zaizkien etorkizuneko proiektu eta ekimenak diseinatu eta garatzea.***

MARKOA, METODOLOGIA ETA PROZESUA

Galdetegi hau 2015eko maiatza eta ekaina artean egin zen. Berau diseinatzerakoan, zenbait irizpide jarraitu ziren, forma, hizkuntza eta eduki aldetik ahalik eta zorroztasun handiz aritzeko:

1. Inkestak egiten espezializatuak ziren erakundeek zabaldutako zenbait galdetegi kontsultatu ziren, bai gazteen alorrean aritutakoenak (Gazteriaren Euskal Behatokia), bai gatazkaren zein horren konponbidearen eremuan lan egiten zuten elkarteenak (Lokarri, Bake-prozesuaren Giza Behatokia).

2. Dokumentazio-lan xehatua burutu zen, galdetegiaren egitura, galdera motak eta aukeran emandako erantzunak galdetegiaren xedeetara eta jasotzaileetara egokitzeko.

3. Testak egin ziren, honako hauek egiaztatzeko:

   a. Galdetegia betetzeko aurreikusitako denbora adierazitakoa ote zen (15 minutu).

   b. Galderak eta erantzunak behar bezala ulertzen ote ziren.

   c. Aukeran emandako erantzunak adierazgarriak ote ziren.

Galdetegia betetzea, datuak jasotzea eta horiek aztertzea errazagoa izan zedin, Google Galdetegiak tresna erabili zen. Galdetegia posta elektronikoz banatu zen 2015eko urrian (euskaraz eta gaztelaniaz), EGK osatzen duten ia hirurogei elkarteen, eta 2014an eta 2015ean zehar bakegintzaren inguruan egindako jardueretan parte hartu zuten ehun gazte baino gehiagoren artean.

Galdetegiaren aurkezpenak zioen berau betetzea borondatezkoa zela, datuak anonimoak izango zirela eta estatistika-xedeetarako baino ez zirela erabiliko. Era berean, batez bestean 15 minututan erantzuteko izan zen diseinatua. 25 galdera zituen guztira, eta hiru atal +1:

1. **Profila:** galdetegia erantzungo zuten gazteen ezaugarri soziologikoak identifikatzeko galderak*.

2. **Interesa eta parte-hartzea:** Euskadiko bakegintzaren eta bizikidetzaren alorrean gazteek duten interes maila eta parte-hartzea ezagutzeko galderak.

3. **Gaur egungo egoera:** Euskadiko gaur egungo bake eta bizikidetza egoeraz gazteek dituzten gogoetak eta ikuspegiak ezagutzeko galderak.

+1. Azken galdera horren helburua zen galdetegia bera ebaluatzea.

* Errealitatearen adierazgarri izango zen lagina lortzeko, EGKren kide ziren elkarteekin telefonoz hitz egin, eta eskatu zitzaien beren kideetako gazte bik, gutxienez (adin eta sexu desberdinetakoak), galdetegia betetzeko.

ADI!

Galdetegian eta bertako 62 galderen emaitzetan murgildu aurretik, zenbait ohar –galdetegia behar bezala interpretatzeko–:

- *Online* galdetegian idatzi bezala jaso dira galderak, hau da, haien ordena, hizkuntza, argibideak eta aukeran emandako erantzunak errespetatuta.
- Kontrakorik adierazi ezean, erantzun-aukera bakarra eskaintzen zuten galderek.
- Erantzunetan aukeretako bat 'Beste bat' zen kasuetan, emandako erantzun guztiak jaso dira.
- Galdera irekiak euskaraz ala gaztelaniaz erantzun badituzte ere, argitalpenaren bertsio bakoitzean hautatutako erantzunak hizkuntza bakarrean erakusten dira.
- Datuen irakurketari buruz:
    - Ehunekoetan, komaren osteko lehen digitua baino ez da jaso, aintzat hartuta ea haren hurrengo zenbakia bost baino handiagoa ala txikiagoa den (adibidez: % 34,890, % 34,9 izango da; eta % 34,840, berriz, % 34,8).
    - Batzuetan, aukeran dauden erantzunek ez dute bat egiten galdetegia bete dutenen kopuruarekin (62), beste parametro batekin baizik. Hala bada, adierazita egongo da.
    - Testu batzuk txertatu dira galdetegiaren emaitza kuantitatiboak jasotzen dituzten infografien ondoan. Horien xedea da datuen barne-analisitik ateratako informazio osagarri esanguratsua ematea.
    - Galdera irekietan, galdera guztien analisitik ateratako ondorio orokorrei laguntzeko erantzunak jaso dira bakarrik.
    - Galdera batzuen emaitzak 'Profila' ataleko datuekin gurutzatuz gero, zenbait aldagai soziologikoren araberako analisia ere egin zitekeen (sexua, gaztaroaldia, bizilekua, eta abar); hala ere, galdetegiaren xedea zen Euskadiko gazteriak bakeari eta bizikidetzari buruz zuen joera orokorra (behar bezala seinaleztatutako eta oinarritutako salbuespen batzuk kenduta)*.

* Galdetegiaren emaitzei buruzko informazio gehiago behar izanez gero, EGKri eskatu behar zaio, erakundearekin harremanetan jartzeko ohiko bideetatik.

GALDETEGIA ETA EMAITZAK

//// PROFILA

Sexua

Mutila % 59,7

Neska % 40,3

Komunikatzeko ohiko hizkuntza



Adina

18-21 urte (A) % 24,2

22-25 urte (B) % 33,9

26-30 urte (C) % 41,9



Bizilekua zein lurralde historikotan daukazun



* Besterik % 9,7

Bizilekua daukazun udalerriaren neurria



Herria (<12.000) % 17,7

Hiriburua % 45,2

Hiria (>12.000) % 37,1

//// INTERESA ETA PARTE-HARTZEA

1. Elkarte, kolektibo, mugimendu... bateko kidea zara edo izan zara? (Edozein motatakoa: astialdia, gizarte-ekintza, kirola...)



2. Xede politikoak izan, edo alderdi politiko bati lotutako gazte-erakunde bateko kidea zara edo izan zara?



Datuen barne-analisitik ondorioztatzen da gazteen % 30,6 elkarte bateko, eta xede politikoak dituen erakunde bateko kidea izan dela: 'Bai' izan da galdera horiei biei emandako erantzuna. Gainera, % 9,7k baiezkoa eman dio galdera bietako bati, eta bestean 'Laguntza ematen dut, baina ez naiz kidea' erantzun du. Emaitza horiek diote gazteen % 41,3 erakunderen bateko kide izan dela (erakunde horiek xede politikoak eduki ala ez).

Hala ere, gazteek interes txikiagoa dute xede politikoak dituen erakunde bateko kide izateko, bestelako erakundeetako kide izateko baino: % 90,3 da elkarteren bateko kidea, eta, aldiz, % 40,4 baino ez dago xede politikoak dituzten erakundeetan ('Bai' eta 'Laguntzen dut, baina ez naiz kidea' erantzunen batuketa). Hori bai: azken horietan parte hartzeko jakin-min handia erakutsi dute gazteek, % 16,1ek noizbait planteatu izan du-eta.

3. Oro har, zein neurritan esango zenuke interesatzen zaizkizula gai sozialak (berdintasuna, aniztasuna, diskriminazioa...)?

Ezer | Gutxi | Apur bat | Nahiko | Asko





Datuen barne-analisitik ondorioztatzen da gazteen % 30,6ri 'Asko' interesatzen zaizkiola gai sozialak eta politika; % 14,5ek, berriz, erantzun du 'Nahiko' interesatzen zaizkiola. Beste alde batetik, % 29k dio 'Nahiko' interesatzen zaizkiola gai sozialak, baina politika interesatzen zaiola 'Ezer', 'Gutxi' edo 'Apur bat'. Azpimarratu beharra dago ez dela kontrako kasurik eman, hau da: politikan interesa izatea eta gai sozialetan ez.

5. Non kokatuko zenuke zure ideologia politikoa?



Datuen barne-analisiak erakusten du 4. galderan politika 'Ezer' (% 6,5), 'Gutxi' (% 3,2) edo 'Apur bat' (% 19,4) interesatzen zitzaiela esan duten gazteetatik (% 29,1), % 44,4k erantzun duela 5. galderan 'Ez duela bere burua ezkerra/eskuina parametroetan kokatzen', eta % 38,9k esan duela bere ideologia politikoa 'Zentro-ezkerrekoa' edo 'Ezkerrekoa' dela.

6. Eta, zure identitateari buruz, zelan identifikatzen zara?

Datuen barne-analisiak erakusten du 'Bakarrik euskalduna' hautatu duten gazteen artean (% 41,9), % 57,7 bere ideologia politikoa 'Zentro-ezkerrean' eta 'Ezkerrean' kokatzen duela, eta beste % 19,2k, berriz, 'Ez du bere burua ezkerra/eskuina parametroetan kokatzen'.

7. Zehatz dezagun apur bat gehiago: interesatzen al zaizkizu bakeari eta bizikidetzari lotutako gaiak? Adierazi, mesedez, zein den honako gaiei buruz duzun interes maila:



Hauxe da gazteei GUTXIEN INTERESATZEN zaizkien gaien hurrenkera ('Ezer' eta 'Gutxi' erantzunen batuketa egin eta gero):

1. Terrorismoari eta indarkeria politikoari buruzko ikerketa akademiko edota judizialak.
2. Preso daudenen egoera eta espetxe-politika.
3. Zenbait jatorritako biktimen arteko, edota biktimen eta biktimagileen arteko topaketak.

Datuen barne-analisiak dio gazteen % 50ek interesa duela bakeari eta bizikidetzari lotutako gaietan, 'Apur bat', 'Nahiko' edo 'Asko' hautatu baitute proposatutako bederatzi gaietan. Areago: % 3,2 baino ez dira gaien arteko bat bera ere interesatzen ez zaien gazteak (edo horien gaineko interes gutxi daukatenak). Gainerakoen artean, interes handiagoa ala txikiagoa erakusten dute, gaia zein den.

Hauxe da gazteei GEHIEN INTERESATZEN zaizkien gaien hurrenkera ('Nahiko' eta 'Asko' erantzunen batuketa egin eta gero):

1. Iraganaren azterketa kritikoa egitea eta errelatoa/memoria eraikitzea.
2. Gazteen militantzia politikoaren jazarpena edota estigmatizazioa.
3. Autodeterminazio prozesua.

8. Zure ustez, bakeari eta bizikidetzari lotutako gaiei dagokienez, interes handiagoa ala txikiagoa duzu orain, ETAk 2011n su-etena aldarrikatu zuenean baino?



Zergatiari buruz galdetzean, % 48,4k nahiago izan du ez erantzun. Gainerako % 51,6ren erantzunetatik, berriz, zera ondorioztatzen da:

Gazte gehienentzat, ETAren su-etena inflexio-puntua izan da euskal gizartearen bizikidetza giroan. Une historiko baten lekuko direla uste dute, eta, horren jabe izanda, ezinbestekotzat jotzen dute bakea eta bizikidetza eraikitzen jarraitzea, gertatutakoa errepikatuko ez dela bermatzeko. Gainera, ETAren indarkeria desagertu izanak lasaitasuna eta askatasun ideologikoa ekarri die gazteei. Etorkizun baketsu eta partekatua urrun ikusten dute oraindik, baina beharrezkoa dela uste dute:

> *"Su-etena aldarrikatu zutenetik, eraldatu egin dira elkarrizketa eta bizikidetza euskal gizartean: pentsatzen duguna adierazteko, elkarrekin bizitzeko eta edozein eremutarako aldaketak proposatzeko aukera ekarri digu, euskal nortasuna nahi bezala sentitzeko askatasun indibidualetik abiatuta".*
>
> *"ETAren su etenak euskaldunon lasaitasuna ekarri du, eta euskaldun guztiongatik ondo eraiki beharreko oraina eta etorkizuna gure esku dagoela uste dudalako; nahiz eta balitekeen guk benetako bakea ikustera ez iritsi".*
>
> *"Uste dut su-etena beharrezkoa zela, baina ez gatazkaren amaiera; beraz, une horretatik aurrera egin behar ziren ahalegin handienak maila guztietan, aurreko egoera errepika ez zedin".*

Ordea, ez gatazka, ez haren ondorioak, ez dira amaitutzat ematen. Gazteek uste dute benetako bizikidetza lortuko bada, beharrezkoa dela tartean dauden beste eragile batzuek beren gain hartzea dagokien erantzukizuna:

> *"Oraindik gauza asko daudelako mahai gainean zehazteko eta konpontzeko. ETAren su etenak normalizazioa errazten du, baina gure herriko sektore askoren autokritika eta planteamendu berriak ezagutu behar ditugu. Bestalde, Estatuko Gobernu Zentralaren jarrera zein izango den jakitea ere ezinbestekoa da. Espetxe politika, galdeketak, autonomien kudeaketa... eragin zuzena du gure etorkizunarekin".*

Beste alde batetik, adierazi dute terrorismoa eta indarkeria politikoa desagertu izanak berekin ekarri duela bizikidetzari lotutako beste arazo batzuk azaleratzea. Arazo horiek protagonismoa kentzen diete gazteek bakeari eta bizikidetzari lotutako ekimenei buruz duten interesari eta parte-hartze mailari, baina, hala ere, engaiatuta jarraitzen dute gatazkaren konponbidearekin:

> *"ETAk armak utzi zituenetik asko baretu da tentsioa euskal gizartean, eta beste arazo batzuk agertu dira; langabeziak eta bestelako bizikidetza batzuek, adibidez, lehen ez zuten garrantzia eskuratu dute".*
>
> *"Nire ustez, bizikidetzak, bere disfuntzioak eta guzti, erakusten du gizartea non dagoen eta, beraz, zertan lan egin behar dugun".*
>
> *"Bizikidetza baketsua bilatzea eguneroko kontua dela uste dut, alde batera utzita hau Euskal Herria den ala ez, eta ETA noizbait existitu den ala ez. Arrazoi askorengatik sortzen dira gatazkak. Adi egon beharra dago, horiek identifikatu, eta bizikidetzarako arazo bilaka ez daitezen".*
>
> *"Bizikidetza beti garrantzitsua izan beharko litzateke, izan bake ala gerra garaian, jendarteak ardatz gisa hartu beharko luke beti".*

9. Ezagutzen al duzu bakearen eta bizikidetzaren alde lanean diharduen (edo lan egin duen) elkarteren edo herritarren plataformaren bat? Horrela bada, idatzi zein, mesedez:

Galdetutako gazteen % 40,3k ez du ezagutzen bakearen eta bizikidetzaren alde lan egiten duen elkarte edo plataformarik. Horrelakorik ezagutzen duen % 59,7ren artean, berriz, hauexek izan dira emaitzak:

Bat ezagutzen dut	% 48,6
Bi ezagutzen ditut	% 16,2
Hiru ezagutzen ditut	% 21,6
Hiru baino gehiago ezagutzen ditut	% 13,5

Elkarte edo plataforma bakoitzak jasotako aipamen kopuruaren arabera egindako grafikoa:

10. Jarraian, adierazi zein den zure parte-hartze maila honako hauetan: (lauki bakarra aukera bakoitzeko, mesedez)



Hona hemen PARTE-HARTZE HANDIENA lortu duten ekimenen hurrenkera ('Bai, parte hartu ohi dut' eta 'Bai, parte hartzen dut puntualki' erantzunen arteko batuketa da):

1. Bakeari eta bizikidetzari lotutako erakunde edo elkarteek antolatutako jarduerak.
2. Preso daudenen eskubideen aldeko mobilizazioak.
3. Autodeterminazioaren aldeko mobilizazioak.

Aurreko galderetan ez bezalaxe, kasu honetan gehiagotan hautatu dute 'Nahiago dut ez erantzun' aukera. Hona hemen GEHIEN SAIHESTUTAKO ekimenen hurrenkera:

1. ETAren amaiera eskatzeko mobilizazioak (edo, gaur egun, amaiera bidean aurrerapenak emateko eskatzeko egindakoak).
2. Terrorismoaren biktimei egindako omenaldiak.
3. Preso egon direnei egindako harrerak.

Datuen barne-analisiak erakusten du galdetutako gazteen % 11,3k parte-hartze maila altua edo ez hain selektiboa izan duela proposatutako ekimenetan: 'Bai, parte hartu ohi dut' edo 'Bai, parte hartzen dut puntualki' erantzun dute, gutxienez, proposatutako bederatzi ekimenetako seitan. % 45,2k, berriz, parte-hartze maila baxua edo selektiboagoa izan du: 'Ez dut parte hartzen, baina noizbait pentsatu dut parte hartzea' edo 'Ez dut parte hartzen, eta ez daukat parte hartzeko asmorik' erantzun dute, gutxienez, proposatutako bederatzi ekimenetako seitan.

Hona hemen PARTE-HARTZE TXIKIENA lortu duten ekimenen hurrenkera ('Bai, parte hartu ohi dut' eta 'Bai, parte hartzen dut puntualki' erantzunen arteko batuketa da):

1. Preso egon direnei egindako harrerak.
2. Bitartekaritza-prozesuak edota leheneratze-topaketak.
3. Indarkeria politikoaren biktimei egindako omenaldiak.

11. Gaztea zaren aldetik, uste duzu zure konpromisoa eta parte-hartzea garrantzitsuak direla bakea eta bizikidetza bultzatzeko?



Zergatiari buruz galdetzean, % 51,6k nahiago izan du ez erantzun. Gainerako % 48,4ren erantzunetatik, berriz, zera ondorioztatzen da:

Gazte gehienek uste dute gazteria gizartearen beste eragile bat dela (eta hala hartua izan beharko lukeela), bai orainaldian, baita etorkizunean ere. Bakea eta bizikidetza eraikitzen parte hartu behar dutela uste dute:

> *"Ez dut uste funtsezkoa denik norbanako gisa parte hartzea, baina uste dut beharrezkoa dela konpromisoa hartzea: norbanako guztiok eratzen dugu gizartea, eta, tolerantziaz jokatzen badugu denok, ez da berriro sortuko lehen zegoen tentsioa".*

Hainbat dira gazteek bakegintza prozesuarekin konpromisoa hartzea eta prozesu horretan parte hartzea beharrezkoa egiten duten arrazoiak: (elkarrekin) bizi den tokikoa izatearen sentimendua; partekatutako gatazka batek markatutako komunitate bateko kide izateak dakarren erantzukizun sozial eta politikoa; besteek bizi izandako sufrimendu zuzenari dagokion aitortza egitea; ahanzturaren aurka borrokatzeak duen garrantzia...

> *"Benetan Herri hau maite bada, sinesten bada eta sentitzen bada uste dut gazte bezala parte-hartzea egin dezakegun gauza minimoa dela. Herri honen oraina garelako eta geroa izango garelako, zer aportatu (bizipenak, etab.) ditugulako".*

"Nire ustez, konpromisoa izan dezakegunok saiatu behar gara memoriaren eta bizikidetzaren aldeko lana agenda politiko eta kolektiboan mantentzen. Ez dugu onartu behar orrialdea pasatzea, lehenago orrialde hori irakurri gabe".

"Gazteriak gatazkaren atal gordin eta mingarriena pairatu duelako, ere".

"Iraganean gertatutako ulertzea ezinbestekoa da aurrera egiteko. Hamarkada luzeetan egondako gatazkari erantzuna ez zaio legealdi batean edo lau urtetan ematen. Etorkizunean jarrera aktibo bat ezinbestekoa izango da".

Beste alde batetik, gazte batzuek uste dute beren eragina oso txikia dela, eta eskatzen dute beren ustez aldaketarako giltza eduki dezaketen eragileek konpromiso handiagoa hartzeko:

"Norbanako batek ez du ezer aldatzen, ez dio inori kontzientzia harrarazten. Hori guztia hezte-lan bat izan beharko litzateke, haurtzaroan bertan abiarazitako kontzientzia-harrarazte prozesua".

"Ondo legoke herritarrek nolabaiteko indar soziala edukitzea, baina, tamalez, goi-karguak dituztenek eta horien interesek baino ezin dituzte aldaketak eragin".

12. Zure ustez, aukera duzu gazte moduan parte hartzeko bakea eta bizikidetza eraikitzeko prozesuan?



Zergatiari buruz galdetzean, % 53,2k nahiago izan du ez erantzun. Gainerako % 46,8ren erantzunetatik, berriz, zera ondorioztatzen da:

Galderaren aurrean, eredu bi izan dituzte erantzunek. Batetik daude bakea eta bizikidetza ekintza pertsonal eta egunerokoetatik eraikitzen dela uste duten gazteak, eta, beraz, beren burua subjektu proaktibotzat dutenak:

> *"Gure lurrean, gure lurretik edo gure lurrera zuzendutako giza eskubideen bortxaketa zenbait pairatu dituzten pertsonei buruzko interesa agertuz gero, haiei ikusgarritasuna emanez gero, haiekin enpatizatuz gero, ikusten duzu indarkeriak gu guztiok baldintzatzen gaituela. Ahalduntzea da kontua, bizi izandakoaz konturatzea, horren jabe izatea eta hura modu eraikitzailean bideratzea, gertatutako guztia ez dadin errepikatu edo ahaztu".*

> *"Borondatea badut. Ez daukat bakearen oso ikuspegi instituzionala; uste dut norbanako bakoitzak bultza dezakeela nik bake gisa ulertzen dudan hori, ingurunean egoteko, elkarreragiteko eta harremanak izateko duen modutik abiatuta".*

Beste alde batetik daude eraikuntzari garrantzia eman, eta, horretarako, erakundeek zein beste eragile politiko eta sozialek antolatutako proiektu eta ekimenetan parte hartu behar dela dioten gazteak (baita Interneten eta sare sozialen bitartez ere). Hala eta guztiz ere, uste dute informazio-suspergarri gehiegi daudela, eta horrek zailago egiten duela arlo horretan interesgarri iruditu ahal zaizkien ekimenak bilatzea; gunerik ez dagoela, edota gune horiek gazteentzat prestatuta ez daudela ere hauteman izan dute noizbait. Horren guztiaren aurrean, batzuek proposatu dute parte-hartzean heztea, blokeoa gainditzeko:

> *"Elkartegintzan ez bazaude, ez zara gai honetaz enteratzen. Informazio gehiegi daukagu eta azkenean ez dugu kasu handirik egiten dauzkagun aukerei. Txikitatik sentsibilizazio lana egingo balitz agian gaztea izatera iristerakoan gai hautean sartuak egongo ginateke...".*
>
> *"Espazio asko daude parte-hartzeko, batzuk hala ere estigmatizatuak darraite eta beste batzuk beraien formetan anakronikoak dira. Egun gainera, sare sozialekin aukera gehiago dituzu, baina parte-hartzearen heziketa beharrezkoa da. Eta parte-hartzea, parte-hartzen soilik ikasten da".*

Azpimarratu beharra dago gai horiei lotutako ekimenetan parte hartzerakoan zalantzan jartzen direla baldintzatzaileak izan daitezkeen zenbait faktore, hala nola: jarduera nork antolatzen duen; zein xede dituen; edota gazteek egindako ekarpenak zelan erabiliko diren, eta zer garrantzi emango zaien.

> *"Ez dut hari buruz hitz egin didan, edo parte hartzera gonbidatu nauen inor ezagutu. Nik ere ez dut bilatu, baina suposatzen dut bilatuz gero, aurkitu egingo nukeela. Hori bai: jakin beharko nuke zeintzuk diren helburuak, taldean sartu, eta hura nire tokia ez dela konturatu aurretik".*
>
> *"Gazteei proposatzen zaien 'parte-hartzea' orokorrean iritzi emate hutsa izaten da, argazki politikoetan ondo gelditzeko, errealitatean ez da gazteen esana errespetatu edo kontuan hartzen eta benetako parte hartzeak hori eskatzen du, ez iritzi emate soila".*

//// GAUR EGUNGO EGOERA

13. Euskadiko gaur egungo bake eta bizikidetza egoerari buruz, zer balorazio egiten duzu?*

Maila: 0tik (ezin txarragoa) 10era (ezin hobea)

- Ezin txarragoa edo oso txarra (0 eta 1)
- Txarra (2 eta 3)
- Balekoa, baina ez nahikoa (4, 5 eta 6)
- Ona (7 eta 8)
- Oso ona edo ezin hobea (9 eta 10)



* Adina da gaur egungo egoeraren hauternatea baldintzatzen duen faktoreetako bat, edo, beste modu batera esanda, Historiaren zein unetan jaio garen, eta noiz hasi garen (elkarrekin) bizi garen errealitatearen kontzientzia hartzen. Beraz, kasu honetan, galderetara erantzun dituzten gazteen adinaren barne-analisitik ondorioztatutako informazioa ere jaso da.

Emaitzak adinaren arabera islatzen dituen grafikoa:

- 18 - 21 urte
- 22 - 25 urte
- 26 - 30 urte

Maila: 0tik (ezin txarragoa) 10era (ezin hobea)



Inkesta egin duten gazteen erdiek balekoa (4-6 bitartekoa) eman diote Euskadin bakeak eta bizikidetzak gaur egun bizi duten egoerari. Joera gehiago da baikorra, ezkorra baino: % 35,5ek 7-10 bitarteko puntuazioa eman diote, eta % 14,6k, berriz, 0-3 bitartekoa.

Era berean, 26-30 bitarteko gazteak dira jarrera baikorrena agertu dutenak, egoera 'Balekoa' eta 'Ona' artean kokatzeko joera egonkortu baita haien artean. Aitzitik, 18-21 urtekoen taldearen hautematea desegonkorragoa da.

14. Eta, zure ustez, honako sentsazio hauetatik, zein(tzuk) islatzen du(te) hoberen gaur egun egoera nola bizi duzun? (Nahi dituzun guztiak hautatu ahal dituzu):

Ehunekoak lortu dira galdetegia erantzun duten 62 gazteek hautatutako 210 aukeretan oinarrituta; batez bestean, norbanako bakoitzak 3,4 aukera hautatu zituen. Hona hemen, ordea, erantzute-pauta erreala:

Aukerarik ez	% 1,6
Aukera bakarra	% 13
Aukera bi	% 11,3
Hiru aukera	% 30,6
Hiru aukera baino gehiago	% 41,9



Itxaropena	% 17,6
Konpromisoa	% 13,3
Ilusioa	% 10,5
Konfiantza	% 7,6
Zuhurtasuna	% 8,1
Eszeptizismoa	% 6,7
Nahasmendua	% 6,2
Nekea	% 9,5
Dezepzioa	% 7,1
Ezintasuna	% 5,7
Frustazioa	% 4,3
Asperdura	% 2,9
Axolagabekeria	% 0,5

15. Egoki ikusten baduzu, aurreko bi galderetan eman duzun erantzunen zergatia adierazi ahal duzu.

% 72,6k nahiago izan du ez erantzun. Gainerako % 27,4ren erantzunetatik, berriz, zera ondorioztatzen da:

Iritzi gehienetan eskema bi errepikatzen dira. Lehenengoak aipatzen du norbanako bakoitzak bere ikuspuntua eraikitzeko erabiltzen duen ardatza: iraganean gertatutakoaren errelatoak, protagonistek eta gertakariek baldintzatu egiten dute orainaldiari buruzko ikuspuntua (izan baikorra ala ezkorra) eta, beraz, horri lotutako sentsazioak ere bai.

> *"Nekez aldatuko dugu gaur egungo egoera, banderen, ereserkien edo sinboloen atzean babesteari uzten ez badiogu. Egia da ETAren amaieratik bake fisikoa lortu dugula, baina ez bake mentala".*
>
> *"Euskal Herriko agente politiko eta sozial ezberdinek gai hau beraien interesen arabera erabiltzen dute. Tresna politiko bezala eta ez benetako zintzotasunez, irabazi-galtzaile eskema inposatu nahi da".*
>
> *"Gaur egungo bizikidetza eta bake egoera, zapalduen bizikidetzan datza, historikoki zapalduak izan direnak (euskaldunak) gutxi kexatzean. Ez dago ez bizikidetza kulturarik ez hizkuntz bizikidetzarik, baizik eta hainbat komunitate lurralde batean".*

Bigarren eskemak bereizi egiten ditu, batetik, alderdien eta gobernuen jardun politikoek eragindako sentsazioak, eta, bestetik, gizartearen egoera eta bizikidetza. Jardun politikoari dagokionez, nekea, frustrazioa, asperdura eta ezintasuna bezalako sentsazio ezkorrak eragiten dituzte ez atzera ez aurrera ez doazen jarrera eta diskurtsoek, alderdikeriak eta biktimen zein biktimagileen politizazioak. Aldiz, ilusioa edo gertatutakoa eta horren ondorioak gainditzeko itxaropena bezalako sentipen baikorrak eragiten dituzte gizartearen egoerak edota bizikidetzak duen tankerak. Hala eta guztiz, azpimarratzekoa da aurrerapenak oso geldo doazela ere hautematen dutela.

> *"Gizarteak erakutsitako konpromisoak eta bizi dugun prozesuak baikor izateko modukoak dira. Memorian eta erreparazioan ari dira lanean, indarkeriaren arrasto guztiak oraindik desagertu barik badaude ere; beste gizarte batzuetan, denbora gehiago behar izaten du horrek. Klase politikoaganako eszeptizismo eta asperdura sortzen du ikusteak, batzuetan, bere horretan mantentzen direla, jarrerei eta diskurtsoari dagokionean: nahiago izaten dute alderdi politiko bakoitzaren ikuspegi partikularra gailentzea, interes komuna baino".*
>
> *"Batzuetan geldoegi doaz aurrerapenak, eta, tarteka, geldi egoten da prozesua. Gainera, hauteskundeekin oso lotuta dago dena. Horrek nolabaiteko frustrazioa eragiten dit, baina, hala ere, uste dut egoera, oro har, nahiko ona dela, eta baikorra naiz".*
>
> *"Fedea daukat gizakiongan. Uste dut ideologia edozein izanda ere, bakeak edozein proiektu politiko baino gehiago elikatzen gaituela".*

16. Zein hiru hitzekin lotuko zenuke bakea?

Hitz bakoitzak jasotako aipamen kopuruaren arabera egindako grafikoa:

17. Zure ustez, zeintzuk dira bakea erdiesteko arazo nagusiak? (Nahi dituzun guztiak hautatu ahal dituzu):

Ehunekoak lortu dira galdetegia erantzun duten 62 gazteek hautatutako 274 aukeretan oinarrituta; batez bestean, norbanako bakoitzak 4,4 aukera hautatu ditu. Hona hemen, ordea, erantzute-pauta erreala:

Aukerarik ez	% 1,6
Aukera bakarra	% 8,1
Bi edo hiru aukera	% 21
Lau edo bost aukera	% 43,5
Bost aukera baino gehiago	% 25,8

- Errelato eta memoria bakarrak bilatzea.
- ETAren amaieraranzko aurrerapauso sendo eta behin betikorik eza.
- Tartean dauden politikariek eta gobernuek elkarrizketarako eta irtenbide partekatuak biltzeko konpromiso irmo falta.
- Ezker abertzalearen eta ETAren ingurunearen artean egon den/dagoen lotura estua.
- Terrorismoa eta indarkeria politiko desberdinak gaitzestea eta horien aitortza publikoa egitea.
- Preso daudenen egoera eta espetxe-politika: sakabanaketa, zigorrak ez berrikustea, eta abar.
- Tortura-kasuak ez ikertzea.
- Gazteen militantzia politikoa kriminalizatzea edota estigmatizatzea.
- Komunikabideetan eta gizartean, oro har, dagoen adierazpen-askatasun ahul eta manipulatua.
- Norbanakoen ideologia politikoari lotutako aurrejuzguak, eta horiek aldatzeak eragindako mesfidantza (damua, eta abar).
- Indarkeriarik eza (orain bezalaxe) da Euskadin lor daitekeen bake-mailarik altuena.
- Besterik*.



*** Gazteek honako arrazoi hauek gaineratu dituzte:**

"Aukera politiko guztiak errespetatzea".
"Autodeterminazio prozesua ukatzea, eta euskal kulturaganako errespetu falta".
"Espainiako Gobernua".
"Klase politikoaren eta alderdi politiko guztien alderdikeria".
"'Bakea' ulertzeko modu desberdinak".
"Desberdinkeriak, diskriminazioa eta aurrejuzguak gainditzea".
"Tolerantziarik eza".
"Autokontzientziarik eza".

18. Zure ustez, giza eskubideak berriro bortxatuak izango diren testuingurua errepika daiteke?*



***Gazteek honako arrazoi hauek gaineratu dituzte:**

"Nire ustez, gaur egun ez dira eskubideak errespetatzen" - Erantzun hori eman dute galdera honi erantzun dioten gazteen % 8,5ek.

"Gure aldetik eman behar dugula uste dut, hala gerta dadila ekiditeko".

"Agian".

"Espero dut ezetz".

Galdera horren barne-analisiak erakusten du kontsultatutako gazteen % 15ek ez duela erantzun nahi izan: % 4,8k ez du erantzun, eta % 10,2k 'Nahiago dut ez erantzun' hautatu du.

18-21 urte bitartekoen % 80k uste du errepika daitekeela giza eskubideak berriro bortxatuak izango diren testuingurua. Areago: adin-tarteko batek ere ez du 'Ez' hautatu: % 13,3k, proposatutakoen artean ez zegoen beste erantzun bat eman du; eta % 6,7k 'Nahiago dut ez erantzun' hautatu du.

22-25 urte bitartekoen, eta 26-30 urte bitartekoen artean ere, antzekoa da joera. Bat egiten dute 18-21ekoek emandako iritziarekin, baina maila txikiagoan: 22-25 urte bitartekoen % 57,1ek, eta 26-30 urte bitartekoen % 57,1ek uste du errepikatu egin ahal dela giza eskubideak berriro bortxatuak izango diren testuingurua.

* Adina da gaur egungo egoeraren hautematea baldintzatzen duen faktoreetako bat, edo, beste modu batera esanda, Historiaren zein unetan jaio garen, eta noiz hasi garen (elkarrekin) bizi garen errealitatearen kontzientzia hartzen. Beraz, kasu honetan, galderetara erantzun dituzten gazteen adinaren barne-analisitik ondorioztatutako informazioa ere jaso da.

19. Aurreko galderarekin lotuta, nola irudikatzen duzu egoera 2030ean?

Galdetutako gazteen % 98k erantzun egin du.

% 14,7k, 'Ideiarik ez/Ez dakit' erantzun du.

% 9,8k, berriz, 'Gaur egungoa bezalakoa/Antzekoa' erantzun du.

Deskribatutako gainerako errealitateetatik (% 75,5), zera ondorioztatzen da:

Ideiarik ere ez daukat, baina espero dut ETAz gain, bakeari halabeharrez eragiten dioten beste kontu batzuei buruz ere hausnartu ahal izatea (immigrazioari buruz, esaterako).

ETAk bere lekua izango du, oraindik, bizitza politikoan, biktima askok bizirik jarraituko dutelako, eta ez delako talde armatuaren jardueraren gaineko tabula rasarik egingo. Ez dut uste 2030ean indarkeria politikorik emango denik –Poliziak edota norbanakoren batek egindako ekintza isolaturen bat kenduta–.

Berdintasuna, askatasuna, bakea, elkarrizketa, errespetua, maitasuna.

Gure aldetik eman behar dugula uste dut, hala gerta ez dadin. Espero dut garai horretako gizarteak aurrerapausoak ematen jarraitzea, denon artean etorkizun hobea lortzeko.

Uste baino gehiago nola nahiko nukeen azalduko dut: ezberdinen artean zerbait polita eraikitzen (erronka oso-oso zaila) eta aurreko kontua asko eskatzea bada behintzat abertzale garenon artean izatea. Zailena hasiera dela uste dut (oraingo garai hauek), seguru nago martxa hartuko dutela eta 2030 urterako zauri asko itxita edo ixten joango direla (sendatzea zaila baina behintzat itxita aurreikusten ditut). Gauza guztiekin bezala zaila oinarria/basea izaten da (orain eta denbora batez hori da aurrean dagoena). Behin hori ondo landuta, eraikitzea askoz ere errazagoa dela uste dut. Sinesten dut guztion ekarpenekin oinarri sendo hori lortuko dela eta hemendik hamabost urtera gauzak ezberdinak izango direla.

Atzera begiratu, eta pentsatuko dugu: zelan izan ginen gai egoera hura bizitzeko?. Ez da erraza, baina gustatuko litzaidake aukera politiko guztiak errespetatuak eta aintzat hartuak diren Euskadi/Euskal Herri bat, non ezker abertzaleko jendeak parte hartuko duen biktima bati egindako omenaldian, edota PPren zinegotzi bat gustura sentituko den Herriko Taberna batean. Norbanako orok bat egingo dugun herria, alegia.

Nolakoa izango den asmatzea oso zaila da. Nolakoa nahiko nukeen berriz: bakea eta bizikidetza nagusi den herrialde bat, non edonor bere pentsamendu edo ideologiagatik baztertua ez dena eta euskaldunok gure etorkizuna bakean eta askatasunean erabakitzeko eskubidea bermatua duguna.

ETAren amaiera oso batek eta presoen etxeratze batek asko leunduko lituzke gaur egungo hesi asko. Ordurako, egoera normalizatua eta biktimak duin uztartzen dituen gizarte bat espero dut.

Elkarbizitzari dagokionez normaltasuna izango dela nagusi uste dut. Denborak aurrera egiten du eta elkarbizitzara behartzen gaitu denborak.

Espero dut urte hartarako gure herrian bizitakoa historia besterik ez izatea, eta honelako arazo batekin nola bukatu ikasteko balio izatea.

Zaila izan da bereiztea *etorkizun errealista* eta *etorkizun idealista* proposatzen zuten erantzunen artean: zuzenean zein zeharka, sarri aipatu dute ezinezkoa zaiela 2030erako balizko egoera irudikatzea, eta, horren ordez, adierazi dute etorkizuna zer-nolakoa izatea nahi luketen.

Adierazi, era berean, batzuek erantzun orokorragoak eman dituztela, hau da, eremu sozial eta politikoan egongo litzatekeen bizikidetza-giroa aipatu dutela; beste batzuek, berriz, irudi xeheagoa eman dute, eta eragile zehatzak ere sartu dituzte tartean.

Era berean, erantzunetan konstante batzuk eman dira. Espero dute 2030erako ETA guztiz desagertuta egotea; preso daudenak hurbildu izana; Espainiako eta Frantziako Gobernuek beren jarrerak desblokeatu izana; biktima orok dagokion aitortza jaso izana; inor mehatxatua edo kriminalizatua izan ez dadila bere ideia politikoengatik; eta autodeterminazio eskubidea aintzat hartua izatea (batzuk urrunago joan, eta esan dute 2030ean gaur egungoaz besteko estatu-ereduak egongo direla). Beste alde batetik, memoria eta iraganari buruzko errelatoa izan dira gairik korapilatsuenak, batzuek uste dutelako ETAren ideologiak hor jarraituko duela (hura babestu dutenen bitartez, edota biktimengan utzitako ondorio ahaztezinak tarteko).

Espero dudana da, baztertutako gai egoerak, alde guztiak denak edozein mahaietan lasai hitz egin ahal izatea. Mahai politikotan, etxeko mahaian, familiakoan, kuadrilakoan... Horrek adieraziko lukeelako benetako beharrezko aldaketak eman direla.

Estatuen borondatearen arabera, baina batez ere herritarron konpromisoaren arabera, modu batera edo bestera. Biktima guzti-guztien aitortza egongo dela uste dut, eta elkarbizitzarako pausoak emango direla, baina herritarren partetik. Ez dut uste Frantzia eta Espainiako gobernuek ekarpen positiborik egingo dutenik.

Iraganean gertatu bazen, berriz gertatu daiteke; horrek ez du esan nahi hala izango denik, horretarako lan egiten badugu. 2030ean lehentasunak guztiz aldatuko dira politikoki. Iraganetik ikasi egingo dugu, ez da indarkeriarik egongo eta diskurtso bakezaleak gailenduko dira. Hala ere, oraindik izango dira indarkeria justifikatzen duten gutxiengoak. Memoriaren inguruan ere izango dira desadostasunak.

Gazte batzuek uste dute inflexio-puntu bat bizi dugula, non ez den argi ikusten gertakariek, epe laburrera, norantz joko duten. Hori dela eta, etorkizunean ere irudikatzen dute egoera ez doala *ez atzera ez aurrera* (gogoratu beharra dago % 9,8k esan duela egoera izango dela 'Gaur egungoa bezalakoa/ Antzekoa'). Zentzu horretan, maila bi bereizten dira: batetik, gobernuen eta alderdi politikoen jarrera eta erabakiak; eta bestetik, gizartearen errealitatea, herritarren bizikidetza-giroa.

Beste gazte batzuek uste dute bizikidetzan lan egiten jarraituko dela, baina ez bakarrik terrorismoaren eta indarkeria politikoaren ondorioetara bideratua, baizik eta gizartearen desberdinkeriak kudeatzeari lotutako arazoak jorratzeko (immigrazioa, desberdintasun ekonomikoak, eta abar). Horrek guztiak, gainera, lehentasun politikoak aldatzea eragingo du.

Azkenik, beste batzuek uste dute etorkizunean gainditua egongo direla bizikidetza oztopatzen duten traba guztiak, eta begirune, askatasun eta tolerantzia handiagoa egongo dela. Indarkeria apenas agertuko den, eta eztabaida politikoak akordioak erdiestera bideratuak egongo dira. Etorkizun horretan argi ikusiko da desberdintasunak aberasgarriak direla gizartearentzat, eta giza eskubideak babestuko ditu mundu guztiak ('bestearenganako' gorrotoa darabilten diskurtsoek ez dutelako inolako babesik izango).

20. Adieraziko duzu, mesedez, zuk, gazte bezala, zer egin/egiten duzun edo zer egingo zenukeen bakearen eta bizikidetzaren alde?

Galdetutako gazteen % 98k erantzun egin du.

% 8,2k, 'Ideiarik ez/Ez dakit' erantzun du.

Gainerako erantzunetatik (% 91,8) zera ondorioztatzen da:

Gazteek bakean eta bizikidetzan laguntzeko egindako ekintzak zenbait mailatan banatuta daude, bizitzaren dimentsio ezberdinen pareko direnak, hain zuzen ere.

Eremurik intimoeneko ekintzen artean (nork bere buruarekin egindako lanari eta gogoetari lotutakoak), honako hauek gailentzen dira: ikasitako egiturak eta ereduak zalantzan jartzea; aurrejuzguak gainditzea; aditzen eta hitz egiten ikastea; eta abar.

> *"Garrantzitsuena izan da nire barne-garbiketa prozesua. Ez dira gauza bera entzutea eta enpatiatik aditzea. Pentsamolde irekia izan, eta bakea benetan sustatzeko, nire ustez, ezinbestekoa da barne-lana egitea. Hori errelato ideologikoa egitetik harago doa, errelato hori bakezalea bada ere. Horri esker ulertu ahal izan dut bakea eta gizarteari lotutako guztia gai zeharkakoak direla, ez direla arlo politikoan kokatzen. Orain, saiatzen ari naiz hausnartzen zelan gauzatzen den bakea enpresa batean, auzokideen komunitatean, familian, eta abar. Ingurune eta errealitate asko bizi ditut, eta asko estimatzen dut askotariko pertsonekin elkarreragiteko daukadan aukera. Pozik nago aniztasun hori onar dezakedalako lotsatu gabe eta itxi gabe. Hori egiten dut egunero".*

> *"Ikusteko dago etorkizunak zer ekarriko duen. Oraindik ez dakit bakeari lotutako nire jarduera nola bideratu, baina badakit niretzat hori leitmotiv bat dela, ez dudala nire bizitza-proiektua ulertzen gizateria baketsuago bat sortzeko lan egin gabe (nork bere buruarekin eta gainerakoekin bakean bizitzeko)".*

Pertsonarteko mailari lotutako ekintzei dagokienez, non ingurukoak ere nahasten diren, zera aipatu da: elkarrizketak bultzatzea ingurune askeago, lasaiago batean; ezagutzak transmititzea; beste batzuk motibatzea, gaiari buruzko haien interesa pizteko edota jardueretan parte hartzeko; beste belaunaldietako pertsonen bizipenak aditzea; eta abar.

> *"Heztea, informatzea, motibatzea, gazteei ulertaraztea bakearen eta askatasunaren alde borrokatu behar dugula, posible dela mundu bidezkoagoa izatea".*

> *"Ikasitakoari buruzko balore edo ezagutzak transmititzen saiatzea inguruan ditudanei; bizi naizen gainerako errealitateenganako interesa agertzea...".*

> *"Bakea bultzatzeko inplikatu nahi ditudan horiek informatu, informazioa jasotzeko aukera bat eman eta aukera hori benetan baliagarria dela erakutsi, jakinarazi".*

"Garrantzitsuena kontzientzia sortzea da. Hori oso erraza da. Lagunekin kafe bat hartzera joan eta gaia ateratzea besterik ez da. Azken finean gaia normaltasunez jorratzeko lekuak sortzea da, modu pribatu eta publikoan, hau da, bilera ofizialak eta lagunarteko elkarrizketak. Oso garrantzitsua da ere, helduekin hitz egitea. Beraiek baitira gatazka honen protagonista zuzenak eta inork ezingo du beraiek baino hobeto kontatu gertatutakoa. Pasatakoa aurrez aurre hartzea da egin behar duguna. Eta horren gainean, arestian esan dudan bezala, oraina eta etorkizun baketsua eraikitzen joan".

"Ingurukoekin ahal den modu lasaienean eztabaidatu eta horren beharraren kontzientzia hedatzen saiatu. Horretaz gain iritzi ezberdina dutenekin hitz egiten saiatu (edo euren hitzak irakurri/entzun)".

Komunitateari eta gizarteari lotutako ekintzen artean, hauexek nabarmen daitezke: eragile desberdinek antolatutako jardueretan parte hartzea; bizi izandakoaren testigantza ematea; giza eskubideak defendatzea egunerokotasuneko edozein egoeratan; desberdin pentsatzen dutenen arteko topaguneak sortzea; eta abar.

"Parte-hartze aktiboa daukat elkarteetan eta sentiberatze-kanpainetan. Puntualki parte hartzen dut, era berean, norbanakoen eskubideei, adierazpen-askatasunari, eta abarri lotutako egun esanguratsuetan".

"Eskura ditudan guneetan parte hartzea, gizartean eraikitzeko aurrera egiten lagunduko digun elkarrizketa eraikitzeko".

"Gazte ekimen ezberdinetan parte hartu. Aurreiritzietatik haratago edonorekin hitz egin eta elkarbizitza egoki eta normal bat sustatu. Jendearen iritziak entzun eta eurengatik ikasi. Nire pentsamendua ez dutenekin elkarbizi, elkarren arteko horma horiek ez eraisteko".

Azkenik, gutxien aipatutakoen artean daude arlo politiko eta publikoari dagozkion ekintzak: botoa ematea; giza eskubideen bortxaketak salatzea; manifestazioetan parte hartzea; eta abar.

"Bozkatu".

"Errespetuz jokatu eta biolentzia mota guztiak gaitzetsi eta biktimak babestu. Horrez gain, instituzioei aurrerapausoak eman ditzaten eskatu".

+1 Uneren batean nahi izan duzu galdetegi hau bertan behera utzi?



Zergatiari buruz galdetzean, % 53,2k nahiago izan du ez erantzun. Gainerako % 46,8ren erantzunetatik, berriz, zera ondorioztatzen da:

Gazteen erantzunak bi multzotan banatu dira. Alde batetik daude galdetegiak maila pertsonalean eragindakoaren arabera erantzun dutenak:

> *"Zentzuzkoak edo logikoak diren gauzak idatzi eta defendatu behar izateak frustrazioa sortzen dit (gizarteak horrela pentsatzen ez duenaren sentsazioa sortzen bait dit)".*
>
> *"Gustuko ditut galdetegiak, baina galdera batzuei erantzutea zaila egin zait".*
>
> *"Hausnarketak egin behar dira eta zure burua analizatu, eta beti ez zaude gogotsu hori egiteko".*

Beste alde batean daude proposatutako gaiak, galderen kalitatea eta aukeran emandako erantzunak egokiak eta beharrezkoak izan direla uste izan dutenak. Kasu horretan, jasotako iritzien dikotomia eman da: batzuek uste izan dute galdetegiaren ikuspuntua ez dela aproposena izan, eta beste batzuek uste izan dute baietz.

> *"Lotuago egon da politikarekin, gai sozialekin baino".*

"Gehiegi azpimarratzen du bakea eta bizikidetza ETA nola gainditzen dugun, baina horretan baino zerbait gehiagotan datza kontuak".

"Zenbait galdera oso espezifikoak dira eta azalpen gabe modu desberdinetara interpreta daitezke, hau da, informazioa manipulatu daiteke".

"Hautu anitzeko galderetan, erantzun aukera batzuk falta ziren".

"Lotuegi dago ETAren inguruko politikarekin, baina, nire ustez, gai horrek TABUa izaten jarraitzen du gizartearen zati handi batentzat: kuadrilla, familia, eta abarrean ezinezkoa da gai horiei buruz askatasunez aritzea. Hala ere, beharrezkoak dira, nire ustez, gazteok dugun benetako hautematea ikusteko".

"Interesgarria delako gaia eta formatua ondo dagoelako. Gustatu zait emozioekin ere lotu izana".

"Gizarteari sarriago kontsultatu beharreko gaiak jorratu ditu".

BAKEZALEAK

ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK

Argitalpen honen lehen kapituluan ("Bakeahots: proiektuak eta gogoetak") azaldu bezalaxe, EGKren Bake eta Bizikidetza lantaldea (*Bakezaleak*) 2015ean sortu zen, gune erreferente bat izateko xedearekin, non gazteek gai horiei biei buruzko bizipenak eta ikuspuntuak partekatuko zituzten. Lantaldeak bere egindako lehen erronka izan zen bakeari eta bizikidetzari lotutako Nazioarteko Egunetarako ekimenak pentsatzea, prestatzea eta garatzea*.

2016an sendotu egin zen taldea, eta helburu berri bat erdiesteko konpromisoa hartu zuen. Gazteek etorkizun baketsu baten aurrean zituzten erronkak abiapuntutzat hartuta -hain zuzen ere, **Bakehizketak**** topaketan identifikatutakoak-, aldizkako bilerak egin zituen lantaldeak, helburu bikoitz eta banaezina zuten proposamen sorta bat egiteko:

> *Gazteak aldaketaren subjektu izatea bilatzen da, hau da, bizi diren errealitatearen jabe izan, eta errealitate horrekin jarrera kritikoa duten pertsonak izatea, aldaketarekin engaiatuta daudenak eta proaktiboak direnak. Horrekin batera, bilatzen da erakundeek eta esparru politiko, sozial eta mediatikoak dagokion aitortza egitea gazteek bake-prozesua eraikitzeko egindako ekarpenari.*

Gero, **Bakehizketak** topaketan antzemandako erronkak berriro identifikatu, eta, batzuetan, horiei aurre egin ahal izateko proposamenak planteatu ziren. Proposamenak, erronkak ez bezala, lehen pertsona pluralekoan idatzita daude, eta beste letra-tipo batekin. Zenbait mailatan sailkatzen dira proposamenak, hala nola: 'Mikro'ak (norbanakoen eta komunitateen prozesuei lotutakoak), 'Meso'ak (zeharkako gaiak, 'Mikro' eta 'Makro'ei aplikagarri zaizkienak), eta 'Makro'ak (politika publikoei, komunikabideei, hezkuntza-erakundeei edota gizarte zibileko taldeei zuzenduak).

* Proiektuari buruzko informazio gehiago dago "Nazioarteko Egunak" atalean, "Bakeahots: proiektuak eta gogoetak" kapituluan, argitalpen honetan bertan.

** Proiektuari buruzko informazio gehiago dago "Bakehizketak II" atalean, "Bakeahots: proiektuak eta gogoetak" kapituluan, argitalpen honetan bertan.

GUNEAK SORTZEA

Desberdinen arteko topaketak ahalbidetuko dituzten guneak sortzea da bizikidetzan aurrerapausoak emateko erronka garrantzitsuenetako bat (batez ere, gizarte mailan). Hamarkadetan zehar, 'batzuetan' eta 'besteetan' banatua egon da gizartea. Polaritate horren ondorioz, erdian zeudenek, behartuta, *bando bata ala bestea* hautatu, edota bazterrean egon behar izan dute, isilik. Askotariko guneak (horien forma edozein dela ere: fisikoa, birtuala, eta abar) saiatzen dira hamarkadetan zehar 'batzuen' eta 'besteen' artean eraiki, eta ikusten ez diren hesiak, mesfidantza eta aurrejuzguak leuntzen, eta gertatutakoari buruzko errelato desberdinak aditzea eta ezagutzea bultzatzen dute.

//// 'MIKRO' PROPOSAMENA

Borondatezkoa eta proaktiboa izan behar da guneen sorrera eta bertan parte hartzea: ez du erakundetua izan behar. Gune bakoitza hedatze-uhin bat bezalakoxea da: nukleo txikietan jaiotzen da (kuadrillak, komunitateak) eta handitzen doa, talde bakoitzak hautatutako lana ezagun egin ahala (talde bakoitzak erabaki behar du zer eta nola landuko duen). Garrantzitsua da taldea txikia izatea (gehienez ere, 15 edo 20 lagun), eta bakoitzak bere izenean parte hartzea, jarrera eraikitzailearekin, batzeko xedearekin. Parte-hartzaileak gai izan behar dira beren interes partikularrak bigarren mailan jartzeko eta, horren bidez, emaitza partekatuak lortzeko; emaitza horiek onuragarriak izango dira, ez bakarrik taldeetan parte hartzen dutenentzat, baizik eta gizarte osoarentzat.

//// 'MAKRO' PROPOSAMENA

Hezkuntzarako erakundeak (unibertsitateak)

Proposatzen dugu unibertsitateak izatea ikasleen artean gogoetarako eta eztabaidarako guneak sortzea bultzatuko dutenak, barruko beren ohiko bideetatik. Horrela eginez gero, gune horiek sortzeko interesa dutenek aukera izango lukete fakultate bakoitzeko irakasle laguntzaileengana eta ordezkariengana jotzeko: batetik, gainerako ikasleak motibatzeko eta haien parte-hartzea lortzeko; eta bestetik, topaketak antolatzeko erraztasunak emateko (aretoak uztea, materiala lagatzea, eta abar). Iraganari, errelatoari eta memoria sozialari buruzko gogoetak ez badu, berez, jendearen interesa pizten, gomendatzen dugu gaur egungo gertakarietatik abiatzea eta, gero,

gertakariok aipatutako gaiekin lotzea. Beste alde batetik, proposatzen dugu unibertsitate arteko sareak sortzea elkarrizketarako foroak suspertzeko, oso bestelakoa baita iraganeko eta gaur egungo euskal unibertsitateen errealitatea.

Komunikabideak (irratia)

Euskadiko irrati-kateei proposatzen diegu gazteek zuzendutako irratsaio bat antolatzeko, aipatutako gaiak lantzeko –bai iraganean gertatu zenetik (testigantzak, bizipenak eta egiak), bai orainaldian bizikide diren ikuspuntuetatik abiatuta (gertatutakoari buruzko gertakariak, gaurkotasuna dutenak)–. Irratsaioa egitea bideragarria ez bada, Autonomia Erkidegoan dagoeneko martxan den programa batean podcast bat txertatzea planteatzen dugu, edota eduki horren zabalkundea egitea Interneten eta sare sozialetan, aldian-aldian. Esan beharra dago irratsaio edo podcast horrek ez lituzkeela esku-hartze guztiak hartuko: ezinbestekoa da, gure ustez, bizitzaren eta giza eskubideen balioari lotutako gutxieneko batzuk bermatzea. Hartara, ez litzaieke tarterik eman behar eraso pertsonal edo kolektiboetan oinarritutako iritzi eta errelatoei, ez eta indarkeria bidezkotu, eta eraikitzaileak edo suspergarriak ez liratekeen ekarpenei ere. Uste dugu irratia dela proposamena aurrera eramateko komunikabide egokiena: idatzizko prentsan ez bezala, irratian hobeto antzematen delako norbanako bakoitzak bere iritzi edo errelatoari ematen dion doinua; eta, telebistan ez bezala, humanizatu egiten du, anonimotasuna guztiz galdu gabe.

HIZKUNTZAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA

Terrorismo eta indarkeria politikoko hamarkadetan zehar, hizkuntza eta, zehazkiago, kontzeptu eta ikur jakin batzuk (hizkuntza, banderak, jaiak, plazak eta kaleak, eta abar) sektore politikoek ezarri, eta galbideratu egin dituzte. Zer egin, ordea, hizkuntzak berez dakarren zama ideologikoa arintzeko?

//// 'MESO' PROPOSAMENA

Hona hemen hizkuntzaren erabileran normalizazioa lortzeko edozein gaztek praktikan jar lezakeen proposamen sorta bat: kontzepturik kutsatuenek dituzten konnotazioei buruzko gogoeta egitea, eta horiek erabiltzen dituztenenganako aurrejuzguak desmuntatzea; hizkuntzaren erabilera pribatu eta publikoaren

artean bereiztea; eguneroko elkarrizketetan umore politikoa txertatzea; enuntziatuen anbiguotasuna baztertzea (desadostasunik ez eragiteko) eta zehaztasunera jotzea (erosoa ez bada ere); eufemismorik ez erabiltzea; besteek egindako hizkuntzaren erabilera desdramatizatzea; politizatutako ikurrak askatzea, horiek gizarteratzea eta normalizatzea; eta abar.

//// 'MAKRO' PROPOSAMENA

Gizarte zibil antolatuari (zehazkiago, adin desberdinetako jendearekin lan egiten duten elkarteei) proposatzen diogu muralak egin ditzala, belaunaldi bakoitzak kontzeptu kutsatuenei buruz ematen dituen definizioak islatu eta erkatu ahal izateko. Helburua da kontzeptu horiek denboran zehar berenganatzen (eta transmititzen?) joan diren konnotazioak ezagutzea, ikusgai jartzea eta horiei buruz hausnartzea; testuinguruaren bilakaera ere ikusiko litzateke, hitz bakoitzaren definiziotik abiatuta. Hori dela eta, gomendatzen dugu muralak jartzea iraganak markatutako eremu publikoetan. Eta hitz hauexek proposatzen ditugu: euskal gatazka; gu; haiek; terrorismoa; indarkeria; herria; borroka; erradikalak; abertzalea; gudaria; Espainiako Estatua; Espainia; Euskadi; Euskal Herria; giza eskubideak; biktima; errelatoa; memoria; egia; preso politikoak; gaitzetsi; barkamena; damua; bakea; adiskidetzea; eta bizikidetza.

BELAUNALDIARTEKO ELKARRIZKETA SUSTATZEA

Belaunaldi guztiak, salbuespenik gabe, dira gatazkaren eta horren konponbidearen parte: erantzukizuna partekatua da, hala izan behar du. Zentzu horretan, hona hemen zenbait proposamen:

//// 'MIKRO' PROPOSAMENA

Isiltasuna da parte hartu dugun gogoeta-taldeetan sarrien agertu den kontzeptuetako bat. Gazteontzat, isiltasuna da gatazkari eta haren konponbideari lotutako gertakari, bizipen, sentimendu eta ikuspuntuen gaineko elkarrizketa arin eta natural falta. Gizarte-ehuna osatzen duten memoria eta harremanak berreraikitzeko, ezinbestekotzat jotzen dugu isiltasuna gainditzea (norberarena eta belaunaldiartekoa), baina ez edozelan. Beldurrik, mesfidantzarik

eta frustraziorik gabeko memoria ez-traumatikoa da transmititu behar dena –emozio horiek, normalki, nahita eragindako sufrimendutik jaiotzen dira eta–. Ez da lan makala, baina, hala egin ezean, isiltasunak ahanzturara eraman gaitzake, gertatutakoaz ez jabetzera eta, ondorioz, iraganean gertatutakoa errepikatzera. Uste dugu erronka hori ez dagokiola belaunaldi bati beste bati baino gehiago, baizik eta guztiak daudela maila berean. Erronka partekatua da, beraz: zaharrenek beren iraganarekin eta orainaldiko beren ikuspuntuarekin konektatu, eta guri transmititu behar digute (batzuetan, zeregin zaila da hori); gazteok, gure aldetik, jarrera aktiboa izan behar dugu, eta gure zaharren istorio eta iritzienganako interesa agertu behar dugu. Gainera, belaunaldiarteko isiltasunak gainditzeko, elkarrekin solasean egitera gonbidatzea proposatzen dugu, hau da: hurbileko belaunaldiarteko gure inguruetan partekatutakoaz hitz egitera gure kuadrillan edo gazteen beste talde batzuetan.

//// 'MAKRO' PROPOSAMENA

Gizarte zibil antolatua eta hezkuntzaren arloko erakundeak

1. Gai gatazkatsuak jorratzen ikasteko tailerrak antolatzera gonbidatzen ditugu astialdiko taldeak, hezkuntza-zentroak eta auzokideen elkarteak, hau da, belaunaldi ezberdinetako pertsonak. Batez ere, gazteenok bizi izan ez dugun iraganari lotutako gatazken gainean lan egitea proposatzen diegu. Tailer horietan parte hartuko genuke gazteok eta nagusiagoak direnak (senitartekoak izan ala ez), gertatutakoari buruzko beldurra, ezintasuna edo lotsa gainditzeko xedearekin. Tailer horiek, gainera, aukera emango ligukete gazteoi gaur egun eta etorkizunean dagokigun hezteko erantzukizuna jorratzeko.

2. Horren harira, proposatzen dugu gai horiek lantzeko berariazko udalekuak sortzea. 12 urtera arte, helburua izan beharko litzateke desberdintasunari buruz heztea; 12-16 urte bitartean, berriz, gatazka konpontzeari eman beharko litzaioke garrantzia. Era berean, gure gomendioa da antolatzaile eta dinamizatzaileak 18-30 urte bitarteko gazteak izatea, hain zuzen ere, bake-kultura eraikitzeko prestakuntza eta konpromisoa daukatenak.

Erakundeak eta eremu publikoa

Ezinbestekotzat daukagu gazteak ordezkatuta egotea aipatutako gaiei buruzko lan-batzordeetan eta alor horietako erakundeen batzordeetan (Gogora Institutua, Bake Kontseilua, Bake eta Bizikidetza Batzordea, Gizarte Foroa, eta abar). Modu horretan, belaunaldiarteko etena txikiagotu egingo litzateke, eta alor horietan ezarri eta garatzen diren politika publikoetan sendoago eragingo litzateke. Gainera, gomendatzen dugu gazteen ikuspuntua beti txertatzea erakundek antolatutako oihartzun publiko handikoa proiektu eta ekimenetan.

HEZIKETA, ARDATZ TRANSBERTSAL GISA

Heziketa da tresna gakoa ikasteko zergatik ezin den sekula indarkeria bidezkotu, eta memoria traumatikoa transmititzea ekiditeko. Egia da nork bere etxean eraikitzen duela heziketaren oinarria, baina hezkuntza formal eta ez-formaleko erakundeek ere ardura handia dute alor horretan.

//// 'MAKRO' PROPOSAMENA

Ikastetxeek eta prestakuntza-zentroek, institutuek eta unibertsitateek desberdintasunaren kudeaketa barneratzailea, gatazkak modu eraikitzailean konpontzea eta trebetasun emozionalak eta sozialak garatzeko edukiak jaso behar lituzkete, transbertsalki, beren hezkuntza-programetan. Zeregin horretan, erabakigarria litzateke biktimen eta biktimagileen testigantzak biderkatzea, ikasgeletan hitzaldi suspertzaileak emateko aukera ematea (ikasleei zein haien senideei zuzendua); begirunearen, tolerantziaren eta bizikidetzaren aurkako iruzkin eta portaerei zilegitasuna kentzea; gai horiei buruzko tokiko berrien bidez gogoeta eta eztabaida bultzatzea; eta abar.

'IDENTITATE-PLURALTASUNA'RI BURUZ HAUSNARTZEA

Jaiotzez edo aukeraz kide ginen gizataldeetan (familia, lagunartea, ikastetxea, auzoa) nagusi zen ideologia politikoak norbanakoon identitatea eraikitzeko prozesua baldintzatu du, hamarkadetan zehar. Are gehiago: ideologia politiko bakoitzak bazituen berezko kode estetikoak, hizkuntza-kodeak, guneak eta harreman-inguruneak. Bakoitzak bazuen, era berean, gizarteari, kulturari, ingurumenari, eta abarri lotutako berezko diskurtsoa, eta, itxura batean, koherentzia gordetzearren, diskurtso horri eutsi behar izaten zion. Gaur egun, berriz, prozesu konplexuago gisa hautematen hasi da identitatea eraikitzea: prozesuak alderdi gehiago dituenaz konturatuta dago gizartea eta, bizikidetza osasuntsua bermatzeko, egokiro kudeatu beharra dago, bai komunitatetik, bai gizartetik, bai politikoki.

//// 'MIKRO' PROPOSAMENA

Gazte guztiak gonbidatzen ditugu beren identitatea nola eraikitzen duten hausnartzera (zeintzuk dira eraikitze-prozesu horretan eragiten diguten barne- eta kanpo-faktoreak eta ereduak?), eta besteek identitateak eraikitzeko darabiltzaten prozesuak nola hautematen dituzten aztertzera, batez ere, norberarenak ez diren ideiak dituztenenak (zein etiketa jartzen diegu? Zergatik? Berdin-berdin antzeman eta bidezkotzen al ditugu geure kontraesanak eta besteenak?).

//// 'MAKRO' PROPUESTA

Erakundeak, gobernuak eta alderdiak gonbidatzen ditugu hausnartzera zelan kudeatzen den publikoki, politikoki eta sozialki desberdintasuna, hau da, Euskadin dauden identitate pluralen existentzia/bizikidetza. Horretarako, gure ustez, ezinbestekoa da diagnosi egokia egitea, eta antzemandako gatazka edo arazoak gainditzeko neurri egokiak abiaraztea. Lehen urratsetako bat izan liteke 'identitate-pluraltasuna'ri buruzko batzordea eratzea Eusko Legebiltzarrean, eta gazteok (kolektibo gisa) bertan ordezkaritza izatea, eragin handiko sektore gisa.

IRAGANAREN BERRIKUSKETA KRITIKOA

Orainaldian ahalik eta lasterren jorratu behar da iraganaren berrikusketa kritikoa, bizikidetzan aurrerapenak eman daitezen. Agian ez da posible izango gertatutakoaren errelato partekatua egitea, baina, orainaldian nork berezko diskurtsoa eraiki ahal izateko, beharrezkoa da bakoitzak bere gain hartzea iraganarekiko dagokion erantzukizuna.

//// 'MAKRO' PROPOSAMENA

Eremu publikoa

Hartara, iraganaren berrikusketa kritikoa egitera gonbidatzen ditugu pertsonaia publikoak, elkarteak, alderdiak, segurtasun indarrak eta garrantzia duten bestelako eragileak (batez ere, halako aginpidea dutenak). Ildo

horretatik, oso garrantzitsua da, gure ustez, definitzea zer-nolako erantzukizuna izan zuen bakoitzak: iritzia, erabakia, egitea ala ez-egitea.

Komunikabideak (irratia)

Euskadiko irrati-etxeei proposatzen diegu gazteek zuzendutako irratsaioa egin dezatela, entzuleek gertakari berari buruzko beren errelatoak partekatzeko: nola enteratu ziren, nork kontatu zien, zein unetan, zelan sentitu ziren, gaur egun zer pentsatzen duten hartaz, eta abar. Ezinezkoa bada irratsaioa egitea, Autonomia Erkidegoan jada martxan dagoen saioren batean podcast bat txertatzea proposatzen dugu, edota horren edukia Interneten eta sare sozialetan zabaltzea, aldian-aldian. Esan beharra dago irratsaio edo podcast horrek ez lituzkeela esku-hartze guztiak hartuko: ezinbestekoa da, gure ustez, bizitzaren eta giza eskubideen balioari lotutako gutxieneko batzuk bermatzea. Hartara, ez litzaieke tarterik eman behar eraso pertsonal edo kolektiboetan oinarritutako iritzi eta errelatoei, ez eta indarkeria bidezkotu, eta eraikitzaileak edo suspergarriak ez liratekeen ekarpenei ere. Uste dugu irratia dela proposamena aurrera eramateko komunikabide egokiena: idatzizko prentsan ez bezala, irratian hobeto antzematen da norbanako bakoitzak bere iritzi edo errelatoari ematen dion doinua; eta, telebistan ez bezala, humanizatu egiten du, anonimotasuna guztiz galdu gabe.

BAKEAREN ALORREKO ERREFERENTEAK IKUSGAI JARTZEA

Terrorismoa eta indarkeria politikoa Euskadin protagonista izan diren hamarkada guztietan zehar, iritzi publikoa banatuta egon da: *bando* bakoitzak bere *heroiak* goraipatzen zituen, *gaizkileak* estigmatizatzen zituen, eta gizartea are gehiago polarizatzen zen. Politikoki eta sozialki legitimatutako esloganak, diskurtsoak eta argudioak zeuden, eta egunero errepikatzen ziren, mantrak bailiran.

Hori dela eta, iraganaren berrikusketa publikoa egiteaz batera, politikan, komunikabideetan eta gizartean ikusgarritasuna eman behar zaie errespetua, tolerantzia, bakea eta bizikidetza bezalako baloreak transmititzeko gako diren ideologia barruko eta kanpoko portaera, erabaki, iritzi eta ereduei. Aitzitik, ildo horretan ez doazenei ez zaie protagonismorik eman behar. Hona hemen adibide eredugarri batzuk: Eraikiz, Glencree, René Cassin Saria jaso duten taldeak, edo gai horiek modu aktiboan jorratzen dituzten udalak.

'LUBAKI IDEOLOGIKOAK' GAINDITZEA

Gaur egun, oraindik ere, badago ideologikoki bereari eusten dioten norbanako eta taldeak. Endogamikoak dira, taldekoiak, hurbilgaitzak, eta batere barneratzaileak edo eraikitzaileak ez diren diskurtsoak darabiltzate. Erronka zailenetakoa da, baina hona hemen berau erdiesten saiatzeko proposamen batzuk:

//// 'MESO' PROPOSAMENA

Hona hemen edozein gaztek aurrera eraman lezakeen proposamen sorta, bere 'lubaki ideologikoak' eta besteenak gainditzen saiatzeko: erradikalizazioaren suntsitze-efektuaz jabetzea; etsai, arerio edo kontrako gisa ikusten duguna humanizatzen saiatzea; identifikatzea bake prozesua nork kritikatzen duen, eta zergatik; aztertzea zelan eta zergatik jarraitzen duten batzuek indarkeria bidezkotzen (adi, legezko indarkeria bidezkotzeari dagokionez!); jarrera gatazkatsuenen atzean dauden argudioak aurkitzea; batere barneratzailea edo eraikitzailea ez den diskurtsoa darabilen pertsona erreferente bilakatzen duten faktoreez gogoeta egitea; eta abar.

//// 'MAKRO' PROPOSAMENA

Eremu publikoa

Komunikabideei eta alderdi politikoei (edo horien jarraitzaile diren taldeei) eskatzen diegu gorrotoaren hizkuntzatik abiatzen diren esloganak eta diskurtso ideologikoak baztertzeko (zenbat eta laburrago eta zuzenago izan, hobeto gogoratzen dira eta kaltegarriagoak dira).

Erakundeak eta gizarte zibil antolatua

Erakundeei eta elkarteei gomendatzen diegu ingurune hurbilean edo 'mikro'an lan egiteko: maila horretan dago malgutasun handiena, eta pertsonak ikusten dira, alderdiak bainoago. Zehazkiago, proposatzen dugu elkarrizketak egitea, batetik, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren eraginak sistematikoki pairatu dituzten udalerri, komunitate eta auzoetan; eta bestetik, lehenago aipatutako horien, eta gatazkaren eraginak puntualki edo modu isolatuan jasan dituztenen artean. Horretarako, gure ustez, terrorismoaren eta indarkeria

politikoaren ondorioak gainditzea lortu duten udalerri, komunitate eta auzoak identifika litezke, eta eredu gisa hartu, prozesu geldoagoa, delikatuagoa eta konplexuagoa dutenei laguntzeko.

Bakezaleak bake lantaldearen saioetako bat.

Jarraian datorrena ez dira erronkak, ez proposamen zehatzak. *Bakezaleak* lantaldeak egindako dekalogoa da, eta bere xedea da erantzun zehatz eta zuzena ematea galdera existentzial biri (saiatzen direnak orainalditik etorkizun baketsu eta partekatuagoa eraikitzen). Baliteke hamar gogoeta horietatik proposamen gehiago jaiotzea epe labur, ertain edo luzera.

ZELAN BIZI NAHI DUGU? NOLA SENTITU NAHI DUGU GAZTEOK?

NAHI DUGU...

1. *... gure janzkera, hitz egiteko modua zein den, aisialdia zertan erabiltzen dugun, nora goazen, norekin egoten garen, eta abar aintzat hartuta esleitzen dizkiguten estereotipoei eta etiketei lotutako estigma, epaituak izatearen sentsazio hori sentitzeari utzi.*

2. *... gure egunerokotasunean normaltasunez aritu, modu batekoa ala bestekoa izateak, nola edo hala pentsatzeak edo hau ala beste esateak izan ditzakeen ondorioen beldurrik gabe. Aurrerapauso bat emateak ez dezala ekar gure ideologia ezagutzen ez zutenean hurbil genituenak galtzea.*

3. *... hainbat ideologia barne biltzen dituzten gizarte-harremanak izan (laguntasunean oinarrituta, ez kidetasun politikoan).*

4. *... gainerako belaunaldiekin daukagun elkarrizketa falta gainditu: lagun diezagutela eraikitzen traumatikoa ez den memoria partekatua eta orainaldian babestuko dugun diskurtsoa. Izan ere, berandu baino lehen, gu izango gara hurrengo belaunaldiei komunikatzeko eta hezteko ardura izango dugunok.*

5. *... beste belaunaldi batzuentzako eredu izan, haiei aldaketa ekarri (erakutsi posible dela 'lubakietatik irtetea', jarrerak malgutu eta hurbiltzea, gu bezalakoa ez denari aditzea eta ulertzea).*

6. *... berehala ken dakiela legitimotasuna giza eskubideen aurka, eta pertsona ororen (eta, bereziki, gazteen) osotasunaren eta duintasunaren aurka doazen jarduketa, iritzi eta erabakiei –edonondik datozela ere, eta edonori eragiten diotela ere–.*

7. *... komunikabideek gurekin kontatzea gai horiek jorratzerakoan, hau da, gertakariari buruzko gure ikuspuntua izan dadila erreportajearen ardatza, ez alderantziz.*

8. *... sektore politikoek ez ditzatela bereganatu gure aldarrikapenak, ez eta jaiak, ohiturak, hizkuntza edo eremu publikoa ere.*

9. *... parte hartu bakegintzari eta bizikidetzari buruzko politika publikoak eztabaidatzen diren erabakitze- eta jardute-eremuetan.*

10. *... sentitu eta egiaztatu bakegintza eta bizikidetza prozesuari egiten diogun ekarpena aintzat hartua izaten dela, eta ikusgarritasuna ematen zaiola.*

ONDORIOAK

Bizitzaren garai iragankor bat baino zerbait gehiago da gaztaroa. Errealitatea eta hark dakarzkien erronkak antzeko moduan antzematen dituzte gazteek. Aldaketarako ilusioa partekatzen dute, eta ez etsitzeko beharrezkoa den indarra eta adorea dute. Horrek ez du esan nahi idealistak direnik, xede bera partekatzen dutela baizik: orainaldia birformulatu nahi duten pertsona borrokalari eta sortzaileak dira, iraganean indarkeria eta sufrimendua eragin zituztenak berriro errepika ez daitezen, etorkizuna barneratzaileagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa izan dadin. Gizarte bidezkoagoa, demokratikoagoa eta askeagoa bultzatzeko garai paregabea da gaztaroa, gizarte baketsuagoa eta partekatuagoa eraikitzeko sasoi ezin aproposagoa.

2014ko ekainaren eta 2016ko azaroaren artean, 18-30 urte bitarteko Euskadiko 250 gazte inguruk hartu zuten parte EGK-k aurrera eramandako bake eta bizikidetzako zenbait ekimenetan. Batez bestean 25 urte zituzten gazteek, eta, batez ere, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorri ziren. Gehien-gehienak bilbotarrak eta donostiarrak baziren ere, errealitate anitz eta aberasgarria zuten beste udalerri batzuetakoek ere hartu zuten parte topaketetan. Teknologia berriei lotutako komunikabideen bidez izan zuten jarduera horien berri gazteek (posta elektronikoz, WhatsAppez edo sare sozialen bitartez), eta beste gazte batzuen bitartez ere bai (parte hartu ostean, haiek gonbidatu zituzten).

Gaur egungo egoera ezegonkor eta konplikatuaren eraginez, bakeari eta bizikidetzari lotutako gaiak ez daude gazteen lehentasunen artean, baina horrek ez du esan nahi haien interesa eta jakin-mina pizten ez dutenik. Gaur egungo bizitza-erritmoak gauzak errazten ez baditu ere, gazteek, oraindik ere, gehiago baloratzen dute parte-hartze zuzena (mediatizatu gabea), eta eskertu egiten dituzte horretarako ematen dizkieten erraztasun guztiak. Izan ere, horrelako ekimenetan parte hartzearen helburu bakarra ez da gai horiek lantzea: konpromiso bera partekatzen duten beste gazteekin harremanetan jartzeko, beste errealitate, bizipen eta iritzi batzuk ezagutzeko gune seguru, eroso eta intimoa izatea ere bilatzen da. Finean, metodologia parte-hartzaile eta eraldatzaileetatik ekarpenak egitea, aditzea eta solastu ahal izatea. Hori dela eta, bizipen eraikitzailea eta itxaropentsua bizi dute gazteek.

Esan beharra dago, ordea, gazte guztiak ez direla jarrera berarekin joaten horrelako ekimenetara. Orokorrean, lehen urratsa ematea zaila dela diote. Parte hartzea baldintza dezaketen faktore batzuen aurrean mesfidati agertzen dira, kolokan jartzen dituzten kontu horiek: jarduera nork antolatzen duen, zein helbururekin, eta zer-nolako garrantzia emango zaien beren ekarpenei. Urduri ere egoten dira, lehenago horrelako ekimen batean parte hartu ez dutelako. Lotsarazi egiten ditu beste batzuentzat txikikeriak izan daitezkeen, edota haiek erasotzeko motibo izan daitezkeen kontu intimoak partekatzeak. Kontatzen dutenak (bizipenak, ikuspegiak edo iritziak) besteei eragin ahal dien oinazearen beldur dira.

> Hau bezalako ekimenetan parte hartzeak barne-bakea dakarkit, laguntzen dit sinesten posible dela kanpoan ere bakea lortzea

Horregatik, hain zuzen ere, gehiago gustatzen zaizkie talde txikiak, modu naturalagoan sortzen delako desberdinen arteko konfiantza. Talde txikietan, gainera, jarrera humanoago batetik har dezakete parte, sentipenetatik abiatuta, eta ez hainbeste ideologiatik; ez baita beharrezkoa adieraztea zer alderdi edo elkartetakoak diren. Beste alde batetik, helburua ez denez akordioak lortzea, baizik eta pentsamenduei, portaerei, harremanei, emozioei, oroimenei eta kontraesanei buruz hitz egitea, topaketak biziagoak dira, baina askatzaileagoak eta emankorragoak ere bai. Elkarri aditu, eta, bat-batean, komunean dituzten puntuak, antzeko egoerak, ulertzen dituzten sufrimenduak aurkitu dituzte, eta horrek ekarri du ezagutzen ez zuten (eta une horretatik aurrera, dagoeneko, haien parte izango zen) errealitatearekin, gatazkarekin identifikatzea. Enpatia horretatik, hain zuzen, hasten dira konponbide partekatuak bilatzen. Haiek ere gizartearen eragileak direla sentitzen dute, bake-kultura eraikitzeko prozesuaren protagonista izateko ahalmena eta zilegitasuna badutela, gogoeta eta proposamen baliodun eta eraldatzaileak egin ditzaketela.

Horiek guztiak xehatu dira, argitalpen honetan zehar. Jarraian datorrena, EGKren jardueretan parte hartu duten gazte guztiek, beren borondate eta konpromisoarekin, bake eta bizikidetza prozesuari egin nahi izan dizkieten ekarpenen laburpena besterik ez da. Dagoeneko prozesu hori ezin baita *batzuena eta besteena* izan, guzti-guztiona baizik.

IRAGANARI BURUZKO GOGOETAK

Euskal gatazka delako hori ez da ETAren terrorismora eta arrazoi politikoengatiko indarkeriara mugatzen, ez eta horrek guztiak Euskadiko gizartean izandako eraginera ere. Gure ustez, gure gatazka oso sakona da, eta horrek eskatzen du dimentsio askotatik hausnartua izan dadila. Hain zuzen ere, bizitzaren eremu guztietatik heldu behar zaio gaiari: eremu emozionaletik; hizkuntzaren, hezkuntzaren arlotik; eremu mediatikotik, ekonomikotik; lurraldetasunetik; eta abar. Horrela, bada, iruditzen zaigu bi bandoen planteamendu horrek gehiegi sinplifikatzen duela errealitatea: lurralde txiki batean eman zen gatazka, eta bertako gizartearen gehiengoak batzuen ala besteen alde agertzeko behartua zegoen edo, bestela, gertatzen ari zenaren aurrean geldi geratzen zen.

Ezagutzen ditugu iraganeko testuingurua (biolentoagoa eta biolentatuagoa) baldintzatzen zuten faktoreak, eta ez dira orainaldiko berdinak. Hala eta guztiz ere, zaila egiten zaigu ulertzea duela hiru hamarkada besterik ez, gutxieneko batek baino ez aldarrikatzea borroka ez-biolentoa, aldaketa sozial eta politikoak sustatzeko bide zilegizko eta etiko gisa. Hori dela eta, azkenean, boterea egikaritzeko modu ohikoegia bezala hauteman dugu indarkeria. Desadostasunak, ezintasuna, amorrua edo frustrazioa beste modu batean komunikatzeko adierazpide gisa. Horregatik, hain zuzen ere, heziketa emozionalean ditugun gabeziak izan dira, gure ustez, gatazkak hainbat urtean zehar luzatu izanaren arrazoietako bat. Izan ere, uste dugu gatazka bera baino okerragoa dela egiaztatzea zelan gatazka horrek ez zuen jada minik ematen, ez zuen eragiten; ikustea, azkenean, ia-ia normaltasun osoz bameratu genuela errealitate biolentoa. Baliteke hori guztia babes-mekanismo bat izatea. Gaur egun, gauza bera gertatzen zaigu gazteoi bizikidetza ez-eraikitzaile molde batzuekin (iraganetik dakartzagunak, hain zuzen ere).

> Gure gatazka dimentsio askotatik hausnartu behar da, bizitzaren eremu guztietatik, hain zuzen ere

Ziur gaude hemen jaio eta hazi izanak baldintzatu egin gaituela gure identitatea, pentsamoldea, sentipenak, eta komunikatzeko zein harremanak izateko moduak eratzerakoan. Gazteoi gehien eragin diguten gertakariak ez dira eremu publiko eta mediatikoan emandakoak (horiek ere eragin diguten arren), baizik eta gure egunerokotasunaren parte izan direnak, gertuko gure ingurunean gertatu direnak –familian, auzoan, eskolan, lagunartean edo herrian–.

Politikak bizitzaren arlo guztiak baldintzatzen zituen testuinguru batean hazi ginela uste dugu guztiok: ikasi genuen isilik egoten eta itxurak egiten, ez ginenaren plantak egiten, nora eta norekin gindoazen zaintzen, pentsatu eta sentitzen genuena gureekin baino ez partekatzen. Geure burua zentsuratzen genuen, beldurragatik; etiketak sortzen genituen 'geureekin' identifikatzeko, eta 'besteengandik' bereizteko eta babesteko. Ondorioz, elkarren kontrako ur biren artean igerian sentitu gara sarri: 'Ni' publikoa, eta 'Ni' pribatua. Komunikabideen ildo editorialak ere definituta eta polarizatuta zeuden (politikariak eta gizartea bera bezalaxe). Aldez aurretik genekien kontsumituko genuen informazioa alderdikoia eta partziala izango zela. Guk, gure aldetik, oso gutxitan erkatu dugu informazioa, errealitatearen gure ikuspegiarekin bat ez zetozen komunikabideetatik kanpo. Horren eraginez, sarri, gure jarrerak (ideologikoak eta, beraz, bizitzari buruzkoak) berretsi egiten genituen.

> Heziketa emozionalean ditugun gabeziak izan dira, gure ustez, gatazkak hainbat urtean zehar luzatu izanaren arrazoietako bat

Hala eta guztiz ere, gehienok ez dugu indarkeria zuzena lehen pertsonan jasan, eta gatazkaren alde gordin eta mingarriena ere ez. Hori bai: gehiago ala gutxiago, sentitu egin ditugu gatazkaren ondorioak (aurreko belaunaldietako pertsonen bizipen proiekzio zuzen eta zeharkakoen bitartez). Batzuetan, bizi izandakoaren transmisioa elkarrizketaren bidez egiten da (traumatikoa ala ez, objektiboa ala subjektiboa, kasua zein den), baina, orokorrean, isiltasunaren eta absentziaren bidez egiten da, azalpen handirik gabe: beldurragatik, ezintasunagatik, gu babestu nahi izatearren, konplizitateagatik.

> Isiltasunek eta politikak bizitzaren arlo guztiei eragiten zieten testuinguru batean hazi gara

Hori dela eta, erantzunak behar ditugu, sakonean ezagutzea zer gertatu den: zeintzuk diren errealitate horiek, ezagutu ez ditugun gatazkaren alderdi horiek. Eta, batez ere, horien atzean dauden zergatiak ulertzeko beharra daukagu. Hutsune horiek ez ditugu diskurtso arrazional batekin bakarrik bete nahi. Gertatutakoak eragindako emozio guztiak ulertu nahi ditugu: nola sentitu ziren, nola sentitzen dira gaur egun, aurreko belaunaldiak, nahita eragindako indarkeriaren aurrean, giza eskubideen bortxaketen aurrean, gertatu den eta gertatzen ari den guztiaren aurrean?

Aurreko belaunaldiak ez dira memoria sozialera eta errelatora ekarpenak egin ditzaketen bakarrak. Bizi izandako denbora-tartearen ikuspuntutik gure 'Memoria Indibiduala' beste belaunaldiena baino laburragoa da, baina horrek ez du esan nahi horiek bezain oparoa eta bizia ez denik. Ekarpenak egin ditzakegu, egin nahi ditugu, egin behar ditugu, badaukagu zer esan. Gure ahotsak ere izan behar du konpromiso, ardura honen parte. Beraz, ezin dugu ukatu arduratu egiten gaituela gazteen zati batek gai horiei buruz erakusten duen axolagabekeria. Jarrera horren aurka jardun behar dugu, uste dugulako memoriaren faktoreak asko baldintzatzen duela gure identitate indibiduala eta kolektiboa nola eraikitzen dugun, eta hala egiteak lagunduko duela gertatutakoa ez errepikatzen.

> Bizi izandako denbora-tartearen ikuspuntutik gure 'Memoria Indibiduala' beste belaunaldiena baino laburragoa da, baina horrek ez du esan nahi horiek bezain oparoa eta bizia ez denik

Ildo horri jarraituta, uste dugu lan egin behar dugula memoria barneratzailea izan dadin, eta balore demokratikoak eta giza eskubideak izan daitezen memoria-politika ororen ardatz. Era berean, arreta berezia jarri behar zaio biktimak zaintzeari –eta biktimek, indibidualki, ez dute sentitu behar beren sufrimendua beste biktima baten sufrimenduarekin erkatzen denik–. Izan ere, sufrimendua subjektiboa da, norberarena da eta ez da zertan alderatu, ez kategoriatan sailkatu: sufrimendu bat ez da beste bat baino handiagoa edo txikiagoa. Sufrimendu guztien aitortza egin behar da. Giza eskubideen bortxaketa hala da, testuingurua edo hura pairatzen duena edozein izanda ere. Argi geratu behar da, ordea, gauza bat direla gizarteari, oro har, eragiten dioten giza eskubideen bortxaketak, eta beste gauza bat dela eskubide indibidualak bortxatzea. Hori dela eta, sufrimendua sailkatu nahi ez badugu ere, biktima guztiak ez dira berdinak. Hori bai: uste dugu biktima guztiek merezi dutela aitortza, kasu guztietan eskatu behar dela erantzukizuna eta biktima ororî bermatu behar zaiola bizi izandakoa ez dela berriro gertatuko. Hori dela eta, harritu egiten gaitu autokritika egiteko eta iraganean gertatutakoagatik dagokien erantzukizuna beren gain hartzeko gatazkaren parte diren sektore ideologiko eta eragile batzuek erakutsitako ezintasuna. Kezkatu egiten gaitu kontuak, eremu publikoan autokritika egiteak eta erantzukizunak bereganatzeak eragina izango lukeelako Historia irakurtzen, idazten, interpretatzen, berridazten eta zabaltzen dutenengan, eta horrek, aldi berean, eragina duelako gizarte gisa eraikitzen dugun memorian.

Aurrekoari lotuta, uste dugu errelatoa osatzea kontu korapilatsua dela: sarriegi ikusi dugu alderdi batzuek biktimak eta presoen kolektiboa erabili dituztela gizartean onarpen handiagoa lortzeko, politikan gora egiteko edo arerioari kalte egiteko. Horretarako, gainera, gizartea eta hautesleak emozionalki erabili dituzte. Ez dute onartu gertatutakoaren errelatoa norbanako edo taldeei gertatzen zaiena baino harago doala. Gertatu zaigun guztia dela. Gurea eta besteena: gu guztiona.

Azkenik, espetxe-politika da, gure ustez, iraganetik datorren, eta oraindik ere konpondu gabe daukagun beste gai korapilatsuetako bat. Preso daudenak beren bizilekutik hurbilago dauden espetxeetara eraman behar dituztela uste dugu, eta zigor batzuk berrikusi egin behar dituztela. Horrekin batera, harritu egiten gaitu, nekez uler dezakegu, zergatik biktimagile gehienek ezin duten aitortu ez zutela inor erail, bahitu behar, ez ziotela inori estortsioa egin behar, ez zutela inor mehatxatu behar, eta zergatik ezin duten aitortu horrek guztiak nahita eragindako sufrimendu guztia.

> Harritu egiten gaitu autokritika egiteko eta iraganean gertatutakoagatik dagokien erantzukizuna beren gain hartzeko gatazkaren parte diren sektore ideologiko eta eragile batzuek erakutsitako ezintasuna

ORAINALDIKO AUKERAK

Ez gatoz bat erabakitzerakoan noiz helduko garen egoera idealera. Horren harira, oraindik ez daukagu itxaropen handirik gatazka konpondu, eta horren eraginak gainditzeari dagokionean.

Ezin dugu iraganarekin hautsi. Ez dugu hala egin behar. Ez dugu egin nahi. Lehenengo eta behin, jakin behar dugulako zein den terrorismoak eta zio politikoengatiko indarkeriak hamarkada hauetan guztietan zehar eragindakoaren sakontasuna. Bigarrenik, arrazoi politikoengatiko indarkeriari lotutako tentsio-fokuak eta jarduerak badaudelako, oraindik ere (iraganeko argudioetan kateatuta); erne eta eszeptizismoz beteak egotera behartzen gaituzte. Eta hirugarrenik, politikagintzako sektore batzuek berriro zerotik hasi nahi duten arren, aurrera egingo badugu, ezinbestekoa delako taburik gabe hitz egitea, gertatutako guztia argitzea eta aitortzea, erantzukizunak hartzea eta nahita eragindako sufrimendua konpontzea. Non daude, zer sentitzen dute, zer pentsatzen dute, oraindik hala egin ez dutenak?

Asko sufritu dugu, eta badakigu bidea ez dela erraza izango, kosta egingo zaigula trabak gainditzea, elkarguneak aurkitzea. Baina oinazea, mesfidantza, amorrua eta gorrotoa gainditzen saiatu behar gara, errezeloa dutenak gureganatzen. Hortik

etorriko da konponbidea, etorkizun partekatua eraikitzeko aukera emango diguna. Eta oso-oso argi daukagu ez dugula nahi iragana errepikatzea.

Nahi ala nahi ez, iraganak egiten gaitu, iraganak zehazten gaitu. Iraganean gertatutakoari buruzko errelatoak, horren protagonista direnek eta gertakariek baldintzatu egiten dute orainaldiari buruz daukagun ikuspuntua eta, hartara, orainaldi horretara lotzen gaituzten emozioak ere bai. Izan ere, gure argudioak, gehien-gehienetan, ideologia politiko batean ainguratuta baino, pertsonalki eraldatu, eta errealitatea beste modu batean hautematera eraman gaituen bizipen zuzen edo zeharkako batean oinarrituta daude.

> Aurrera egiteko, ezinbestekoa da taburik gabe hitz egitea, gertatutako guztia argitu eta aitortzea, erantzukizunak hartzea eta nahita eragindako sufrimendua konpontzea

Uste dugu gaur egungo egoera balekoa dela, baina ez dela aski. Bereizi egiten ditugu alderdien eta gobernuen jarduerak eragiten dizkigun emozioak, batetik, eta gizartearen egoerak, eguneroko bizikidetza, bestetik. Gehiago interesatzen zaizkigu gizartearen kontuak, politika baino. Dena dela, gaia, soziala ala politikoa, zenbat eta korapilatsuagoa izan, gehiago kostatzen zaigu iritzia ematea. Edozelan ere, nekea, frustrazioa, asperdura eta inpotentzia eragiten digu jardun politikoak, jarrera eta diskurtsoak mugitzen ez direla ikusteak, elektoralismoak, biktimak eta biktimagileak politizatu egiten direla ikusteak. Aldiz, gizarteak bizi duen egoerak, bizikidetzan emandako aurrerapenek, ilusioa eta itxaropena pizten digute. Baretzen ari da giroa, askeago sentitzen gara, lasaiago. Nahi duguna izaten uzten diogu geure buruari, unean uneko giroari, lagunei eta inguruari horrenbeste erreparatu gabe. Jada ez gara gertatzen denari, gertatzen zaigunari, horrek sentiarazten edo pentsarazten digunari buruzko gure iritziak ematearen beldur.

Dena dela, bide luzea dugu aurretik, oraindik ere. Gazteok argi izan behar dugu guri dagokigula ezagutzaren eta gatazkaren konponketa barneratzailearen belaunaldia izatea. Ezin dugu espero urteetan gatazka konpontzen saiatzen ari diren horiek beren saiakeretan jarraitzea gazteak aintzat hartu gabe. Protagonistak garela sentitzen dugu; bizi dugun une historikoaren parte gara eta, beraz, prozesuan parte hartzeko legitimitatea daukagu. Ezin gara geratu gatazkaren arrazoiak aztertzen dituzten diskurtsoetan: bizikidetza eraikitzeko pentsatu eta lan egin behar dugu, eta, hala egiteko, ez dugu inoren zain egon behar, inork ez digu esan behar hori nola egin.

> Gure argudioak, gehien-gehienetan, ideologia politiko batean ainguratuta baino, pertsonalki eraldatu, eta errealitatea beste modu batean ulertzera eraman gaituen bizipen zuzen edo zeharkako batean oinarrituta daude

> Gazteok argi izan behar dugu guri dagokigula ezagutzaren eta gatazkaren konponketa barneratzailearen belaunaldia izatea

Lan hori, gainera, egin behar da bizitzaren eremu eta maila guztietan.Bakegintza eta bizikidetza ez dira helmuga, bidea baizik. Bide hori intimitatetik eta egunerokotik abiatzen da, keinu txikietatik. Nork bere erritmoan hartuko du bide hori, bere bizipenek eta gogoetek baldintzatuta. Beraz, prozesu horretan, enpatia, begirunea eta pazientzia izan behar ditugu bidelagun. Orainaldiak eskaintzen dizkigun aukerei dagokienez, uste dugu gazteok hautsi egin behar dugula aurreko belaunaldietara lotzen gaituen kate emozionala; zalantzan jarri behar ditugula ikasitako ereduak eta aurrejuzguak; irten egin behar dugula gure konfort politiko eta sozialetik, gatazkak gure komunitateetan utzitako zama gainditzen saiatzeko. Eta uste dugu hitz egin behar dugula. Hausnarketatik abiatutako elkarrizketak desideologizatu eta humanizatu egiten du; isiltasunak eta hesiak gainditzen ditu; estereotipoak suntsitzen ditu; emozio suntsitzaileak sendatu, eta aske egiten gaitu; tolerante izaten irakasten digu; jarrerak hurbiltzen ditu; desberdintasunak ezabatzen ditu; komunean duguna aurkitu, eta zubiak eraikitzen ditu. Hala gertatzen zaigu, batez ere, gure Historiaren eta partekatutako memoriaren iraganari eta orainaldiari lotutako lehen pertsonako bizipen txundigarriak ezagutzen ditugunean.

Eremu publikoago batera etorrita, uste dugu memoriaren alorreko politikek hiru ardatz izan behar dituztela. Lehenengoa, memoriaren politizazioa identifikatzea, horren aurka egitea eta hala egitea prebenitzea. Bigarrena, desberdinen arteko elkarrizketarako eremuak sortzea eta mantentzea, eta sustatzea talde eta belaunaldi guztiek horietan parte hartzea. Izan ere, belaunaldiarteko elkarrizketa funtsezko tresna da, gure aburuz, iraganeko bizipenak ezagutzeko; egia absolutuetan oinarritutako diskurtsoak desmuntatzeko; memoria soziala eratzeko; gatazka berak kolpatutako gizartearen harremanak berriro ehuntzeko; eta konpromiso horien gainean elkar motibatzeko. Belaunaldi guztiak har dezakegu geure gain partekatutako erantzukizun hori. Hala egin behar dugu.

Hezkuntza eta heziketa dira memoria-politiken diseinuaren hirugarren zutabea. Heziketa eta kultura ezinbesteko lanabesak dira, bizi garen, partekatzen dugun mundua behatzeko, aztertzeko eta ulertzeko, bizitzaren konplexutasuna mamitzeko, pentsamendu kritikoa garatzeko, desberdintasunari duen balioa aitortzeko, eta gizakiak (norbanako zein gizartearen parte gisa) berezko dituen gatazkak kudeatzen jakiteko. Gatazkak badaude, eta beti egongo dira, baina barneratu behar dugu ezin dezakegula sekula indarkeria erabili horiek konpontzeko. Egia da, era berean, indarkeria ere hor dagoela, eta beti egongo dela, baina ikasi behar dugu hura ere neutralizatzen, zilegi ez bihurtzen, ez transmititzen. Indarkeria eragiten duten faktoreak antzematen badakigu, eta hausnartzen badugu indarkeria pairatzeak eta eragiteak nola sentiarazten gaituen, aukera izango dugu indarkeria hori kontrolatzeko eta prebenitzeko. Zentzu horretan, ezinbestekoak da genero

> Komunikabideei doitasuna eta zintzotasuna eskatu behar dizkiegu, diskurtso leheneratzaile eta eredugarriak zabaltzeko esan behar diegu

ikuspegitiko irakurketa egitea, hausnartzea zeintzuk izan diren gure rolak eta gure erantzukizunak emakume eta gizon gisa, bai iraganean, bai gaur egun (etorkizun baketsuagoa, partekatuagoa eta, noski, parekideagoa eraiki behar baitugu elkarrekin).

Heziketak ere baliabideak eskaintzen dizkigu, akordioak erdiesten ikasteko. Oro har, saiatzen gara aditzen, ulertzen. Ordea, kosta egiten zaigu pentsatzen duguna zalantzan jarri, eta iritzia aldatzea. Zenbat eta handiagoa izan konpondu beharreko gai edo gatazkarekin dugun lotura, gehiago kostako zaigu. Azkenik, uste dugu heziketak lagundu egiten duela ondorioei buruzko kontzientzia hartzen, hau da, irakasten digula arduratsuak izaten.

Komunikabideetan ere bizikidetzaren gaia landu behar dela uste dugu. Diskurtsoak eta errealitateak eraikitzen dituzten neurrian, ez al dira jabetzen iraganean eta orainaldian erantzukizuna badagokiela? Ulertzen dugu presioa, beldurra eta sufrimendua izan direla, hainbat urtean zehar, kazetaritzan aritu izan direnen eguneroko ogia. Ordea, horrek ez du azaltzen kode deontologikoa betetzeari eta errespetatzeari buruzko autokritika egitera ausartzen diren kazetari bakan batzuk baino ez egotea. Komunikabide batzuetan aurrerapauso txikiak baino ez ditugu antzematen: amorrua sorrarazten eta gizartea zatitzeko saiakeran tematuta jarraitzen dute. Ez dugu ulertzen zer onura ateratzen dioten aurkarien arteko desberdintasunak, tentsio-puntuak, eta bizikidetzari lotutako egoera eta gertakari delikatuenak bakarrik islatzen dituzten berriak zabaltzeari. Gizartea, artean, jarrerak hurbiltzeko eta elkar ulertzeko ahaleginetan ari denean. Horren aurrean, zorrotz jokatu behar dugu: komunikabideei doitasuna eta zintzotasuna eskatu behar dizkiegu, diskurtso leheneratzaile eta eredugarriak zabaltzeko esan behar diegu.

Eremu politikoan, berriz, elkarri benetako demokrazia eskatu behar diogu (batez ere politikariei). Demokrazia osasuntsu batek aukera ematen du edozein proiektu politiko garatzeko, hura babesten dutenak jazarri eta zigortu gabe. Eta ezin gara mugatu balizko beste eredu demokratikoen gaineko hausnarketa egitera: eredu horiek praktikara ekarri behar ditugu, egunerokoan aplikatu. Aipatutako guztiarekin batera, kontzientzia bakezalea birpiztu behar dugu: gure aldarrikapen guztiak kutsa ditzala kontzientzia horrek. Baliteke oinarri-oinarrizkoena izatea kolokan jartzea giza eskubideek erakundeentzat, enpresentzat, elkarteentzat, alderdientzat eta gizartearentzat berarentzat duten balioa eta legitimotasuna. Hausnartzea ea berdintasunez, proportziozkotasunez babesten dituzten, ea modu kontsekuente eta arduratsuan ari diren aipatutako guztiak (batez ere, giza eskubideak errespetatzen direla bermatu behar duten erakundeak –batzuetan, beren ahalmena baliatzen baitute neurririk gabeko indarkeria erabiltzeko giza eskubideak bortxatu nahi dituztenen aurka egiteko eta haiek zigortzeko–).

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

1. *Ausar gaitezen izatera, egitera, esatera. Askatasunean bizitzera.*
2. *Antzeman gaitezen ikuspuntu humanoago eta emozionalago batetik, jarrera ez hain ideologiko batetik.*
3. *Ez dezagun inor behartu pentsatu eta sentitzen ez duen hura pentsatu eta sentitzera. Nork bere prozesu eta erritmoak ditu. Ahalegindu gaitezen ulertzen besteek zergatik pentsatu eta sentitzen duten pentsatu eta sentitzen dutena.*
4. *Jar ditzagun zalantzan aurrejuzguak eta estigmak, etiketak; suntsi ditzagun gure hesiak. Erantsi ditzagun maskarak, irten gaitezen gure konfort-eremuetatik, beste ikuspuntu, istorio eta errealitate batzuk ezagutzeko. Utz ditzagun alde batera mesfidantza eta beldurra, aurrera egiteko prest egoteko.*
5. *Susta dezagun belaunaldiarteko elkarrizketa; galde diezaiegun iraganari buruz. Horrela eginez gero, gainditu egingo ditugu isiltasunaren eta erdizka kontatutako egien ondorioak, eta memoria sozial errealagoa, barneratzaileagoa, ez hain traumatikoa, sendatzaileagoa ehunduko dugu.*
6. *Iraganean gertatutakoaren ostean, eta orainaldiaren ikuspuntutik ikasitakoa eta gero, uler dezagun gatazka dela desberdintasuna kudeatzearen eta bizikidetza eratzearen berezko faktore bat. Baina ez dezagun sekula indarkeria baliatu gatazkak konpontzeko tresna gisa; horren ordez, jo dezagun hausnarketara, begirunera, elkarrizketara, enpatiara, sormenera.*
7. *Bultza dezagun elkarrekin komunikatzeko bide enpatikoago eta asertiboagoa; eman diezaiogun ikusgarritasuna hitz egiteak dakarren oparotasunari, elkarrizketatik beste iruditeria baketsuago eta partekatuago batzuk sortzeak duen aberastasunari. Txanpon beraren bi aldeak dira gatazka eta akordioa: hazten eta aurrera egiten laguntzen digute biek.*
8. *Demokraziaren kultura sustatzeko eskubidea eta betebeharra daukagu; kultura horretan, elkarrizketa begirunetsuen, eta akordio barneratzaile eta parte-hartzaileen bidez konponduko ditugu gatazkak.*
9. *Ez dezagun mesfidantzaz edo beldurrez jokatu gatazkaren parte ez diren arren, hura konpontzen lagundu nahi dutenen aurrean. Saia gaitezen haien ekarpena prozesuan txertatzen: ikuspuntu, aukera eta tresna berriak ekarri ahal dizkigute.*

10. *Koherentziaz eta arduraz joka dezagun giza eskubideen bortxaketen aurrean, alegia, bake-prozesua ahul dezaketen arrazoi eta ekintzen aurrean. Nahita eragindako indarkeria ezin da bidezkotu, ezingo da bidezkotu, edonor direla ere hura egikaritzen duena eta hura pairatzen duena. Aurre egin behar diegu bidegabekeriei; biktima guztiek behar dute aitortza eta erreparazioa.*

11. *Egin dezagun aurrera, beste justizia-eredu baterantz: utz ditzagun bazterrean mendeku eta zigorrezko justizia, eta eska dezagun justizia eraikitzaileago eta integratzaileago bat. Horretarako, noski, nahita eragindako sufrimendua aitortu beharra dago.*

12. *Eska diezaiegun komunikabideei ez kriminalizatzeko gazteen militantzia politikoa; ikusgarritasun handiagoa emateko gai horiei buruz uste dugunari; eta bakearen eta bizikidetzaren alde egiten ari garen lanaren berri zabaltzeko.*

13. *Jarrai dezagun lanean eremu horretan, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren ondorioei erreparatuta, baina desberdintasunaren kudeaketatik eratorritako beste arazo batzuk ere aintzat hartuta (immigrazioa, desberdintasun ekonomikoa, erlijio-aniztasuna, eta abar).*

14. *Egin ditzagun ikusgai desberdintasunak, aitortu diezaiogun pluraltasunari dagokion balioa. Borroka dezagun hura defendatzeko, ez dezagun liskarrerako arma gisa erabili. Ikas dezagun aniztasun hori kudeatzen: gaindi dezagun gure subjektibotasuna eta gure jarrera alderdikoiak, eta topa ditzagun eremu partekatuak.*

15. *Erakuts dezagun asko dugula bake-prozesuari emateko, gu ere har gaitzatela eragile gisa; beharrezkoa izan dadila gu erabakitze-eremuetan egotea.*

16. *Bitartekaritzan, elkarketan eta aldaketan prestakuntza izan, eta kontzientziatuak gauden gazteok –hau da, bizi garen, elkarrekin bizi garen errealitatea aztertu, errealitate horrekin kritiko eta sentibera agertu, eta konpromisoa hartuta eta ahaldunduta gaudenok bultzatu behar dugu beste gazte batzuek (edo, areago, beste belaunaldi eta taldeetako pertsonek) beren hesiak, mesfidantza, axolagabekeria edo nagia gainditu, lanean hasi, eta gure xedearekin bat egin dezatela–. Ezin diogu ardura hori inori eskuordetu: gu gara, gu izango gara aldaketaren indarra.*

Baliteke bakea horixe izatea: jatorri eta zama desberdinak ditugun pertsonak, eragiten diguten gaiei buruz hizketan, testuinguru demokratiko batean. Gure desberdintasunak partekatzen. Ikuspuntu guztiak mahai gainean jartzen. Konponbide partekatuak bilatzen.

Errespetutik elkarrekin bizitzen eta askatasunean hitz egiten.

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi